

# ZEGAMA 2001

URTEKARIA

3. ZENBAKIA  
ABENDUA



**ZEGAMAKO UDALA**

# ZEGAMAN DAUKAZU ERANTZUNA



**GOIERRI BEHEKO  
INDUSTRIALDEA**


c/Mallutz, s/n · 20240 - ORDIZIA (Gipuzkoa)  
Tfno. 943 880617 Fax. 943 881152 e-mail: [ordizia@industrialdea.spri.es](mailto:ordizia@industrialdea.spri.es)

## ***Herritar adiskidea, agur!***

Urtea amaitzear dugun honetan, ohikoa bihurtzen ari den urtekaria aurkeztera natorkizu beste behin ere. Urtea bera, baina era berean ezberdina izaten da guztiontzat, gorabeherak, nola onak hala txarrak, ugari izan ditugu eta batzuek oso gertutik ukitu dituzte hainbat familia, lagun eta senitarteko. Dena den, eta urrutia-gotik bada ere, guztiok sentitu ditugu ezbehar hauek. Udalerrri baten bizitzan eragin nabarmena dute gertakari hauek guztiok; baina era berean gizakion eguneroko ahalegin eta intentzioen ondorioa da udalerriko bizitza eta bizimodua. Garrantzitsua da guztion artean gauza gehiago eta hobeak egiteko irrika eta borondate sutsua izatea, hori izango baita Zegamaren etorkizuna eta biziraupena bermatzeko bide sendoena.

Herritarren lana eta saiakera dira hain zuzen ere, liburuxka honetan islatzen direnak. Eta lerro hauek ematen didaten aukeraz baliaturik liburuxka honen gauzatzean, nahiz herriaren aldeko beste edozertan bere ekarpena egin duen orori eskerrak eman nahi nizkioke; hala nola, udal langile, elkarte eta herritarrei.

Eta azkenik, urte sasoiari berari dagokionez, bihotz bihotzez Eguberri jai alaiak eta Urte Berri zorionsua opa dizkizut zuri eta zure ingurukoiei. 2002. urteak eman diezagula osasuna Euskal Herrian BAKEA ikusi eta bizitzeko.



ZEGAMAKO  
UDALA

Zure zerbitzura.

Udalaren izenean:

JUAN INAZIO GALDOS LARREA  
*Alkatea*



## ARGITARATZAILEA

### Zegamako Kultura Batzordea

Urtekari hau egin ahal izateko laguntza eman diguzuen guztioi, mila esker.

### EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Edurne Albizu	Odolemaileen Elkartea
Begoña Olarte	Zeasma: Biharko Zegama
Arantxa Gorrotxategi	Caritas Elkartea
Joxe Luis Berasategi	Ramonita Arizkorreta
Igor Alustiza	Ramon Agirre
Izaskun Osinalde	M <sup>a</sup> Carmen Zabaleta
Manex Aranburu	Eduardo Telleria
Izaskun Igoa	M <sup>a</sup> Paz Larrea
Fermin Leizaola	Imanol Artola
Julian Beloki	Xabier Ormazabal
Mikel Berasategi	Alberto Aierbe
Amezti Elkartea	Inazio Urbizu
Tartalo Elkartea	Joxe Azurmendi
Kasino Elkartea	Txomin Landa
Olaberri Elkartea	Roman Ormazabal
Elkartu Nahi Txirindulari Elkartea	Jose Ormazabal
Aitzgorri Futbol Taldea	Jose Zubizarreta
Guraso Elkartea	Edurne Pasaban
Orkatz Abesbatza	Juanito Oiartzabal
Jubilatuena Elkartea	Belen Ormazabal
Ehiztarien Elkartea	Juan M <sup>a</sup> Gorrotxategi
Gazte Herexa Elkartea	Jesus M <sup>a</sup> Peña
Tobera Musika Eskola	Itziar Razkin
Kultur Etxea	M <sup>a</sup> Luisa Marin
Aitxuri Herri Eskola	
San Martin Parrokia	

Gure eskerrik beroenak

#### KUTXAri

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA, EUSKARA,

#### GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUAri

#### EUSKO JAURLARITZAko KULTURA SAILAri

urte guztian zehar eman diguten laguntzengatik

#### Zegamako Udala

Zegamako Urtekaria 2001

© Zegamako Udala

Lege-gordailua: SS-1324/99

*Zegamako Udalak ez du bere gain hartzen Urtekarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber, adierazi, argitaratutako argazkiak Elkarte bakoitzak Udalaritza utzitakoak direla.*

## AURKIBIDEA

Alkatearen agurra .....	1
Agenda.....	3
Juan Mari Gorrotxategi .....	4
Belen Ormazabal.....	5
Udala .....	6
Zegama: Lehena eta oraina.....	21
Intxaustiko Industrialdea eraikitzen.....	24
Zaharkinak. Fermin Leizaola.....	26
Herriko tradiziozko ospakizunak .....	28
Zegamako Caritas .....	29
Kultur Etxea .....	32
Aitxuri Herri Eskola .....	34
Tobera Musika Eskola .....	36
Gogoeta Estrategikotik Zeasma:	
Biharko Zegamara.....	37
Xabier Arakama .....	37
Jesus Merchan .....	37
Orkatz Abesbatza .....	38
Txomin Landa .....	40
Zegamako Ehiztarien Elkartea .....	43
Joxe Mari Esnaola Catalunyan .....	43
Olaberri Elkartea .....	43
Guraso Elkartea .....	44
Zegamako Odolemaileen Elkartea.....	45
Gazte Herexa Elkartea .....	45
Amezti Elkartea .....	46
Elkartu Nahi Txirindulari Elkartea .....	47
Tartaloetxe Kultur Elkartea .....	48
Kasino Elkartea.....	49
San Martin Parrokia .....	50
Aitzgorri Futbol Taldea .....	51
Ofizio baten desagertzea	
Roman Ormazabal .....	52
Joxe Ormazabal .....	55
Jubilatuena Elkartea .....	57
Aizkorriko Lagunen Elkartea .....	58
San Bartolomeak .....	60
San Martinak .....	62
Zentru meteorologikoa abian.....	64
Izadia eta aintzina ibilbidea Zegaman .	65
Basozainak Zegaman .....	66
Joxe Azurmendi .....	66
Alberto Aierbe .....	68
Inazio Urbizu .....	70
Imanol Artola .....	71
Xabier Ormazabal .....	73
Zegamar Txapeldunak .....	74
Ba al zenekien? .....	75
Atzoko Zegama.....	76
Gabon eta urte berri gozo .....	79
Erreal eta Joseba Albizu primeran .....	80

# AGENDA

## TELEFONOAK

### UDALETXEA:

Idazkaritza	943 801 115
Faxa:	943 800 073
Kultura eta Gizarte Laguntza	943 801 351
Bake Epaitegia	943 801 115
Posta elektronikoa:	zegama@udal.gipuzkoa.net

### BESTE TELEFONO BATZUK:

Aitxuri Herri Eskola	943 800 042
Osasun Zentrua	943 801 306 / 943 027 700
Tobera Musika Eskola	943 801 570
Ostatua	943 801 299
Goierraldea Autobusak	943 885 969
San Adriango Aterpetxea	943 582 076
Sasieta Mankomunitatea	943 160 690 / 943 161 555
Ertzaintza	943 887 350
Beasaingo Anbulategia	943 888 650
Beasaingo Larrialdiak	943 461 111 / 943 880 967
Gurutze Gorria	943 161 516 / 943 162 150
Renfe (Beasain)	943 880 853
SOS Deiak, Suhiltzaileak	112
Taxia (Jose Luis García)	609 662 767
Goieki	943 161 537
Goitur	943 161 823



## 2001ko JAIOTZAK

CHRISTIAN LOUSA VILLAVERDE	2001-03-17
OIHANE PELAEZ PARRA	2001-05-11
EGOITZ RIVAS LARREA	2001-05-30
JOSEBA AZURMENDI SANDRO	2001-06-01
IÑAKI GALDOS URBIZU	2001-09-03
IZASKUN MALKORRA RODRIGO	2001-09-24
MAIALEN MARTIN GOIKOETXEA	2001-12-06

## 2001ko HERIOTZAK

MARIA ARIZTIMUÑO AGIRRE	2001-01-18
JOSE LAZKANO ARIZTIMUÑO	2001-02-06
HILARIO LAZKANO MUGIONDO	2001-02-07
JOSE AIERBE ZABALETA	2001-02-12
JOSE ANGEL LASKIBAR IRASTORZA	2001-03-14
SEVERIANA ETXEBERRIA ZABALA	2001-03-26
FELIPE AZURMENDI LARREA	2001-04-22
JOSE AGIRRE ARIZTIMUÑO	2001-06-14
MARI JOSE ALUSTIZA MANTEROLA	2001-07-01
JESUS ZURUTUZA ARREGI	2001-07-30
JUANA FCA. AROZENA URDANPILLETA	2001-07-31
DEMETRIO ALUSTIZA AIERBE	2001-07-17
RAMON AGIRRE AGIRRE	2001-08-26
JOSE AMEZTEGI AGOSKUE	2001-09-01
GABINA MENDIARAZ ARRUABARRENA	2001-09-09
MARIA LUISA ETXARTE ELIZONDO	2001-09-14
JOSE IRIGORAS AGIRRE	2001-09-16
ANTONIA LAZKANO MURGIONDO	2001-10-04
IÑAKE ARAMENDIA IRASTORZA	2001-10-17
JOXEPA LAZKANO ARIZTIMUÑO	2001-11-17



# LEHENAGOKO GIPUZKOA

## LEHENAGOKO ZEGAMA

Zegamako Udalak aurtengo Urtekari-rako nire idatzizko aportazioa eskatu zidanez, Gipuzkoa bera eta Zegamako hainbat datu interesgarri kronologikoki aipatzea eta azaltzea interesgarria iruditu zait, batez ere guztiok jabetu gaitezen gure egungo egoera eta izatea ez dela beti horrelakoa izan, etengabeko bila-kaeraren barne gaudela.

Badirudi **k.a. 70.000-30.000 urteen artean** eman zirela Gipuzkoako lehenengo lur emateak. Neanderthal motakoak ziren. Aztarnategiak Lezetxikin (Arrasate), Amaldan (Aizarna) eta Aitzbitarten (Erreterria).

Geroago klima hoztearen ondorioz, kantabriar isurialdera toki-aldaketa izan zen, Cromagnongo gizakia agertuz. Hori guztia k.a. 33.000-9.000 urteen artean gertatu zen. Aurrez aipatutakoez gain, Ekainen (Deba) eta Altxerrin (Orio) aztarnategiak.

**K.a. 9.000-4.000 artean** tenperaturak gora egin zuen eta kobak utzi zituzten. Gizakia haranetara hurbiltzen hasi zen. Herria oihanez bete zen.

Badirudi **k.a. 3.500. urte aldera** euskararen erabilera baieztatu daitekeela. Aztarnategiak urriak dira.

Aizkorri eta Altxaniako trikuharriak ez dira **k.a. 2.000 arte** agertzen. Lur emateak hilobi koba eta trikuharrietan. Brontze aroa. Aztarnategiak Jentiletzen (Mutriku), Urtiagan (Deba) eta Marizulon (Urnieta).

Burdina zeltekin agertu zen (**k.a. 900-500**), baina zelden arrasto urriengatik pentsa daiteke Gipuzkoa zeltiaziotik kanpo gelditu zela. Lur emateak beste modu batekoak dira: harrespilak (Jentilbaratza). Lur emateak Jaizkibelen, Oartzungo mendietan eta Adarran.

**k.a.I-k.o. IV.** mendeetan elikaduraren oinarria ezkurra zen. Nekazaritza urria eta abeltzaintza garrantzitsua. Barduliarrak egungo Gipuzkoan kokatuta zeuden. Erromatarren presentzia (k.a.25-k.o.150) Irunen, Oartzunen (Arditurriko meatzeak), Hondarribian (ontziratzeko portua) eta Zegamako San Adrianen galzarda erromatarra.

### IX- XX mendeak

Lur kolektiboak jabetza pribatu bihurtu ziren antolaketa feudalaren barruan. Familia-talde boteretsuak sortu ziren, geroago "Ahaide Nagusiak" izango zirenak eta beraien esku gelditu ziren lurren zatirik handienak eta harrapakinak. Gipuzkoa osoan 14.000 bat lagun bizi ziren, taldetan edo herrixketan batuta.

Populazio urri hori garatzen joan zen, 1.500. urtean 60.000 lagun, 1.800. urtean 106.552, 1.900. urtean 195.850, gaur egungo 672.000 biztanlera heldu arte.

### 1.180. urtean

Donostia sortu zen. 1.180tik 1.383 arte 25 hiribildu sortu ziren Gipuzkoan.

**ZEGAMA.** Zegamako lehenengo erreferentzia historikoak 1.384. urtekoak dira, Segura hiribilduarekiko anxio eskriturak egin zirenekoak. 1.615ean Felipe III.a erregeak "berezko hiribildu" mesedea eman zion eta horrela Udaletxe burujabe bihurtu zen eta Probintziako Juntetan eserlekua lortu zuen.

### Aurreko datuak

Aizkorriko Santo Kristoa. XII - XIII. mendeetako da. Hilerriko kareharrizko ur bedeinkatuaren ontzia erromanikoa da, XIII. mendekoa.

Hilerriko ponteak ere erromanikoa da. Motibo geometrikoak ditu eta hau ere XIII. mendekoa da.

Irutxetako Andramariren irudia XII- XIII. mendekoa da. Erreferentzia gisa, Zumarragako Antzinako Ama baselizako aurrealdea ere XII. mendekoa da.

Gipuzkoako kristautzea ez zen X. mendera arte heldu. Bataio, ezkontza eta hileta elizkizunen inguruko lehenengo agiriak 1.603. urtekoak dira, Segura eta Zeraingoen ondoren (1.551). Agiritan agertu diren izenak: Olarango Andres jauna, Gorrotxategiko Francisco, Arteagako Catalina, Unzurrunzagako Juan, Arrizabalagako Agueda, Arrietako Catalina, Anduezakoa Nicolas, Arrondoko Pedro, Ormazabalgo Juan, Urzelayetako Madalena, Aztiriako Asensio, Mazquiarrango Mari, Iturburuko Domingo, eta abar.

### 1.637ko urtea

Zegamako San Martin parrokiaren Erretaula Nagusia egiteko, Gregorio Hernandezen eskolakoa zen Berasateguiko Gartzia Kontratatu zen 1.637ko irailaren 29an 3.950 dukaten truke; 1.000 hasieran eta gainerakoa urteko 120 dukateko epetan. Aurrez ebakitako zura eman eta berak esandako ontziolan utzi-ko zitzaiola hitzartu zuten.

Erretaula Nagusiaz gain, alboetakoak ere egitea hitzartu zen, bost urteko epearen barruan egitea.

Azpimarratzekoa da Zegamako erretaula tamaina horretako estilo barrokoko eta Gregorio Hernandezen eskolako bakarra dela Gipuzkoan gertatzen.

### 1.665eko urtea

Arrivillako Magdalena eta Ormazabalgo Martinen arteko ezkontza kontratua inksribatu zen, lehenengo inksripzioa.

"Nire, Ugarteko Andresen aurrean, eta Ormazabalgo Martin eta Mussasoroko Mari aurrean direla, Trento Kontzilio Santuak agintzen duen moduan ezkondu dira Martin jauna eta Magdalena andrea pertsona aske gisa, eta ezkontza honen kargak betetzeko eta Jainkoak eman diezazkien seme-alabak hazteko, eskaini eta eman egin zaien Larreako etxea, Ondarra auzoan kokatua, bere ondare guztiekin, lurrak, sagastia, gaztainadia eta bereak diren mendiak, 30 dukateko kargu eta betebeharrarekin...., Arrueko Ignacio jaunari, erdia zilarra eta erdia laukoak...."

### 1.617-1.848 urteak.

Dontzeilen dotaziorako Tomas Oyarbidek egindako obra errukitsua.

### 1.801. urtea

2 eguneko zaldi eta guztiko okupazioa-gatik, parrokiarako argizari bila Altsasura joateagatik, Goycoecheako Cristobal jaunari.

Beste faktura bat ere bada, urreztazaille-maisu eta pintorea zen Lameko Jose jaunari ordaindutako 6.600 errealeta-koa, hirugarren eta laugarren epeengatik.

### 1.809. urtea

Frantziaren kontrako gerrak sortutako gastuei aurre egiteko, urtu daitezkeen parrokiako zilarrezko objektuen inguruko agiria.

### 1.896ko urriaren 3a

Aizkorriko Santa Kruz baselizan emandako mezaren bedeinkapen akta eta ospakizuna.

Alustizako Jose Andres alkate jauna eta Zabala eta Etxebarriako Alfonso Maria apaiza, Ezkiokoa eta 49 urtekoa, goizeko lauretan atara ziren; San Adriango kobara heltzean, Telleriako Baldomero bikario-orde jaunarekin, presbiteroa; Lascuraingo Jose Miguel, Arabako Vicuñaño apaiz jaunarekin; Oyarbideko Jose Cruz eta Larreako Jose Toribio jaunekin, diakono-ordeak biak; eta San Adriango koban dagoen Mikeleteen etxolan gaua pasatu zuten lau zegamarrekin batu ziren. Tontorrera goizeko 9etan heldu ziren.

### 1.899. urtea

10-11 ordainagirien arabera, 52,30 ppta ordaindu zitzaizkion Bartolome

Aseginolazari urtean zehar elizan gastatutako argizariagatik. Elizak duen argitasun naturala gehitzeko asmoz bi leiho berregin ziren, tamaina handituz. Gainera, beste hiru leiho ireki ziren aldareurrean. Lanak 9 hilabetez luzatu ziren eta 17.635 pezetako kostua ekarri zuten.

#### 1.927. urtea

Lehengo klaseko 6 hileta elizkizun izan ziren, 50 pzta balio zituen bakoitzak.

Bigarren klaseko 10 hileta elizkizun izan ziren, 30 pzta balio zituen bakoitzak.

Hirugarren klaseko 4 hileta elizkizun izan ziren, 15 pzta balio zituen bakoitzak.

#### Fakturak.

1. Organo jotzaileari urteko soldata ordainketa..... 910 pzta.

2. Sakristauari urteko soldata ordainketa..... 500 pzta.

3. Pontea zaintzeagatik serorari ordainketa..... 6 pzta.

4. bis. Organoa bi aldiz afinatzeagatik Amezua etxeari ordainketa....130 pzta.

11. Eskaintzako ardoagatik Loidi jaunari ordainketa..... 21,45 pzta.

Erabilitako iturriak: Koldo Mitxelena liburutegi birtuala; Xabier Azurmendiren Atzoko Zegama; Euskal Herriko Unibertsitatea; Edorta Kortadi, Jose Luis Orella eta beste batzuen Santiago bidea Gipuzkoan; Blanca Sañudoren Zegamako San Martin Parrokiako Erretaula Nagusia; Donostiako elizbarrutiko artxibo historikoa.

Besterik gabe, urtekari honetarako idazteko izan dudana aukeraz baliatuz, irakurle guztioi Eguberri zoriontsuak opa dizkizuet eta urte berri on!

JUAN MARI GORROTXATEGI IRASTORZA  
APAREJADOREA



## ETORKIZUNEAN NOLA IKUSTEN DUDAN HERRIA?

Orain dela gizaldi erdi Zegaman jaiointzen, Arranoaitz azpian, Aierdi base-rrian, elur zuria ugari zen egun batean, eta egunak egokitu zidan izena ezarri zidaten herriko ponte zaharrean.

Zegamar askok bezala, "belak" garanez, hegan egiten ikasi nuen nahiko gazte nintzenean, baina hegaldi horietako batean pausaldi luzexka ere egin nuen herrian, neure kabia sortuz, Ainara eta Mattin munduratu. Baina, pausa unea besterik ez zen izan eta hegan jarraitu nuen, harkaitzaren beste alderantz. Orain Arabako lurralde haue-tatik egunero ikus dezaket goizeko oskorria, harkaitz gaineko laino ganbara eta elurra Aizkorriko mendikatean zehar, lantokitik aurrez aurre baitut.

Neure jaioterri honetan, lanbidez irakasle edo "andereño" egin nituen hamar urte. Herriko aldizkarirako idazteko eskatu zidatenean, gauza asko gogoratu nituen bat-batean, pelikula bezala pasa ziren hamar urte haiek, batzutan neketsuak, korapilatsuak, baina, oso pozgarriak, kemen eta ilusioz egindako lanak. 1978an iritsi nintzen herrira, eta, 1970ean, lan askoren ondoren sortu zuten ikastolari jarraipena eman eta etorkizunean guztiona izango zen eskola bateratuari hasiera ematea tokatu zitzaigun, guraso eta irakasleei, 1980ko irailean Herri Eskola sortu zen.

Etorkizunean nola ikusten dudana herria, galdera luzatu zidaten. Nik neure lanbidetik emango dut iritzi apala, eta nire gogoz etorkizunik onena opatzen diodala ere bai.

Zegama herri txikia da, baina mundu handi eta zabalean mugitu behar duten herritarrez osatua. Etorkizuneko mundu horretarako ongi prestatzea ezinbestekoa dela deritzot, eta gaur egungo

gazte eta haurrei datorkigun mundurako, XXI. gizaldirako, prestatzen laguntzea dela gure eginkizuna, bai familia, eskola, udaletxe, gazte elkarte..., geure nortasunari inongo ukorik egin gabe; alderantziz, uste dut laguntza handia litzatekela geure nortasunean aurrera egiteko.

Lan honetan Herri Eskola ardatza izan behar da, herriko haurren prestakuntza eta jakinmina garatuz. Ingurua eta mundua ezagutuz, bizi behar duten gizartean erantzuteko geure nortasunetik, horretarako behar diren tresnetan edo bitartekoetan ongi prestatuz: hizkuntzak, teknologia eta humanitateetan.

Hizkuntzak ezinbestekoak direlako, iturri ezberdinetatik ezagutzak jasotzeko eta munduan ibiltzeko. Teknologia eta informatika nahitaezko bitartekoak lan mundurako eta gero eta garrantzi handiagoa eman behar genieken humanitateak, gizarte anitz honetan errespetoz bizitzen ikasteko eta gizarte orekatuagoaren alde lanean saiatzeko.

BELEN ORMAZABAL (AIERDIKOA)  
IRAKASLEA





## UDALA

### UDAL BASOETAN HAINBAT INBERTSIO

#### ARRANO AITZ ETA SAADAR-AZTIO MENDI KONTSORTZIATUETAN INBERTSIO GARRANTZITSUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamenduko Foru Diputatua den Jon Mikel Murua Zegaman izan zen 2000ko abenduaren 29an ondoren zehazten diren inbertsio hauen berri emanaz.

Zegamako Udalaren jabetzakoak diren Arrano-Aitz eta Saadar-Aztio mendi kontsortziatuetan entresakak egiteko beharra zegoela eta (entresaka egin ahal izateko behar-beharrezkoa zen pistak eraikitzea) Zegamako Udalak, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamendua arazo honen jakinaren gainean jarri zuen bertan oinarrizkoak ziren inbertsioak egin zitzaizkion. Honela eskaera luzatu zion eta honi erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Neka-zaritza eta Ingurugiro Departamen-duak, bi urteren buruan (2001-2002) mendi horietan pistak eta bestelako inbertsioak egiteko konpromisoa hartu zuen 2000. urtean.

Bi mendi hauetako partizipazioa era honetara banatzen da: Zegamako Udala % 45 eta Gipuzkoako Foru Aldundia % 55.

Esan mendi hauetan 30 urte inguruko larizioa dagoela eta dagoeneko entresaka hau egitea oso beharrezkoa dela.

#### ARRANO AITZ

Arrano Aitzen pistak irekitzeko hiru fase aurrikusi ditu Foru Aldundiak.

##### Igo FASEA:

Arrano Aitz mendiak 60 Ha.ko azalera du, eta lehen fase honetan 5 Km.ko

pista ireki du Foru Aldundiak, berau 2000 urteko aurrekontuen kontura egin da eta lanak ere iazko urte bukaeran gauzatu ziren, guztira 7.000.000 pztako inbertsioa egin delarik.

##### 2. FASEA:

Aurrekoetz gain, beste 4,8 Km. egin dira Arrano Aitzen 2. fase honetan, lan hauek 2001 urtean burutu dira. Bigarren faseko kostua 8.809.036 pztan izan da.

Pista hau Arrano Aiztik Bostaizetara egin da, duela gutxi Udalak erosi berri duen Txermatxo saila ere azpiegitura aldetik kaxkar zegoela kontuan izanik, pista berri honekin arazoa bideratua geratu da.

##### 3. FASEA.

Fase honetan Elor-Txikin egingo da pista, berau 5 Km.ko izango da eta 13.000.000 pztan inguruko kostua izango du; berehala aterako dira obrak subastara.

Bestalde, Elor-Txiki eta Arrano-Aitzen gutxi gorabehera 40 Ha.ko azalera entresaka burutzen ari dira eta 2.350 bat estereo atera dira. Estereoak 260 pztan esleitu da; honez gain soilketa lanak egiten ari dira.

#### MALKOR-BURUA ETA ARAKAMA-HAITZA

Mendi hauetan ere hainbat inbertsio burutu dira.

MALKOR-BURUA: Mendi honek 6.479 Ha.ko azalera du eta bertan 12.087 pinus radiata (pino insignis) motako lan-

dare sartu da. Lanaren kostu osoa 1.984.270 pztan izan da.

Pistei dagokionean, bi mendi hauek zeharkatuz pista irekitzen ari dira gaur egun, honen kostuaren aurrikuspena 12.986.500 pztakoa da.

Landaketari dagokionean, "Arakama-Haitza"n datorren neguan burutuko da, lehen aipatutako pista irekitze lanak amaitutakoan. Hemen gutxi gorabehera 700.000 pztako inbertsioa egingo da, landaketa eta udako garbiketara.

#### OAZURTZE

Udal mendi honetan ere honako inbertsio hauek burutu dira:

Entresaka lanak egin dira 30 Ha.ko azalera, gutxi gorabehera 2.100 estereo atera dira 400 pztan ordaindu delarik bakoitzak; hau da, guztira 840.000 pztan.

Pistei dagokionean, 1.200 metro pista erreparatu dira hodiak sartuz. Bestalde 160 metroko pista adar berria ireki da. Kostua 2.000.000 pezeta igo da eta obra hauek bukatuta daude.

Podaketei edo iñausketei dagokionean, 30 Ha.n podaketa lanak esleitu dira, guztira 1.740.000 pztako aurrekontuarekin. Kostu hau, aurrean aipatutako entresakako diru sarreratik 840.000 pta eta Foru Aldundiak jarritako 900.000 pztarekin ordainduko da. Lan hauek gaur egun esleitura daude eta hastear.

#### ELOR HAUNDI

Mendi honetan eroritako pinuak zutik jarri dira, horretarako 299.600 pztan



Jon Mikel Murua, Diputazioko Nekazaritza eta Ingurumen Diputatua, Zegamara egindako bisitan.



*Pagadia*

gastatu dira joan den udaberrian. Bertan 1.838 unitate zutitu ziren bakoitzari zegokion zutoina eta soka jarriz, hala ere, emaitza kaxkarra izan dela esan behar, gehienak ihartu egin direlako.

Udako garbiketa: 4,36 Ha.n sasi garbiketa lanak egin hilaraka eta 196.200 pztako kostua izan du eta, lan hauek bukatuta daude.

### **BURNIKUTZE**

Udal mendi honetan honako inbertsioa egin da:

Entresaka: Mendi honetan entresaka burutu da, eta GPSarekin azalera neurtu da. Mendiak 9,754 Ha.ko azalera du tresna honen arabera. Azalera honetan egin den entresaka dela eta, 1.049 estereo egur bildu da, eta estereo bakoitzagatik 850 pzta (+BEZa) ordaindu da, guztira 936.331 pzta. Lan hauek ere burututa daude.

### **AZTIO-SAADAR**

Aztio-Saadar mendietan ere inbertsio garrantzitsuak burutzen ari dira.

Saadar-Napar-Iturri eta Uskatza inguruan 7.8 metroko pista irekitzeko lanak esleitu dira, guztira, 12.250.000 pzta.

Bestalde, Saadar eta Napar-Iturri zenbait entresaka egiteko ere esleipenak egin dira

Bertatik 2.800 estereo inguru aterako dira eta esleipena 650 pezeta (+ BEZa) egin da.

Udan ere garbiketa lanak burutu dira Saadar mendiko behe aldean, guztira 16 Ha. garbitu dira eta honen kostua 1.600.000 pzta izan da. Garbiketa lan hau bukatu dago.

### **MAIÑAMENDI**

Maiñamendin sasi garbiketa egin dadin esleipena egin da, guztira 24 Ha. garbitzen ari dira egun, honen kostua 2.004.000 pezeta inguru aurrikusi da.

Beraz, 2000. urtean eta 2001ean Zegamako herri mendietan 44.170.596 pezetako inbertsioak aurrikusten dira, gaur egun hauetatik 15.000.000 inguru jadanik gastatuta daude lanak bukatuak eta beste 29.000.000 inguruko lanak

burutzen ari dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen esan bezela 44.170.596 pezeta jarri ditu eta Zegamako Udalak 840.000 pezeta.

Guztira beraz, Zegamako Udalak 150 Ha. hauetan gaur egun 150 miloiko balorea baduela esan behar eta egingdako inbertsioak direla eta, beste 40 urteren buruan mendi hauen balorea bikoiztu egingo da, etorkizunerako azpiegiturak eginda geratzen direlarik.

## **URAREN ZIKLO OSOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

"Uraren ziklo osoa" arautzen duen Ordenantzari 2001eko otsailaren 5ean eman zion Udalabatzak hasierako edo lehen onarpena, eta apirilaren 2an behin betikoa ematea ebatzi zuen.

Ordenantza horrek, Zegamako udalerriaren lurralde-esparruan, ura hornitu eta saneatzeko zerbitzuak eta horien erabilzaileak edo harpidedunak arautzea du helburu eta alde bakoitzaren eskubideak, betebeharrak eta obligazioak zehazten ditu. Ordenantzaren edukia 113 artikulutan banatzen da eta interes duen edonorentzat, Udaletxean dago eskuragai.

## **GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA**


Zegamako Udalak otsailaren 12an Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen horren ondorioz, ur biltegia edo depositoraino datozen uren kudeaketa eta saneamendua eta ur horniduraren "beheko" sarearen (ur gordailutik etxeetara doana) zerbitzuaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kapital erabat publikoaz osatu duen elkarte anonimoaren (Gipuzkoako Urak SA) ardura izango da.

Zegamako Udalak "Gipuzkoako Urak SA"ri 2001ean zerbitzuaren ordainketa abonatu bakoitzeko 33'5 pzta/m3ko gehi 470 pzta/hiru hilabeteko izango da. Noski, ondoren Zegamako Udalak ur zerbitzuaren erabilzaileei egozten die kostua.

## **BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA DATOZEN LAU URTEETARAKO**

*M<sup>a</sup> Isabel Ugartemendia*

Deialdi publikoa egin eta prozedura legala bete ondoren, M<sup>a</sup> Isabel Ugartemendia Lazkano izendatu zuen Bake Epaille Udalabatzak 2001eko maiatzaren 7an egindako bileran. Jakinarazi behar da deialdi publikora aurkeztu den hautagai bakarra izan dela. Beraz, azkeneko 8 urte hauetan Bake Epaillea izan den M<sup>a</sup> Isabel Ugartemendiak datozen lau urteetarako lanak berritu ditu. Zorte on!



Obra iragartzen duen panela

Bestalde, Zegamako Udalak, bere jabetzakoak diren gainerako mendiak "erabilpen publikoan" sartzeko eskaera egin ondoren Diputazioak dagoeneko erabilpen publikoko aitortza egin du. Eta mendi hauetan ere aurten hasiko dira inbertsioak.

Honenbestez, esan, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak Zegamarekiko izandako begirunea eta egindako ahalegina eskertzekoaz gain, azpimarratzekoa dela.

## UDALERRIKO KULTUR ETA KIROL TALDEEI DIRULAGUNTZAK

2001. urte hasieran 2000 urteari zegozkion dirulaguntzak banatu zituen Udalak herriko kultur eta kirol elkarte eta taldeen artean. Hala nola, indarrean dagoen arautegia aplikatuta, ondorengo diru banaketa egin zen:

- Orkatz Abesbatza..... 380.656 pzta.
  - Gazte Herexa..... 69.344 pzta.
  - Amezi Mendi Elkarte..... 76.819 pzta.
  - Elkartu Nahi Txirindulari E.....136.521 pzta.
  - Aizkorri Futbol Taldea..... 336.692 pzta.
  - Ekintza berezietako erreserba... 200.000 pzta.
- 1.200.000 pzta.

Bestalde, aipatu behar da Tobera Musika Eskolari 1.320.000 pezetako dirulaguntza eman zaiola.

## OLARAN ERREKA ETA ORIA IBAIAREN BIDERATZEAK ETA HIRIGUNEN SANEAMENDU LANEN AMAIERA

Otsailan hasi eta udalerriko hirigunea hankaz gora jarri dituen Olaran erreka eta Oriá ibaiaren bideratzeak eta hiriguneko saneamendu lanak amaitzeaz daude. Obra hauen ondorioz, hiriguneko sanea-

mendu guztia burutu da; hasi Olaran aldetik, jarraitu Santa Barbara eta Aseginolaza Anaien kaleetatik eta amaizteko Alderdi-Eder eta Txarape auzoak.

Bestalde, gure "paisaje urbano"an ere aldaketa nabarmen utzi dizkigu obra honek; hain zuzen ere, "Herreria"ko etxearen eraispena, zubi berria eraikitzea, Eliza atzetik doan Olaran erreka zati bat agerian gelditzea, Santa Barbara kaleko txukunketa edo apaindura (kalearen adokinatua, jardinerak eta aulkiak, boloak eta piboteak oinezkoen lehentasuna bermatzeko jartzea eta Santa Barbara kalean lurperatutako zerbitzuen ondorioz, fatxadetatik kendutako kableak) eta azkenik, Gernikako arbolaren oinordekoa Eliza atzetik Kultur-Etxeko parkera eramatea (birlandatzea).

Azkenik gogoratu behar da obra "Construcciones Ubiri S.L." enpresari adjudikatu zitzaioela 160.700.967 pezeta (BEZa barne), eta bere finantzaketa Eusko Jaurlaritza (%75) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (%25) kontura egin dela. Halaber, aipatu obren oinarri izan den proiektu tekniko "Sestra S.A." injineritzak egin duela, eta bere kostua (5.565.776 pezeta) Zegamako Udalak ordaindu duela.

## OLARAN AUZOKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN NOTARIO AURREKO ZOZKETA

Olarango babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikaziorako, iazko abenduaren 19an Notario aurreko zozketa egin zen, aurrez Udaletxean izena emana zuten 30 herritarren artean. Hauen nahitaezko baldintzak, udalerrian erroldatuta egotea eta etxebizitzaren jabe ez izatea. Honen-

bestez, Notario aurreko zozketa egin ondoren eta Udal Gobernu Batzordeak 2000ko abenduaren 21ean adjudikazio-hartzaileen (erosleen) eta itxaron zerrendaren behin-behineko onarpena emanik, zozketaren emaitza ondorengo izan zen:

- 1 partzela, 1C etxea, 2 garajea, 8 trasteleku: *Carlos Telleria Asurmendi.*
  - 1 partzela, 1D etxea, 3 garajea, 5 trastetegia: *Jon Imanol Ormazabal Gorrotxategi.*
  - 1 partzela, 1G etxea, 4 garajea, 4 trastetegia: *Julian Iraola Lapizondo.*
  - 1 partzela, 2A etxea, 5 garajea, 3 trastetegia: *M<sup>a</sup> Angeles Berasategi Arrieta.*
  - 1 partzela, 2B etxea, 6 garajea, 2 trastetegia: *Pedro M<sup>a</sup> Arrizabalaga Bidaola.*
  - 1 partzela, 2C etxea, 7 garajea, 1 trastetegia: *M<sup>a</sup> Edurne Urbizu Arrondo.*
  - 1 partzela, 2D etxea, 8 garajea, 13 trastetegia: *Arrate Igoa Arizkorreta.*
  - 1 partzela, 3A etxea, 12 garajea, 9 trastetegia: *Haritz Garaia Lardizabal.*
  - 1 partzela, 3B etxea, 13 garajea, 10 trastetegia: *Argider Egimendia Arrondo.*
  - 1 partzela, 3C etxea, 14 garajea, 11 trastetegia: *Santiago Arizkorreta Lazkano.*
  - 1 partzela, 3D etxea, 15 garajea, 12 trastetegia: *Amaia Arrieta Ugartermendia.*
  - 2 partzela, 1A etxea, 11 garajea, 4 trastetegia: *Itziar Garmendia Ariztimuño.*
  - 2 partzela, 1B etxea, 12 garajea, 1 trastetegia: *Aitor Urbizu Urreaga.*
  - 2 partzela, 2A etxea, 13 garajea, 5 trastetegia: *M<sup>a</sup> Teresa Albisu Mujika.*
  - 2 partzela, 2B etxea, 14 garajea, 2 trastetegia: *Maidor Zabaleta Galarraga.*
- Honek errenuntzia egin ondoren 1. ordezkaria den *Luis M<sup>a</sup> Lasa Alustiza* izan da adjukikazio hartzailea.



Saneamenduko lanak Santa Barbara kalean

- 2 partzela, 3A etxea, 15 garajea, 6 trastetegia: *Iker Zubeldia Katarain*.
- 2 partzela, 3B etxea, 16 garajea, 3 trastetegia: *Elena Arizkorreta Etxarte*. Honek errenuntzia egin ondoren 2. ordezkoa den *Iker Goiburu Goiburu* izan da adjukikazio hartzailea.

**ORDEZKOAK**

- 1.- Luis M<sup>a</sup> Lasa Alustiza.
- 2.- Iker Goiburu Goiburu.
- 3.- Nikolas Osinalde Gurrutxaga.
- 4.- M<sup>a</sup> Soledad Lasa Alustiza.
- 5.- Juan Agustin Ibarburu Ormazabal.
- 6.- Iker Alzelai Arakama.
- 7.- Olatz Olarte Garmendia.
- 8.- Leire Igoa Arizkorreta.
- 9.- Jon Aramendia Auza.
- 10.- Andres Miguel Lucas Bonilla.
- 11.- Jose Andres Arrieta Etxeberria.
- 12.- Nekane Rodriguez Irigoras.
- 13.- Karmelo Alustiza Goiburu.

Bestalde, gogoratu behar da zozketa-tutako etxebizitza gehienak 90m2ko azalera inguru dutela, eta nahitaez berari garajea eta trastelekua eransten zaizkiola. Aipatutako etxebizitzak, garaje (gehie-nez 30 m2) eta trastelekuarekin (gehie-nez 13'5m2), ez du 15.556.302 pezeta-ko prezioa (BEZa barne) gaindituko.

Olaran auzoan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ahal izateko, Zegamako Udalak enpresa adjudikazio-hartzailea den "Saiatu SA"rekin permutako eskritura publikoa sinatu zuen ekainaren 5ean. Honenbestez, Zegamako Udalak "Saiatu SA" enpresari etxebizitzak eraikitzeko lurzorua eman eta hirigintza probetxamenduaren %10 eta udal tasa eta zergarengatik Udalarari ordaindu behar zion kopurua ordaintzetik libre utzi zuen.

"Saiatu SA" enpresak, bestalde, Zegamako Udalarari, eraikin handiaren beheko solairuan kokatuko den zerbitzu



*Zuhaitz Eguna*

sozialesako 390m2ko lokala, egitura eta lurzorua hormigoian utziko dio eta 7 zentimetroko lodierako adreiluarekin behin-behineko itxidura egingo dio.

Jakina den bezala, aipatutako 390 m2ko lokalean zentro soziala (edo hogarra), eguneko zentroa eta medikuaren kontsulta jarriko dira. Halaber, lehen solairuan etxebizitza tutelatua (55 m2ko bi etxebizitza elkartuta) egokituko da, eta bertan 6 lagunentzat lekua jarriko da. Lan honen esleipena eta exekuzioa datorren urtean egitea aurreikusten da.

Zegamako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak egingo dituzten diru-ekarpenak finantzatzeko dute aipatutako zerbitzuen egokierarako obrak.

Azkenik, aipatu behar da etxebizitzaren eraikuntza eta barne egokiera datorren udazkenean amaitzeko aurreikuspena duela "Saiatu S.A." enpresa eraikitzaileak.

**ZUHAITZ EGUNA**


Azkeneko urte hauetan egiten den antzera, aurten ere, martxoaren 7an

Zuhaitz Eguna ospatu da. Bertan, Udalak sustatutako ekimen honetan, Aitzuri Herri Eskolako umeei parte hartu zuten. Landaketarako aukeratutako eremua eskola ingurua, izan da; hain zuzen ere, Aitzuri Herri Eskola aurrean iaz landatu eta lehortu direnen ordezkoko zuhaitzak, eta eskolako gimnasio atzeko maldan lizar batzuk ere landatu dira.

**ANDUETZAKO ERAIKINEN ERABERITZE LANAK**

Zegamako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazariza eta Ingurugiro Departamentuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Anduetzako (lehenengo hospitala) etxearen eraberritze lanak hasi ditu. Hitzarmen honen ondorioz Zegamako Udalak eraberritzeko proiektu teknikoa idaztea esleitu eta finantziatu du. Bestalde, eraberritze lanen esleipena eta finantzaketa Aldundiaren gain dira.

Esan behar da, hitzarmen eta eraberritze lan honen xedea hau dela: Anduetzan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bertako mendiko guarda eta herriko seme den Manolo Artola Agirretxek egingako zuhaitzen bilduma erakusgai



*Anduetzan eraberritze lan bikainak*



*Anduetza etxea arpegia berrituta*

jartzea. Halaber, Diputazioko zerbitzu forestalak 100 urte betetzen dituela eta, aipatutako bildumari, erantsi nahi zaizkio mendi lan eta zerbitzuan erabilitako tresneri, lanabes eta interesekoak izan daitezkeen beste edozein elementu.

Kontuan izanik, Udalaren jabegokoa zen eraikinak ez duela nahi besteko azalerarik aipatutako kolezio eta tresneria bere baitan hartzeko, Zegamako Udalak ondoko Anduetza etxea, inguruko 5.411 m<sup>2</sup>ko lursailleekin batera Miguel Arostegiri erosi dizkio 26,5 milioi pezetan. Zentzu honetan azpimarratu behar da erosketa honen helburua bikoitza izan dela; hain zuzen ere, lehen aipatutakoa eta bestalde kanposantua eta inguruaren egokitzea.

## ESKUALDEKO UDALERRIENTZAKO ERABILERA ANITZEKO MAKINAREN EROSKETA

Beasain, Idiazabal, Mutilo, Partzoneria, Segura, Zaldibia, Zerain eta Zegamako Udalak adostu zuten, baserriari eta bere inguruari lotutako hainbat lan egiteko makina erostea. Makina honen kostua (matrikulazioa barne) 11.801.092 pezetakoa izan da. Kopuru honetatik Goimenek 6.792.793 pezeta jarri ditu eta gainerako 5.008.299 pezetako aportazioa Udalen eta Partzoneriaren artean egin da. Zegamako Udalaren aportazioa 564.277 pezetakoa izan da.

Bestalde, Tomás Aldasoro idiazabal-darra izan da Goimenek makina erabiltzeko kontratatatu duena; aurrez, izeneman zutenen arteko oposizio egin ondoren.

Beraz, dagoeneko makinaren zerbitzua martxan dago, eta honen adibidea izan da baserri bideetako ertzak makina honekin garbitu direla, eta ondoren, ohitura den bezala, auzolana egin dela. Halaber, aipatutako zerbitzua udalerriko edonoren esku dago, eta bere beharra duenak Udaletxera deitzea besterik ez du. Noski, eskatzen duenak ordaindu beharko du makinaren zerbitzua. Azkenik gogoratu behar da baserri bideetako garbitze lanak Udalak bere gain hartzen dituela, honenbestez, partikularren zatik doan direla.

## ZEGAMATAR BATASUN KASINOAREKIN ALOKAIURU KONTRATU BERRIA

Zegamako Udalak eta Zegamatar Batasun Kasinoak datozen 15 urteetan udal-lokalaren erabilera arautuko duen



*Turista eta bisitariari irekitako informazio gunea*

alokairu kontratua adostu dute. Aipatutako kontratuaren ardatz nagusiak ondorengoak dira:

- Kasino Elkartearen azalera handitu egingo da. Ondoa duen biltegiaren zati bat erantsiko zaio.
- Tabikeak botatzea eta berriak eraikitzeko lanak Udalak ordainduko ditu. Beste egokiera lan guztiak Kasinoak ordainduko ditu.
- Alokairu epea 15 urterako finkatzen da, nahiz eta sinatutako kontratua bertan behera geldituko den, eraikuntzan obra sakonagoak (birgaitzekoak, soinugabetea barne) egindakoan. Honenbestez, une honetan beste kontratu bat adostuko da.
- Hileroko errenta 15.000 pezetan finkatu da. 1980. urtetik gaur arte 1.000 pezeta ordaintzen zen hilean. Errenta hori urtero berrikusiko da KPI (I.P.C.)aren arabera.

Honenbestez, Ostatuko birgaitze lanen barnean, Kasinokoa ere badagoela kontuan izanik, alokairu kontratua berraztertuko egingo da.

## AUZOLANDEGIAK ZEGAMAN

Aurtengoan ere, Estatuko puntu ezberdinetako gazteak bertaratu dira Zegamara Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteri Zuzendaritzak antolatutako auzolandegietan parte hartzeko. Esan behar da aipatutako programan Gipuzkoako lau udalerrik parte hartu dutela (Eibar, Mutriku eta Elgoibar), eta hauen artean Zegama egon dela.

lax Anduetzako eraberritze lana izan

bazen bertaratutakoen zeregina, aurtan Olaberriko kanalaren garbiketa izan da. Zentzu honetan esan behar da, kanala bere osotasunean garbitzeko behar den adina denbora izan ez bazuten ere, lana asko aurreratu zutela, eta Udalak urrian lanei amaiera eman diela. Beraz, egitasmo honetan parte diren alde guztientzat egitasmo emankorra eta esperientzia polita izan dela azpimarra daiteke.

## ZEGAMA, TURISTEI ATEAK IREKITA

Aste Santuan, lehen aldiz, bisitariari elementu turistikoaren bisita gidatua egin ahal izateko, Udaletxeko sarrerako atarian informazio gune egonkorra jarri zen. Esperientzia aberatsa izan zen, eta esan behar da aurreikusitakoa baino bisitari gehiagori eman zitzaizkion informazioa.

Garbi dago zegamarrok turismoari irekita egon behar dugula, landu behar den altxorra delako eta noski ondasun-baliabideak eta baliabide natural paregabeak ditugulako. Beraz, adi eta "ateak" ireki bisitariari, zegamarrantzat giza-harreman aberatsak eta diru-iturri garrantzitsuak sor daitezkeelako.

## IRISGARRITASUN PLANA IDAZTEKO ESLEIPENA

Udal Gobernu Batzordeak 2001eko apirilaren 23an erabaki zuen Zegamako Irisgarritasun Plana idazteko esleipena "Adir" enpresa adituari 1.131.000 pezetan (BEZa barne) egitea. Halaber, erabaki zen aipatutako plana idatzi eta hobekuntza obrak burutzeko dirulaguntza eskaera Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizita eta Ingurugiro Sailari

egitea. Zentzu honetan oraindik ere Jauriaritzaren ebazpena jakinarazi ez badute ere, aipatutako kopuruaren %80 finantzatuko dutela azaldu dute telefonoz.

**GOIMENEK DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK**

Zegamako Udalak onartutako proiektuen artean hiru diruz laguntzea erabaki zuen Goimenek

	Aurrekontua	%	Dirulaguntza
Dirinti baserri multzoaren ur hornidura lruetxeta auzoko ur hornidura Iturburu-Barrena baserrira ur hornidura	697.000	45	313.650
	430.000	45	193.500
	937.000	45	421.650

**KONTRIBUZIOAN ALDAKETAK**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2001eko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (KONTRIBUZIOA) maitatzaren 15 eta uztailearen 2aren artean kobratu du. Kontuan hartu behar da orain arte irailaren 1etik azaroaren 10era bitartean kobratu izan dela.

Bestalde, 2002. urtean balio katastral berriak ezarriko dira Gipuzkoa udalerrira guztietan. Berrikuspenaren helburua da balio katrastala gaur egungo merkatuak ezartzen dituen balioetara hurbiltzea.

Balio katastrala kontribuzioa ordaintzeko oinarria da; Udalak balio katalastalaren arabera kontribuzioa kobratzen du, betiere, ondasun higiezinak Haziendak baloratu ostean. Udalaren ardura kontribuzioa kobratzeko tipoak ezartzea da. Hain zuzen

ere, 2001. urtean Udalak ezarritako tipoa %0'52 bazen ere, 2002. urterako %0,185en finkatu da. Honela tipoa jaitsierak parekatu egin du balio katalastalaren igoera. Edozein kasutan garbi utzi behar da Udalak konzeptu honetan jasoko duen diru-sarrera ez dela aldatuko.

	Udalerrira osoko balio katalastala	Tipoa	Udalak kobratutakoa
2001. urtea	2.575.029.728	%0,52	10.364.328
2002. urtea	5.875.260.933	%0,185	10.388.489

Honenbestez, koadroan ikusten den moduan, tipoa jaistearrekin oreka bilatu nahi izan du Udalak, herritarren ahalik eta aldaketa gutxiena eragiteko, eta nolabait ondasun balioen handitzeak herritarrentzat ekarri lezakeen kontribuzio igoera ekidin tipoa jaitsierarekin.

**"EURO" TXANPONAREN KANPAINA INFORMATIBOA**

2002ko urtarrilaren hasieratik aurrera gure arteko diru-harremanak "euro" txanponarekin egingo direla eta, Zegamako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jauriaritzaren laguntzarekin apirilaren 2tik 8ra (biak barne), kanpaina informatiboa eta jardunaldi bereziak martxan jarri zituen. Horren artean azpimarratu behar dira herriko elkarte, jubilatuek, enpresa eta autonomoekin egindako bilerak, Aitxuri Herri Eskolako irakasleen laguntzarekin, ikasleekin antolatutako jardunaldi berezia eta apirilaren 8an, igandean, egindako azoka berezia.

Aste horretan, udalerrira edonork denda nahiz tabernetan beren operazio ekonomikoak eurotan egin ahal izan zituen, ohiko pezetak albo batera utzita. Zentzu honetan, azpimarratu behar da kanpaina izandako herritarren parte-hartze handia, eta modu berezian atarian dugun euroaren erabilerrari beldurra kentzeko balio izan zuela nagusiki. Halaber, euroaren ezagutza errazteko

eta pezetarekiko duen erlazioa modu egokian eta berehalakoan jakiteko Udaletxetik udalerrira etxe guztietara dohainik kalkuladora bana igorri zen.

Bestalde, gogoratu behar da kanpaina hori aurrera eramateko Udalak

duen langileen egituraz gain Garbiñe Saizar kontratatu zuela otsailaren 15etik apirilaren 30era.

Azkenik aipatu behar da Zegamako Udalak, kanpaina horren antolamendurako Eusko Jauriaritzatik 792.000 pezetako dirulaguntza lortu zuela.



*Apirilaren 8ko azoka, udaletxeko arkupeetan*

## SAN MARTIN FERIAREN EGUNA FINKATZEKO HITZARMENA

San Martín Feriaren eguna finkatzeko eta ondoko herrietan sasoi modu honetan ospatzen diren beste ekintzekin bat ez etortzeko, Beasaingo Odolki Kofradiarekin eta Ordiziako Udalarekin hitzarmena adostu du Zegamako Udalak. Hala nola, datozen 10 urteetarako hiru herri hauetan beren ospakizunen datak finkatu dira, ondoren azaltzen den koadroaren arabera:

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Zegamako Udala	17	9	15	13	12	11	10	15	14	13
Beasaingo Mon-dejuaren Kofradia	10	2	8	6	5	4	3	8	7	6
Ordiziko Udala	24	16	22	20	19	18	17	22	21	20

Beraz, hitzarmen honekin lortzen da udalerrri bakoitzak antolatzen duen ekitaldiak ondoko udalerrri hauetan antolatzen direnekin bat ez etortzea eta beraz elkarri oztopo ez egitea.

## OSTATUKO ERABERRITZE LANAK

Irailaren 2a arte Ostatuko ustiatzailea izan den Maite Albisuk udal-emakida amaitu bezain agudo, Ostatuko eraberritze lanei ekin zaie. Obraren exekuzioa zatikatuta egitea erabaki da, eta honenbestez, deialdi publikoa eginik, beheko solairuko eraberritze lanak "Construcciones Lopetegi Anaiak S.L." enpresari esleitu zaizkio 19.462.862 pezetan (BEZa barne). Lehen fase honetan beheko solairua soinugabetu edo insonorizatu, Kasinoa handitu, eta orokorrean, behe solairua bere osotasunean berritu egingo da. Halaber, klimatizazioa eta sukaldea ere berriak jarriko dira (nahiz eta hauek aipatutako adjudikazio eta kopuruan sartu gabe egon).

Bestalde, lehen eta bigarren solairuan eraberritze lanak datorren urtean burutuko dira, eta lehen faseari amaiera eman bezain agudo hasteko asmoa dago; kontuan izanik, dagoeneko fase honetako proiektu tekniko ere idatzita dagoela.

Eraberritze lan osoaren kostua zehatz-mehatz aurreikustea erraza ez bada ere (obrako lanez gain, mobiliario erosketak kontuan hartu behar direlako), 85-90 milio pezeta inguruan ibil daiteke. Finantzaketa Eusko Jauriaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskutik (Erein programatik) etorriko da 28.528.478 pezetan eta baita Eusko Jauriaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailatik (Izartu programatik) kostuaren %50 ere. Beraz, herriko Ostatu etxearen goitik beherako eraberritze

lanak Udalaren ekarpen txikiarekin egingo direla aurreratu daiteke.

Gogoratu behar da, Ostatuko lehen eta bigarren solairuan 14 logela eraikiko direla.

Azkenik, aipatu behar da, lehen fase honetako obren amaiera martxo bukararako aurreikusita dagoela, eta ordurako Udalak emakida administratiboaren deialdi publikoa egina eta adjudikatuta izango duela.



Ostatua obretan

## UDALERRIKO SANEAMENDU INTEGRALA EGIN ETA ARAZTEGIA ERAIKI

Oria ibaiaren eta Olanaren errekaen uholdeen defentsarako lanen barnean burutu berriak dira hiriguneko saneamenduko lanak. Honenbestez, hirigunear sortutako ur zikinak Oria ibaiertzetik doan kolektorerara bidali eta Urgamintaraino joaten dira. Puntu honetan berriro ur zikin guztiak Oria ibaira joaten direla ikusirik, eta udalerriko saneamendu lanak araztegi edo ur zikinen depuragailua eraiki arte ez direla amaituko ahaztu gabe, Zegamako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuarekin, Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin eta SPRIrekin elkarrizketak izan ditu. Udalaren asmoa izan da Kaleko auzoa, Barrenaldea eta eraikitzen ari den industrialdeko ur zikinak kolektore orokorrean jasotzea eta egingo den araztegi edo ur zikinen depuragailuraino iristea edo ailegatzea. Horrela gauzak, Zegamako Udalak aipatutako Erakunde eta Elkarteekin lehen akordioa adostu du, udalerrri guztian saneamendua amaitzeko. Zentzu honetan, Zegamako Udalak saneamendu eta araztegi lanen proiektu teknikoak adjudikatu du ("Sestra S.A. Injineritzari"), eta ordainketa bere gain hartuko du. Saneamendu lanen exekuzioa, bestalde, hiru zatitan banatzen da: 1) Sare orokorra, eta bere finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ur Kontsultazioak ordainduko dute; 2) Bigarren mailako sarea Zegamako Udalak ordainduko duena; 3) Sare partikularra, etxe bakoitzetik bigarren mailako sarera joango dena, eta printzipioz etxejabeek ordaindu beharrekoa.

Aipatutako instalazioak Potentene eta Opaintegi baserrien artean eraikiko den depuragailu edo araztegiaren amaituko dira. Araztegiaren exekuzio eta finantzaketa Eusko Jauriaritzako SPRIren eskutik joango da.

Egitasmo garrantzitsu honen nondik-norakoak azaltzeko eta eragina duten lursail eta ondasun jabeen jakinarazteko Udalak hiru bilera informatibo izan ditu beraiekin.

Azkenik, adierazi sare orokorreko proiektu tekniko amaitzen ari dela, eta 2002ko otsailerako bigarren mailako sarea eta sare partikularrak jasoko dituen proiektu tekniko egina egongo dela. Zentzu honetan azpimarratu behar da obren exekuzioaren hasiera eta amaiera finkatu gabe badaude ere, datorren urtean (2002an) hasi eta amaitzea espero dela.

## IDIAZABAL, MUTILO, SEGURA, ZERAIN ETA ZEGAMAKO UDALERRIEN ARTEKO HAUSNARKETA BATERATUA

Idiazabal, Mutilo, Segura, Zerain eta Zegamaren gai komunei buruzko hausnarketa lan bateratua (Aizkorpe deiturikoa) egiten ari dira "LKS" enpresa aholkulariaren gidaritzapean. Arlo ezberdinak aztertu eta jorratu ondoren, eta bere baitan oso eremu zabalak ukitzen direla kontuan izanik, gai bat lantzea erabaki zen. Gaia aukeratzeko arrazoak kontuan hartzea erabaki zuten. Gai hori aukeratzeko arrazoak nagusia izan zen kontuan hartzea Partzuergoaren egitura eta eremu osoa sendotzeko dagoen Parke naturalaren barnean kokatzen dela, eta aitortza honek Partzuergoaren egitura eta sei mende luzetan izan duen eskumen ahal-

menean sor ditzakeen ezbaiak eta zalantzak argitzea. Azken batean, datorenaren aurrean informazio zuzena, zehatza eta etorkizunari begira hartu behar diren erabakiak egokiak izan daitezkeen argitasuna eskainiko duena.

Gogoratu behar da, aipatutako lanaren kostu gehiena Gipuzkoako Foru Aldundiak eman duen dirulaguntzari esker finantzatu dela.

## ZEGAMAKO OHITURA ETA BIZIMODUAK BIDEOAN

Udal Gobernu Batzordeak ekainaren 11n egindako bileran erabaki zuen Zegamako ohitura eta bizimoduak bideo batean jasotzea, eta lan hau "Fotoetxe"-ri 1.197.120 pezetan (BEZa barne) esleitzea. Bideo honetan, besteak beste, Arantzazuko erromesaldia, Aizkorriko

Lagunen Eguna, Jubilatuen eguna, San Adrian eta Aizkorriko mezak, etabar jasoko dira. Jakina den moduan, dagoeneko bideo lanak hasiak dira, eta datorren urtean amaituko dira. Bestalde, bideoa jarraian editatuko da, eta nahi duenak erosteko aukera izango du.

## ARGINDAR PUBLIKO AURREZTEKO INBERTSIOAK

Argindar publiko aurrezteko iaz hasitako inbertsioekin jarraituz, aurtengoan ere argiteria aldatzeko (merkuriozko laminaren ordezkioak jartzeko) 1.747.610 pezetako inbertsioa egitea erabaki da. Inbertsio honi aurre egiteko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu bazaio ere, oraindik erantzunik ez du eman.

Bestalde, Kultur-Etxean, Polikirolde-

# ZEGAMA ETA GOIERRIKO BIZTANLEGOAREN BILAKAERA EZKORRA

Gure ohiturak, kulturak, azken batean bizimoduak eraginda edo auskalo zenbat arrazoi gehiago medio, gure herria eta Goierriko biztanleriari dagokionez, gainbehera nabarmenean doa. Garbi dago hazkunde begetati-boa negatiboa dela; adibidez, Zegaman 1999. urtean 2 ume jaio eta 18 herritar hil ziren; 2000. urtean 10 ume jaio eta 21 herritar hil zen. Jakina da, arazo hau ez dela bakarrik Zegamari dagokiona, baina hori hala bada ere, herri txikien, eta tartean, Zegamako herriaren etorkizunari ezin diezaiokegu bizkar eman. Guztion (erakunde publiko, herriko elkarte eta norberaren) zeregina da Zegamaren gainberari eustea. Nola? Ez da erraza, baina puntu batzuk kontuan hartu behar ditugu; hala nola, herriko dendetan erosketak egitea, udalerrian bizi garenok Zegaman erroldatuta egotea (Udalak Diputaziotik jasotzen duen dirua horren arabera delako), kanpotarrekin (etorkinekin), turistekin begirune berezia izatea, eta udalerrian integrazten laguntzea, herri maitea izatea, gure gazteentzat etxebizitzak prezio onean eraikitzea, ingurumenarekin begirune eta ardura handiagoko izatea, gure herriak dituen aldeotasunak eta erakargarritasunak ahoz aho zabaltzea, eta abar. Herri txikien etorkizuna, geroz eta zailagoa da, horregatik guztion parte hartze zuzena, kementsua eta eraginkorra eskatzen du, gure esku baitago Zegamari goian eustea.

EUSTAT	BEREZKO BIZTANLERIA					
	1981	1986	1991	1995	1996	2000
ALTZAGA			94	92	95	98
ARAMA	176	160	143	152	158	167
ATAUN	1.965	1.841	1.739	1.635	1.588	1.558
BEASAIN	12.111	12.408	12.322	12.412	12.239	12.134
GABIRIA	492	463	432	433	428	430
GAINTZA	124	126	123	134	136	133
IDIAZABAL	2.078	2.075	2.057	2.047	2.020	2.038
ITSASONDO	885	783	640	624	628	588
LAZKAO	5.185	5.250	5.037	4.978	4.898	4.876
LEGORRETA	1.723	1.610	1.522	1.447	1.420	1.399
MUTILOA	233	196	184	179	168	165
OLABERRIA	1.422	1.267	1.123	1.051	1.010	923
ORDIZIA	9.724	9.448	9.325	9.325	9.115	9.089
ORMAIZTEGI	1.308	1.292	1.235	1.212	1.182	1.159
SEGURA	1.428	1.391	1.297	1.290	1.261	1.247
ZALDIBIA	1.801	1.705	1.582	1.571	1.572	1.525
ZEGAMA	1.542	1.464	1.399	1.400	1.348	1.276
ZERAIN	241	233	227	229	233	246

gian eta Aitxuri Herri Eskolan argi kontsumoarengatik ordaintzen dena murrizteko "Kraft and Kast S.L." enpresarekin hitzarmena sinatu da. Aipatutako enpresak bermatzen du hiru eraikinen artean urtean 190.000 pezeta aurrezteko dela.

### ARAKAMA-AZPIKO ERROTAKO JABEAREKIN HITZARMENA

Herrian turismoa bultzatzeko ahaleginetan eta herriko kultur ondarea berreskuratzeko lanetan, Udalak Arakama-Azpiko errota-erakinaren eraberritze lanak egin eta errotaren inguruak txukuntzeko helburua izanik, beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanekin hasi zen.

Honenbestez, Arakama-Azpiko errota-ko jabea den Luis Aldasoro eta Zegamako Udalaren artean 2001eko urriaren 10ean hitzarmena sinatu da. Hitzarmen honen puntu garrantzitsuenak hurrengoak dira:

a) Arakama-Azpiko errota eraberritu egingo da. Honen finantzaketa zati handi batean publikoa izango da, eta finantzaketa hau lortzeko gestioen ardura Udalarena izango da.

b) Aipatutako eraberritze lanen ondorioz, errota berezi honen inguruan, interes handia izango duen puntu turistikoa sortuko da. Zentzu honetan, Luis Aldasororen betebeharra da datozen 10 urteetan eta 2015. urtean (Zegamak 400 urte betetzen ditu udalari



*Arakama Azpikoa baserriko errota*

burujabe moduan) errota erakusgai edukitzea, eta bere mantenu, zaintza eta gastu guztiak bere gain hartzea. Honenbestez, Udalak eskumena izango du bisitariei kobratzeko, kanona finkatzeko. Diru hau, Luis Aldasororentzat izango litzateke.

c) Udalak sortu edo egiten dituen agiri turistikoa edo bestelakoetan Arakama-Azpiko errotaren difusioa eman ahal izango du.

Aipatutako hitzarmena onartu ondoren eta Udalak prozedura legala jarraiturik Arakama-Azpiko errota-ko egitura lanak Fernando Urbizuri esleitu dizkio, 3.740.907 pezetan (BEZa barne) eta errota-ko turbina konpontzeko lanen

adjudikazioa "VOITH HYDRO Tolosa S.L." enpresari 2.957.843 pezetan (BEZa barne). Dagoeneko lanak amaituta daude. Bestalde, errota inguru txukuntzeko lana (todounoa eta asfalto botatzea) Bixente Otegi Lizasori adjudikatu zion Udalak 1.531.931 pezetan (BEZa barne).

Udalak egindako gestioen ondorioz aipatutako inbertsioak ia-ia bere osotasunean finantzatzeko dirulaguntzak lortu ditu Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik, besteak beste. Bestalde, azpimarratu behar da eraberritze lan honen barnean errota jabea den Luis Aldasorok eta bere sendiak egindako hainbat lan eta egingo duen diru-

## GERNIKAKO ARBOLAREN BIRLANDAKETA



Oria eta Olarango uholdeen defentsarako lanak direla eta Gernikako arbolak Zegaman zuen oinordekoa lekuz aldatu behar izan da. Lan horiek eraginda, zuhaitza kokatzen zen eremua, Olaran erreka agerian utzi da, eta Gernikako arbolaren oinordekoa Kultur Etxeko parkean birlanatu da, eta dagoeneko osasuntsu dagoela esan daiteke, lehen pujaldia emana baitu.





ekarpena (oraindik finkatu gabe). Beraz, ekimen publikoaren inbertsioari eta errota jabearen interesari esker, Zegamarako beste elementu turistikoa bat sortu da.

### **HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO (IZARTU) PROGRAMATIK 250 MILIOI PEZETAKO DIRULAGUNTZA**

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak 2000ko azaroaren 28an, hiri eta herriak biziberritzeko dirulaguntzen programa onartu zuen ("Izartu" deitutakoa). Zegamako Udalak aipatutako ebazpenak xedatutako epeetan dirulaguntza eskaera egin, eta burututako gestioen ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak 2001eko ekainaren 13an emandako ebazpenean Zegamako Udalari 250.195.166 pezetatako dirulaguntza eman dio, 2001 eta 2005 urteen artean hainbat lan egin eta egun egiten ari direnak finantzatzeko.

Aipatutako finantzaketak gastu osoaren %50 Jaurlaritzak ordaintzea ekarriko du. Honenbestez, 2001 eta 2005 urteen artean, besteak beste, Zegamako udalerrian 500.390.332 pezeta inbertituko dira. Diru horrekin egun burutzen ari diren industrialdea, Olarango etxe berrietako zerbitzu sozialetako egitasmoa, argindarra aurrezteko inbertsioak, eta abar finantzatu dira. Halaber, hasteko dauden hainbat urbanizazio lan eta Ostatuaren eraberritzea ere, dirulaguntza hauekin finantzatu dira.

Beraz, datozen urteetarako dirulaguntza garrantzitsuak datozkigu, eta aurreko paragrafoan aipatutako lanak burutzeko balioko dute.

Esan behar da, Jaurlaritzak emandako dirulaguntza, Zegamako Udalak beste Erakunde edo Elkarteetatik lor ditzaken dirulaguntzen osagarria dela.

### **KONTXA GOROSPEK ZEGAMAKO HERRIARI KOADROAREN ZESIOA**

Kontxa Gorospek Aizkorri eta bere inguruari buruz egindako kuadroa Zegamako herriari dohainik utzi dio. Aipatutako koadroa Osoko Bilkura aretoan jartzea erabaki zuen Udalak. Eskerrik asko Kontxa.

## **OLIO BILKETA**



Sasieta Mankomunitatea Goierriko hiru herri handienetan, (Beasain, Lazkao eta Ordizian) eta zentro komertzialetan, (Carrefour eta Eroskin), etxean erabilitako olio zaharra biltzen hasi zela eta, Zegamako Udalak herrian bertan bilketa hau burutzea ere gure ingurumenaren zainketa-rako garrantzitsua dela ikusirik, Zegamara ere etor zitezten eskaera luzatu zion Sasieta Mankomunitateari; ondorioz, azaroa ezker, hilabeteko azken ostegunetan olio zaharra Zegamako plazan jartzen den ontzira botatzeko aukera dugu.

## **BUZTINKALE ETA ASEGINOLAZA KALEETAKO URBANIZAZIOA**

Urteko azkeneko hiru hilabetean Buztinkale eta Aseginolaza kaleetako urbanizazioa burutzen ari da. Lan honen bidez udalerrian orain denbora gutxi egin diren bi urbanizazio berrien eremuak elkartuko dira; hala nola, Santa Barbara kalea eta Aseginolaza kalean (Zine ondoan) egindako hirigintza-eremu berriak. Honesbestez, urte-eraginez kaltetuta zegoen urbanizazioa berritzen ari da. Lanak, "Ezkerra Etxegintza S.L." enpresari adjudikatu zitzaizkion, eta obra osoaren kostua

oraindik behin betikoa ez bada ere, 26 milioi pezeta ingurukoa izango da. Azpimarratu behar da Kutxak obren exekuzioarako 2.464.231 pezetako aportazioa egin duela; kontuan izanik, obra hauen bidez ezinduei sukurtsalera irisgarritasuna bermatzen zaiela.

Azkenik, gogoratu behar da obren exekuzio aurretik Aseginolaza 1 eta 2ko bizilagunek, artean pribatuak ziren etxe-inguruko lursailak, jabari publikoari, Udaletxeari utzi dizkiotela.






Jon Iturrarte lanean

## EUSKARAREN ERABILERA KO NORMALIZAZIO PLANA EGITEKO KONTRATAZIOA

Euskararen Erabilera ko Normalizazio Plana egiteko Izaskun Osinalde mutrikuarraren kontratazioa egin da. Langilearen kontratazioa Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAPEko zerrendatik eta hauek onartutako irizpideen arabera egin da. Kontratua irailaren 1etik abenduaren 31 arte luzatzen da. Epe honen barnean, Udaleko barne funtzionamendua eta Udalak herritarrekin dituen harremanen hizkuntza aztertu eta euskararen erabilera hedatzea nahi da. Halaber, kontratatutako langileak udalerriko Elkarte eta merkatariekin bilerak izan ditu euskaraz funtzionatzeko behar den laguntza eta baliabideak emateko. Hala nola, Elkarteko deialdiak eta ordainketa orriak, merkatarien iragarki, faktura eta



Ehungintza tailerreko tapiz bat

oharrak euskaraz bideratzeko. Azkenik azpimarratu behar da lehen aipatu bezala langile honen betebeharra dela, udal ordezkarien euskara erabilera maila aztertzea eta euskara sendotzeko eta bultzatzeko eman behar diren urratsak eta irizpideak finkatzea ere.

## ESKUALDEKO EMAKUME LANGABETUEI ZUZENDUTAKO OIHAL TAILERRA MARTXAN

Goierrri eskualdean langabezian dauden emakumeak lan-merkatuan integratzeko, Goiekik eta Zegamako Udalak burutu dituzten gestioen ondorioz, Zegaman oihal tailerra martxan jartzeko 39.040.704 pezetako dirulaguntza eman dio INEMek Zegamako Udalari. Tailerra abenduan jarri da martxan eta frontoiko bigarren solairuko lokaletan burutzen da. Honen helburua, ikastaroan parte hartzen ari diren 16 emakumeei heziketa ematea eta ikasgai teorikoak praktikan jartzea. Honen ondorioz, bertan dabilzan emakumeek soldata jasoko dute, eta interesa azaltzen dutenen artean ekonomia sozialeko enpresa (kooperatiba) sortzea da ikastaro-tailer honen helburua.

Azpimarratu behar da oihal tailer honen lehen urratsa orain dela bi urte abian jarri zen Marixular tailerra izan zela, eta beraz hasterako ibilbidetxoak egina duela.

## 2002KO OTSAILAREN 17AN ZEGAMAN ERLEZAINEN EGUNA

Gipuzkoako Erlezainen Elkartearekin izandako elkarrizketen ondoren, datorren otsailaren 17an antolatuko da Zegaman Erlezainen eguna. Halaber, egun honi itsatsita Gipuzkoako ezti lehiaketa edo txapelketa ospatuko da. Egitaraua guztiz finkatu gabe badago ere, agudo izango duzue eskuartean, eta guztion asmoa eta nahia da egun arrakastatsua izatea; bai erlezaintzat eta baita Zegama eta zegamarrontzat ere. Goraipatu behar da antolakuntza lanetan Manex Aranburuk (Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko kidea, Udalean Goimenen bidez ibilitako langileak) egindako lan bikaina.

## UDAL KIROLDEGIAN PILOTA ESKOLA MARTXAN

Iaztik hasita pilota eskolan Zegamako hainbat mutiko dabiltz Eñaut Telleria irakasleekin. Horrez gain frontenis txapelketa eta futbito txapelketa ere anto-

latu dira kiroldegia erabilera sakona emanaz.

## TRIKUHARRIAK

Gipuzkoako Foru Aldudiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak, 2001eko otsailaren 5ean emandako ebazpenaren bidez, Lurralde Historikoan kokatutako Estazio Megalitikoak Monumentu Multzoz izendapenez, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman zion. Zegaman ere badira multzo horretan sartzen diren hiru kultura ondasun, eta ondorioz, Arantzadi Zientzia Elkartearen Laguntzarekin, trikuharri bana ipini zaie ondoan :

a) BIDAARTEKO Ilko TUMULUA.  
(Saadar mendian)

Neolitikoko-brontze garaikoa da. 1952an J. Elosegik aurkitu zuen. Kontrolrik gabeko araketaren bat jasan badu ere, oraindik eskabatu gabe.

b) TARTALOETXEKO DOLMENA.  
(Saadar mendian)

Neolitikoko-brontze garaikoa. 1917an J.M. Barandiaran aurkitua. 1920an T. Aranzadi, J.M. Barandiaranek eta E. Egurennek eskabatu zuten. Bertan aurkitutakok Arantzadi Zientzia Elkarteko Historiaurre Sailean daude jasota.

c) TRIKAMUÑOTAKO DOLMENA.  
(Saadar mendian)

Neolitikoko-brontze garaikoa. 1917an J.M. Barandiaranek aurkitu zuen. 1920an



Trikuharria



Olaran auzoko eraikin berriak



Beruntza Txikiko etxeak

exkabatu zuten T. Aranzadi, J.M. Barandiaran eta E. Eguren. Bertan aurkitutakok Arantzadi Zientzia Elkarteko Historiaurre Sailean daude jasota.

### **ERAIKIN BERRIAK**

Urtean zehar hainbat eraikin eta inguruko urbanizazio amaitu dira; hain zuzen ere, Ugarteburu (Olaberrian) José Azurmendik egindako hiru bizitzako etxea eta "Ugarteburu C.B." k egindako bizitza bakarreko 8 etxe adosatatuak. Halaber, Beuntze-Txikin ere bizitza bakarreko 14 etxe eta 4 bizitzako etxe-blokea amaitu dira. Azkenik, Aseginolaza Anaien etorbidean Emilio Txurrukak famili bakarreko etxebizitza eraiki du.

### **ETXEBIZITZA BABESTUEN EROSKETA**

Zegamako Udalak, Olango babes ofizialeko etxebizitzaren promozioan, bi etxebizitza ( bakoitza 55 m<sup>2</sup>ko azalera-koa) erosi ditu. Erosketa honen bidez bi etxebizitza babestu martxan jarriko dira Zegaman.

### **BASERRI BIDEEN KONPONKETAK**

San Bartolome auzotik Ormazabal baserrietara doan bidea konpondu eta zolatu da. Aipatutako lanak "Teide S.A." enpresak egin ditu. Udalak adjudikatu ondoren. Halaber, Eguzkitza Zaharra baserrira doan bidea indartzeko eskolera egin da.

Azpimarratu behar da aipatutako lanak aportazio publiko eta pribatuari esker egin direla.

### **ZEGAMAKO UDALA ETA GIPUZKOA-KO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA**

Joakin Villa, Presidentziako Foru Diputatuak eta Juan Inazio Galdos, Zegamako alkateak, 2001eko urriaren 17an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Zegamako Udaletxean. Hitzarmen horren bidez, herritarrek bi administrazio hauetako edozein agiri erregistrotara zuzendutako eskari, idatzi eta jakinerazpenak aurkezteko modua izango dute.

Hitzarmen honen hurrengo garapenak Aldundira zuzendutako idazkiak Udaletxeko Erregistroan aurkezteko aukera emango die Zegamako herritarrei, epeak betetzerakoan erabateko balioaz eta Donostiaraino joan beharrik gabe. Era berean, Udaletxera zuzendu-

tako jakinerazpena Foru Erakundearen Erregistro Zentralean edo saileko edozein erregistroan aurkezteko aukera izango da. Edozein motatako agiriak onartuko dira, kontratazioekin erlazionatutakoak izan ezik.

Zegamak Aldundiarekin modu honetako hitzarmena sinatzearen helburua honako hau da: administrazio publikoak herritarrengana hurbiltzea eta erakundearen arteko harremanak arintzea izapideak egiteko errazteko.

Lankidetzaren eredu honek aurrera pausu handia ekarriko du komunikaziorako bide bat gehitzen baitu. Sistemaren eraginkortasuna bermatze aldera, hitzarmena sinatu duten bi administrazioak aurkezten dizkieten agiriak lehenbailehen eta modu egokien bidaltzeko konpromisoa hartu dute.



Joakin Villa Presidentziako Foru Diputatuak hitzarmena sinatzen

## IKASTAROAK

### A.- ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA

Aurten ere, iazko arrakasta kontuan harturik, Erretzeari Uzteko Terapija Programa antolatuta da. Ikastaroa martxoaren 6tik apirilaren 10era bitartean burutu da eta zortzi lagunek parte hartu zuten, talde bat osatzen zutelarik. Zortzi lagun horietatik seik burutu zuten ikastaro osoa, hiru gizon eta hiru emakume eta guztiek lortu zuten ikastaroaren bukaerarako beren helburua, hau da, erretzeari uztea.

Hala ere, erretzeari uzteak duen zailtasuna kontuan izanik, ikastaro honetan parte hartu duten guztiei beren helburuan irimo mantentzea gustatuko litzaieke.

Hona hemen, aurtengo taldearen emaitzen berri:

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretzeari utzi	3	3	6
Erretzen jarraitu	0	0	0
Kurtsoa utzi	1	0	1
Guztira	4	3	7

### B.- ETXEZ ETXEO LAGUNTZAILEENTZAT IKASTAROA

Etxez etxeko lanetan ari diren pertsonak edo etxean adinekoekin bizi direnen sentsibilizazioa ikusirik eta formazioa ematearen

garrantzia kontutan harturik, iazko urtean 20 orduko ikastaroa antolatu zen "Geriatría eta Gerontologiko Prestakuntza" ardatz zuelarik. Ikastaro hau oso aberasgarria izan zen. Hori dela eta, ikastaroan parte hartu zutenek jarraipena eskatu zuten aurtengo urterako .

Beraz, aurten ere, "Adinekoekin laguntza erlazioa eta komunikazioa" gaitzat harturik, 10 orduko ikastaroa antolatu da.

Arrakasta iazkoaren parekoa izan du. Iazko parte hartzaileak eta gainera inkorporazio berriak ere izan dira.

Hurrengo kurtsuan ere ikastaro horri jarraipena emateko ahalegina egingo da.

Ikastaro hau ere Amagoia Muruamendiarrak, geriatrian espezializaturik dagoen medikuak eman du.

### C.- JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETAKO IKASTAROA

Ikastaro hau ikasturtean zehar ematen da, urritik hasi eta uztaile arte, astean bi egunetan eta egunean ordu beteko saioa izaten da.

Irakaslea ordiziarra da, Joakin Elkoro. Esan behar da, ikastaro honen arrakasta handia dela, 12-17 bat lagunek parte hartzen baitute eta kopuru hori urtero mantentzen da.

### D.- YOGA IKASTAROA

Yoga ikastaroa, urrian hasi eta abendura arte eman da, hiru hilabete, hain zuzen ere. Jendearen izen ematearen arabera, ikastaro

arrakastatsua benetan, guztira 49 pertsonen izena eman baitute.

Lau talde sortu dira, astean bi egunetan bildu dira eta saio bakoitzak ordu eta erdi irauten du.

Herrian nabarmen antzemango dugu ikastaro honen fruitua, lasaitasunaren giltza pertsona askok hartuko baitute.

## HITZALDIAK

### A.- OSASUNARI BURUZKO HITZALDIAK: PREBENTZIOA DUTE HELBURUTZAT

• **Otsailaren 12an:** "Minbiziaren prebentzioa".

Hizlariak, Minbiziaren Aurkako Elkarteko: Estitxu Fernandez (Psikologoa) eta Josune Alkain (Gizarte Langilea).

• **Maiatzaren 7an:** "Orekatu jaten ikasi"

Janariak zein maiztasunekin ibili behar diren, ondorengo taulan agertzen dira:

Janariak	Kantitatea	Maiztasuna
Esnea	1/ 2-1 litro	Egunero
Gazta	30-50 gr	2/ astean
Haragia	150 gr	3/ astean
Gibela	100 gr	1/ astean
ArraNa	150 gr	4/ astean
Arrautza	aldiko bat	3/ 4 astean
Patata	100 gr	Egunero
Lekaleak	70 gr	2/ astean
Berdura	200 gr	4/ 5 astean
Entsalada	50 gr	Egunero
Fruta	3 pieza	Egunero
Arroza	70 gr	Astean behin
Pasta	70 gr	Astean behin
Ogia	75 gr	Egunero

Hizlaria: **Ane Miren Ugalde nutrizioan aditua.**

Kutxaren laguntzaz.

• **Irailaren 26an:** "Diabetesarekin bizitzeko ikasi"

Hizlaria: **Karmele Benito del Valle medikua.**

Kutxaren laguntzaz.

• **Abenduaren 12an:** "Hipertentsioa"

Hizlaria: **Karmele Benito del Valle medikua.**

Kutxaren laguntzaz.



San Pedro Ermitan hainbat jubilatuta

## B.- HIRUGARREN MUNDUARI BURUZ-KO HITZALDIAK:

• **Azaroaren 20an:** "Congoko egoerari buruzkoa eta EGOAIZIA, Idiazabalgo Gobernuz Kanpoko Erakundaren proiektuaren azalpena".

Hizlaria: **Alejandro Aldanondo Jesuita idiazabaldarra.**

## ELKARTE SOZIALEN ARTEAN DIRU BANAKETA:

Elkarte sozial ezberdinen artean 2000. urteko aurrekontutik 1.200.000 pezeta banatu ziren; besteak beste, ondorengoak:

### • Gobernuz Kanpoko Erakundeak:

1. EGOAIZIA (Idiazabal).....300.000 pzta
  2. LA CORPORACION GKE...200.000 pzta
  3. MANOS UNIDAS.....50.000 pzta
  4. HONEZ .....50.000 pzta
- GUZTIRA 600.000 pzta

### • Elkarteei laguntzak:

Zegamako Udalak urtero, beharreen daudenen alde ari diren Elkarteei lagundu asmoz, dirulaguntza ezberdinak ematen dizkie. 2000 urtean laguntza hauek 455.000 pztakoak izan dira; besteak beste, ondorengoak:

ATZEGI.....	25.000 pzta
ASPACE.....	20.000 pzta
GIZAKIA HELBURU.....	30.000 pzta
MINBIZIAREN AURKAKO....	25.000 pzta
FONTILLES.....	20.000 pzta
GURUTZE GORRIA.....	35.000 pzta
HIES.....	35.000 pzta
ODOL EMAILEAK (Zegama).	55.000 pzta
HERRIKO PARROKIA (Zegama)..	210.000 pzta
GUZTIRA	455.000 pzta

### • Saharar herriari laguntza:

Saharar haur bat bi hilabetetan edukitzeagatik:

Haurraren bidaia.....	57.000 pzta
Zegamako Festetan bazkaria..	7.500 pzta
Monitore gastuak (Tolosako Udalak: bi hilabetetan konpartitua).....	45.560 pzta
Atun laten kanpaina.....	10.000 pzta
GUZTIRA	120.000 pzta

Aurtengo kanpaina ere egin dugu Zegamako Udaletik, baina inongo familiarik ez da animatu programa honetan parte hartzera. Datorren udan ia inor animatzen zaigun.

### • Erretzeari uzteko ikastaroa:

GUZTIRA 25.000 pzta

2001. urtean, 2000koaren kopuru bera izango da, aurtien ere aurrekontuaren %0,7a gaindituko da.

## JUBILATUEN EGUNA

Aurtien, Zegamako Jubilatuen eguna, uztailaren 8an ospatu genuen, giroa aparta eta parte hartzea berriz ezin hobea izan zen. Zer esanik ez, eguraldiak nola langundu zuen eta hori, egun honetan, asko esker-tzen da.

Urtero bezela, goiza, txistularien kalejira-rekin hasi zen; 12etan Orkatz abesbatza eta bertsolariak lagun zirelarik Meza entzun eta ondoren polikiroldegira. Bertan Zegamako Ostatu jatetxeak prestatutako bazkari ederra jan eta Iturrioz soinujoleak eta Txomin Garmendia eta Patxi Etxeberria bi bertsolari saioak tarteko genituelarik, festa ederra egitea lortu genuen denon artean. Dantza saio eta bertsolari saio artean, hainbat opari zozketatu genituen. Egun baterako nahiko aktibitate beraz. Hurrengo urtean ere bertan izateko moduan izan gaitezela!



*Jubilatuen eguneko bazkaria*

## ZEGAMA: LEHENA ETA ORAINA

Atal honen helburua Zegamak azkeneko urtean eraikin eta eremu jakin batzutan izan duen aldaketa argazkien bidez azaltzea da. Egia da gizakion antzera udalerriek ere aldaketak somatzen dituztela (eraikin batzuk bota eta beren ordez beste batzuk eraiki, zelai edo soro izan direnak urbanizatu eta eraiki, etabar), eta hauek guregan

eragin zuzena izaten dutela. Hain zuzen ere, gure umetako oroitzapen batzuk eraikin edo gune jakin batzuekin lotuta egoten dira, eta hauek bota edo desagertzen direnean gure izatearen zati bat osten zaigu. Ahaleginak egin ditzagun bada, gure malenkonia etorkizun oparogo batekin orekatzeko, eta gauzen alderdi onarekin gelditzeko.

*Viana etxea*



*Viana etxea enaberritzen*

*Kultur etxea*



## ZEGAMA: LEHENA ETA ORAINA



*Lehen eskola  
publikoak  
1965ean*



*Olaran auzoan,  
69 eraikitako  
eskolak*



*Babes ofizialeko etxeak  
eraikitzeko eskolak botata*



*Babes ofizialeko  
etxebizitzak eraikitzen*

ZEGAMA: LEHENA ETA ORAINA



*Herreria  
aurrealdetik*



*Herreria  
atzealdetik*



*Herreria  
botata*



*Olaran erreka  
irteera enaberrituta*



## ZEGAMA: LEHENA ETA ORAINA



*Parrokia atzealdetik,  
mataderi zahararen  
zati bat ikusten da*



*Olaran erreka tapatzen duen parkea*



*Olaran erreka bistaratuta*



*Azken  
obrak*

## **INTXAUSTIKO INDUSTRIALDEA ERAIKITZEN**

Intxaustiko industrialdearen garapenean 2001. urtea eman-korra izan da. Kronologikoki aztertuta, gogoratu behar da 2001eko urtarrilaren 25ean erosi zela hirigintza eremuko azken lursail pribatua; hain zuzen ere, Jose Arratibel Asurmen direna 48 milioi pezetan. Aurrez, 2000. urtean, Aramendi Agirre anai-arrebei eta Zupier baserriko anai-arrebei erosi zitzairen eremuan zituzten lursailak. Guztiei m2ko prezio bera ordaindu zaie.

Erosi ondoren, eta behar den prozedura legala beteta, hirigintza eremuko urbanizazio lanen esleipena edo adjudikazioa egin zen "Hijos de J.C. Mendiola S.A." enpresaren alde, 225.000.000 pezetan (BEZa barne).

Apirilaren 26an Intxaustiko industrialdearen "lehen harria" jarri zen eta ekitaldi honetan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua den Iosu Ion Imaz, "SPRILUR"-eko zuzendari nagusia den Anton Zubiaurre, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariarekin izan ziren.

Honenbestez, apirilean urbanizazio lanei hasiera emanik, 2001. urtean hauek aurrera eramateko balio izan du, eta ia amaitutzat uzteko.

Bestalde, pabilioi industrialen proiektua idazteko lana eta ondorengo obren zuzendaritza Xabier Yeregi arkitektoari 18.303.561 pezetan (BEZa barne) adjudikatu zitzaion, eta



proiektua idatzi ondoren, pabilioien eraikitze lanei hasiera 2002. urteko urtarrila-otsailean emango zaie.

Industrialdea eraikitzeaz gain, Intxaustiko eremuan ere, Oria





*Industrialdearen  
inaugurazio egunean  
Iosu Ion Imaz,  
Eusko Jaurlaritzako  
Industria Sailburua*

ibaian eta errepidean zuzenketa lanak burutuko dira. Hain zuzen ere, bihurgune zuzenketa GI-2637 errepidean eta Ori ibaiaren uholdeen aurkako defentsa eta bideratze proiektua "Sesta SA" injineritzak idatzi du. Aipatutako lanak 160 milioi pezetako aurrekontua du, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Hidraulikoetako Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak eta Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentuak eta industrialdeko erakunde publikoak finantzatuko dute obra eta exekuzioa, 2002. urtean burutzea aurreikusten da. Obra horien ondorioz, egungo zubia bota eta berria eraikiko da eta "Garmendianeko" errebuelaren arriskua murriztu egingo da, beste traza-dura bat eraikita.

Industrialdearen garapenerako ezinbestekoak diren agiri guztiak idatzi eta onartu dira (urbanizazio proiektu aldatua, aktuzio sistemen aldaketa, arau subsidiarioen aldaketa eta plan partziala,

besteak beste). Halaber, Intxaustiko industrialdearen garapena "Ordiziako Industrialdea SA" elkarte instrumentalaren bidez garatu bada ere, azarotik aurrera sortu berria den Goierri eskualdeko industrialdearen ("Goierri Beheko Industrialdea SA"ren) eskutik burutuko da.

Lurzoru urbanizatuak 28.610 m<sup>2</sup>ko azalera du. Hauetatik

17.166 m<sup>2</sup> erabilgarriak izango dira eta eraikiko den azalera guztira 11.444 m<sup>2</sup>koa izango da. Bi mota pabiloiak eraikiko dira; hala nola, 9 pabiloi 1.100 m<sup>2</sup>koak eta 8 230m<sup>2</sup>koak. Poligono horrek gainera, 150 aparkaleku eta tonak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulaziorako bideak izango ditu, gunen berdeekin batera.



## ZAHARKINAK. ZEGAMA 2001

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen ZAHARKINAK ZEGAMAN proiektua egiteko gestioak 2000 urtean hasi ziren. Azken hilabeteetan eta 2001eko lehenengo hiruhilabetekoan, Fermin Leizaolak, proiektuaren egile eta koordinatzaileak, Zegamako udaletxe-ko korporazioko hainbat kide eta teknikarekin gestio batzuk egin zituen proiektuaren exekuzioa azaldu eta zehazten joateko. Azkenean, ZAHARKINAK erakusketa aurtengo udaberrian egin zen, aurreikusita zegoen moduan, Zegamako udal frontoian.

Aranzadi zientzia elkartearen etnografia saileko lantaldeak, Jesus Mari Gomez, Edorta Muñoa eta hirurok osatuak, udalaren deialdiari erantzunez bildu ziren herritarrei proiektua azaldu zien aurrez, martxoa eta apirila bitartean. Garrantzi berezia izan zuten Kultur Etxean egin zen bilerara etorri ziren 15 eta 21 urte bitarteko gazteekin egin ziren kontaktuak. Gazte horiek aurrez lekuan bertan eremuko ikerketa bat egiteko prest agertu ziren, baserrian existitzen ziren kultura materialeko elementuen gaineko praktika egiteko balioa zien ikerketak. Horretarako, erregistratu beharreko elementuen diapositiba emanaldia eta fitxak nola bete azaltzeko lezio praktikoa eman ondoren, gerora Zegamako baserrietara egingo zituzten bisitetan ikusi eta beraiek etnografia aldetik interesgarritzat jotako material etnografikoak (nekazaritza-tresnak, lanabesak, altzariak, eta abar) behatu, argazkiak atera eta erregistratu egin behar zituzten eman zitzaizkien fitxetan.

Horrekin guztiarekin belaunaldi berriak proiektuan inplikatzeko lortu nahi da, oraindik ere kasu batzuetan behintzat, gure baserrietako ekonomiaren zati den mundu tradizionalan ageri diren elementu kulturalak "in situ" ezagutzea.

Bederatzi gazte inplikatu ziren proiektuan, Aste Santuko oporretan aurrean aipatu eta azaldutako lanak (baserrietara bisitak, fitxak bete etab.) egin zituztenak. Beraiek egindako lana sustatu eta saritzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak liburu sortak eman zituen lantalde desberdinetako parte hartzaileentzat. Sortutako materiala (fitxak) udal-artxiboan gordeko dira.

Kartela eta erakusketako poliptikoa egiteko KUTXA fototekak utzitako argazki bat aukeratu zen. Bertan, Ezpaleo baserriko bizilagun batzuk ikusten dira, errepidean, beraien etxearen aurrean, 1923an.

### EGINDAKO LANA

Hasteko esan behar da, kulturako udal teknikari den Edurne Albizu, zinegotzi diren Jon Ormazabal eta Nikolas Zabaleta eta gainerako udal langileen erabateko predisposizioa eta laguntza eta lankidetzaren lanaren garapenaldi guztietan.

Biltze-lanetarako Udalak gure esku jarri zuen udal ibilgailua (4X4 NISSANA atoiarekin) eta materialen biltze eta bueltatze lan guztietan lagundu zigun Jose Luis Berasategik gidatu zuen.

Lan horietarako, baserrietan gure aurkezpena errazteko eta erakusketarako jasotako piezak garbitzeko ere borondatez laguntzeko prest etorri ziren herriko jubilatuen laguntza izan genuen.

60 baserritik gora bisitatu genituen eta horietatik materialak jasotzen maiatzaren 2an hasi ginen eta hil horren 18an bukatu genituen biltze lanak. Erakusketarako tresnak garbitzea, prestatzea eta ondoren erakusketa bera muntatzeak astebete iraun zuen, maiatzaren 21etik 27ra, erakusketarako inauguraziorako zehaztutako egunera arte. Lan horiek guztiak (biltegitartzea, garbitzea etab.) frontoian bertan eta atarian egin ziren. Garbiketarako modu hezean eta lehorrean egin ziren.

Behin materialak garbituta eta kanpoan lehortu, eskuilatu, tratatu, metalak garbitu eta zurezko altzariei argizaria eman ondoren, mustra bera prestatzeari ekin zitzaion. Erakusketan 1.600 pieza inguru aurkeztu ziren, nekazaritza-tresnak, lanabesak, altzariak, agiriak, argazkiak eta beste objektu batzuk, mahai, ohol eta bitrinetan jarriak.

Erakusketako materialaren aurkezpena.

Aurkezpena gaika eta ebolutiboki egiten saiatu ginen, beti ere piezen kopuruak, tamainak eta erakusteko espazioaren ezaugarriek baldintzatuta. Horretarako, bisita erraztuko zuten korridoreak egin eta irizpide horren arabera material desberdinak jarri ziren.

Frontoiaren atzeko aldetik hasita, erlezaintza, abeltzaintza eta abeltzaintzako tresnak, gaztagintza eta lihoa eta artilearen baserri-industria eta ehiza eta arrantzako tresnak jarri ziren.

Ezkerreko paretan, atzetik frontiserantz, sagardoa eta ardoaren inguruko materiala (barrikak, zipotzekoak, martxiteak, eskailerak, etab.) eta basogintzako (trontzaderak, aihotzak, aiztoak, armazoidun zerrak, aizkorak, ziriak, ... etab.) jarri zen.

Ondoren, mahai jarraituen gainean, ebanisteria eta zurgintzako tresnak eta Zegamako Intxausti etxeko Gregorio Aramendiren buztinolan egindako eta beste leku batzuetako (Muelas de Pan, Pereruela, Navarreta eta beste zentro buztinlari batzuetakoak) zeramika bilduma interesgarria.

Material horiekiko paralelo, erdiko espazioan, ale irazkailuak jarri ziren eta lurtean jarritako oholen gainean eskuo nekazaritza-tresnak (laiak, aitzurrak, sardak, igitaiak, segak, ingudeak, sega-mailuak, etab.) eta tipologia oso desberdinetako golde-tresnen bilduma aberatsa. Harmailen azpian, era berean, pentsua egiteko ale-errotak eta aletzekoak, gari-jotzekoak (pisu eta tamaina handikoak). Horien jarraian, tamaina handiko garraioko elementuak (gurdiak, mando-gurdiak, lerak) jarri ziren. Gune horretan jarri ziren, uzta-



Zaharkinak erakusketa Udal Kiroldegian.

rriak, arnesak eta abere zamarien garraioaren inguruko eta saskigintzako materialak ere.

Frontiseko txokoan zenbait ambiente jarri ziren diorama erara. Beste batzuen artean, logela, jangela bere altzari eta guzti, eta gelak janzteko elementuak. Frontisean, beheko sudun sukalde, osatzen duten elementu guztiekin eta beste forma eta tipologietakoak hurbil zeuden beste mahai pare baten jarri ziren. Etxean erabili ohi diren tresna eta ontziak, okindegia bere azpil eta labeko palarekin, garbiketarako sistemak tradizionalak, etxe-abereak hiltzeko tresnak etab.

Erdiko gunean 12 bitrina jarri ziren, horietan elementu erlijiosoak (azpimarragarria tipologia desberdinetako argizaiola bilduma aberatsa), agiriak, estanpak, argazkiak eta objektu desberdinak erakusgai jartzeko. Kutxa eta mahaien gainean, irratiak, koadroak eta markodun estanpak jarri ziren.

Maiatzaren 27an, igandean, eguerdiko ordu batean, erakusketaren inaugurazioa egin zuen Juan Inazio Galdos, alkate jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako zuzendari den M<sup>a</sup> Jesus Aranburuk, udaletxeko zinegotziek, Aldundiko teknikariek eta inguruko agente turistikoek lagunduta; gainera publiko joria izan zen, gehienbat erakusketarako utzitako objektuen jabeak ziren baserritarrak. Alkatearen eta Aldundiko Kulturako zuzendariaren aurkezpenaren ondoren, Fermin Leizaolak hartu zuen hitza eta erakusketa gainetik azaldu zuen. Horren atzetik, inauguraziorako bertaratu zirenei hamaiketako eman zitzaizen Jubilatuen Etxeko lokaletan.

Erakusketaren sarreran, mahai baten gainean, koaderno bat jarri zen, bertaratuek nahi izanez gero beraien iritzi eta iradokizunak azal zitzaizen. Emaitza idatzitako 40 orrialde izan zen eta orriotan bisitari batzuk sinatu, beste batzuk baloratu, gogoratu edo kritikatu egin zuten erakusketa. Orriok irakurrita asko

ikas daiteke eta proiektua hobetu ere egin liteke.

Udalak erakusketa zaintzeko lagunak jarri zituen, gehienbat emakume eta gizonezko jubilatuek, laguntzeko prest agertu zirenak. Bestalde, Eburne Albizu, udal kultur-teknikaria gida lanetan aritu zen, erakusgai jarritako materialaren gaineko azalpenak emanaz herriko eskolako taldeei eta aurrez hitzartutako beste bisitari taldeei ere.

Jende guztientzako ordutegia (gidatutako bisitak ordutegi honetatik kanpo egiten ziren) larunbat eta igandetan izan zen, eta orduak, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. erakusketari publizitatea eman ahal izateko, Udaletik aurrez gutuna bidali zen probintziako ikastetxetara eta eskualdeko kultura-zentro eta jubilatuen etxetara. Beste alde batetik, prentsara ere bidali zen eta hedabideei deialdia egin zitzaizen erakusketaren egitaraua emanaz, horrela agenda eta berrietan aipa zezaten. Egia esan, egin zen difusio lana oso garrantzitsua izan zen, erakusketaren berri idatzizko hedabideek (prentsa, aldizkariak), irratiak (herriko irrati, Euskadi Irratia) eta ETBk (Bertatik Bertara) ere eman baitzuten.

Erakustaldian zehar, Aranzadiko kideek erakusgarri ziren piezen 1196 argazki eta banakako deskripzio-fitxak egin zituzten, horietako batzuk oharrak jarritako krokis eta guzti.

Erakustaldiaren bukaeran, ekainaren 24an, desmuntatzen eta jabe bakoitzaren piezak taldekatzen hasi ginen. Ondoren, piezak bueltatu ziren, eta orokorrean, ez zen arazorik izan. Lan horiek guztiak ekainaren 25tik 30era egin ziren.

2.400 bat lagunek ikusi zuten erakusketa. Ekainaren 20 eta 21ean (arratsaldeko 8etan) Fermin Leizaolak gaztelaniaz eta Edorta Muñoak euskaraz, herritarrentzat bisita gidatua egin zuten, erakusgarri zeuden materialen gaineko azalpen zabalak emanaz.



*Fermin Leizaola lanean.*

Biziki eskertu beharrekoa da Zegamako Udalak emandako laguntza, eta bereziki Eburne Albizuk, kultur-teknikariarena, bere laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen erakusketa egitea. Juan Inazio Galdos alkatearen lankidetzat balioetsua ere eskertu nahi dugu, denbora guztian inplikaturik eta gogotsu aritu baitzen.

Era berean, lanaren aldi desberdinetan lagundu zuten lagun guztiei esker eman nahi dizkiegu, bisita, garraio, garbiketa eta muntaia lan guztietan lagundu zigutenei, bereziki Jose Luis Berasategiri (herriko aguzila) eta jasotzen, garbitzen eta erakusketa zaintzen lagundu ziguten jubilatuei.

Azken batean, uste dugu erakusketak balio izan duela zegamarrek eta ikustera joan ziren gainerako bisitarien gure kultur-ondarearen zati oso garrantzitsu diren pieza horiek, gure memoria etnohistorikoaren elementu horiek gogoratu, baloratu eta gorde ditzaten eta datozen belaunaldiei transmititzeko dugun betebeharra gogorarazten. Horregatik guztiagatik, lanak merezi izan du eta urteak aurrera joan ahala, erakusgai jarritako elementuen inguruan egindako fitxek balore kalkulazina hartuko dute, XX. mendearen azken arte bizirik iraun duen kultura materialaren testigantza izango baitira.

Bukatzeko, beharrezkoa da Zegamako herritar orori eta bereziki erakusketarako piezak utzi zituzten jabeek eskerrak eman nahi nizkieke lerro hauen bidez. Guztiak, eskerrik asko.

FERMIN LEIZAOLA CALVO



*Eskola umeak zaharkinak erakusketan bisita gidatuan*

## TRADIZIOAK

### ARANTZAZUKO PEREGRINAZIOA

Tradiziozko ekintza bat denez Peregrinazio hau egitea, ezer gutxi aldatzen da urteroko ibilaldi, prozesio eta elizkizunetan. Aurten ordea, antolakuntza lanetan zenbait aldaketa izan ditugu. Orainarte bazkaltzeko tokira eramaten zen haragia, aurreko egunean prestatu eta kamaran gorde ondoren, peregrinazioko egunean bertan, goizean xerrak astoan kargatu eta eramaten ziren. Aurtengoan ordea, ekainaren 3an bertan herriko Ostatuan prestatu ziren xerrak eta egin berri-berriak kotxean sartu eta ia bazkaltzeko tokiraino eramaten ziren, azken 200 metroak izan ezik; hauek herritarren laguntzarekin garraiatu ziren. Gure ustez, herritar guztiok paraje hartan otarteko epel-epela jatea eskertu genuen, eta oraindik hotza zuenarentzat izan zen aukerarik salda beroa, haragi egosia tomatearekin eta kafe bero-beroa hartzeko. Prozesio eta elizkizunetan ere Arantzazu eta Santutegia bete egin genuen zegamarrok. Itzuleran, haurrentzat goxoki eta opari ugari izan zen aurtengoan ere, Udalak eginiko goxoki banaketaren ondoren, elizako sartu-irtena egin, peregrinazioa egin zutenei ongi-etorria emanaz. Kasinoko XIII. Ipuin Lehiaketako opariak banatu ondoren, denok etxerantz abiatu ginen, preskatu bat hartu, erropak aldatu eta urteroko, bakoitzak bere lagunarteko afaria prestatu eta juergatxo bat egiteko.

### SANTU ESPIRITUKO MEZA ETA IDIAZABALDARREN ETORRERA

Aurten bi ekintza hauek ekainaren 10ean bururu ziren, haurren Jaunartzeak ere egun horretan San Martin Parrokian argin zirelarik.

Santu Espirituko Meza, goizeko 11tan Jose Maria Satrustegi apaiz ezagunak eman zuen, bertaratuentzat hamaiketako ere izan zen zenbait



*Arantzazuko peregrinazioa San Bartolome Ermitana iristen*

herritarren borondatea bide. Eguerdiko 12:00ak aldera, Idiazabaldarrei herriko agintariak harrera egin zien, Olaberriko Santa Kruz Ermita inguruan, Zegamako Alkateak eta Idiazabalgoak "makila" trukatzan dute bertan, eta ahozko literaturak dionez, herria zeharkatzen duen bitartean Zegamako Alkate Idiazabalgoa izaten omen da.

### SAN ADRIANGO MEZA

Ekainaren 17an izan genuen San Adriango Meza, aurten Telexforo Garmendiak eman zuen meza, leize zuloa zegamarrez gainezka zela. Ondoren Udalak eskeinitako hamaiketako "gazta, ardoa eta pastak errioxako ardoarekin" hartu eta beherantz abiatu ginen bertaratutak.

### SAN JUANAK

Ekainaren 23an ere tradizioari eutsiz arbola jasotze lanak eta San Juan sua egin ziren. Aurten arbola jasotzeko herriko errealzaleak ere izan genituen, Arantzazuko peregrinazioa egin ondoren. Urteroko legez giro aparta izan zen. Ekainaren 24an Udaletxeko arkupeetan afariak izan ziren, soinu-jole eta guzti, ohiko den modura. Aurrez Udalak herritarrei doaneko ardoa banatu zien herriko Plazan.

### SAN PEDRO ERMITAN MEZA

San Pedro Egunean, ekainaren 29an, Goialdean dagoen San Pedro Ermitan


meza izan genuen zegamarrok iluntzeko 19:00etan. Ondoren, Parrokiak, Zegamako tradizioetan ia ezinbesteko bihurtu den mokadutxo banatu zuen bertaratuen artean.

### AIZKORRIKO MEZA

Abuztuaren 5ean, goizeko 11:00tan izan genuen Aizkorriko Ermitan Meza. Pello Urriolabeitiaren meza entzun ondoren, bertaratutako herriko seme nahiz kanpokoek, eguraldi zoragarria lagun, hamaiketako leku eta giro ezin hobean egin genuen.




*Aizkorriko Ermita ondoan meza*



*San Adriango Ermitan meza*



*San Pedro egunean Ermitan meza*



## ZEGAMAKO CARITAS

"Orain 14 urte jarri zen  
martxan Zegamako  
Caritas Elkarteak"



*G.- Noiz sortu zen Zegamako Caritas?*

Ordiziako Artziprestalgotik, parrokieta pertsona batzuk Caritasen inguruko ikastaro batera deituak izan ginen; Hori, 1987ko apirilean izan zen.

Ordizian ekainean egin genuen batzarraren batzorde bat sortzea onartu zen, beraz, orain 14 urte jarri zen martxan Zegamako Caritas taldea.

Urte txarrak ziren haiek, krisi ekonomikoa nabarmena zen, urtez urte areagotzen zihoan, enpresa eta tailer txiki asko itxi zen, zenbait enpresa handitan ere erregularizazio prozesua irikita zegoen, langabezia gorantz zihoan, gazte asko lanik gabe, familia asko pobrezian, argirik ikusten ez zen tunel baten sartuta geunden. Zegama ere ez zen salbuespena. Ekonomia giro honetan sortu zen Caritas, Zegaman.

*G.- Nortzuk parte hartu zenuten sorreran?*

Hiru lagunek jarri genuen martxan Caritas taldea herrian, Javier de Prado, Nieves Oyarbide eta nik (Jose Zubizarreta) geroztik ahalegin handiak egin genituen taldea handitzeko baina ez zen lortu.

Parrokiko gaixoen taldea egoera berdintsuan aurkitzen zen, gu bezela talde txikia zen, indarrak batzeko beharra ikusten genuen, horregatik bi taldeak bat egitea erabaki genuen. Hori 1992an gertatu zen; geroztik Caritas eta Gaixo Pastoralta taldeak, talde bat bezela funtzionatzen dugu, denak denetik eginez.

Gaur egun, Taldea pertsona hauek osatzen dugu:

- Florita Arana
- Arantxa Irastorza
- Benita Lazkano
- Nikolasa Estensoro
- Nieves Oyarbide
- Mari Tere Larrea
- Dolores Telleria
- M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia
- Joxe Zubizarreta

*G.- Zeintzuk dira Parrokiko Caritasen zeregin nagusienak?*

1. Gure herriko premiak ezagutzea, norbanakoen arazoak ahalik eta zehatzen ezagutzea, eta bide batez herriko giza errealitatea hatzematzea: behar ekonomiko larriak sufritzen dituzten familiak, gaixo kronikoak, gaizki zaindutako adinduak, lanik gabe dauden gazteak, etab.

2. Parrokiko Caritas taldearen beste helburuetako bat, gure ondasunak elkarbanatzeko bideak kristau-elkarteari eskeintzea da.

Mundu honetako ondasun eta errenten banaketan desberdintasun handia nabari da. Desberdintasun horiek sortzen dituen mekanismoak, geroz eta handiagoa egiten du behartsu eta aberatsen arteko tartea.

Caritasen egitekoa, diru baliabideak lortzea ere bada (diru-bilketak, kan-

painak, eskupekoak...) eta beharrenda dauden artean diru baliabideak, baremo baten bidez, premien arabera banatzea.

3. Parrokiko Caritas taldeak, parrokiako kristauei gure errealitate sozio-ekonomikoaren aurrean begiak irekitzen lagundu behar die, behartsuarekiko elkartasuna eta senidetza bizitzera animatuz, gizarte gizakoi baten alde joka dezagun.

4. Parrokiko elkartearen heziketa soziala bultzatzea; senide-maitasunaren eskakizunak oroitzea; kristau-elkartean Fedea eta Eukaristia ospatzeak nolako eskakizunak dituen gogoraraztea.

5. Gure gizarteko injustiziak salatzea.

*G.- Caritas taldearen eginkizunetako bat, gizarte mailako injustiziak salatzea dela esan duzu. Zer da hori?*

Gertuko eta urrutiko bidegabekeriaren salaketa. Jesusen Ebanjelioa sinesgarria izatea nahi badugu Elizak behartsuen aldeko apustu garbia egin behar du, pobrezia aurka borrokatu behar du, injustiziak salatuz, hori ez baita Jainkoak nahi duena.

Caritasek, gertuko eta urrutiko bidegabekeriak eta giza eskubideen edozein zapalketa salatu behar du. Salaketa hauek egiterakoan bi gune azpimarratzen ditut:

a) Eliza barneko salaketa, geure buruan egin beharreko salaketa, autokritika: gure erosotasuna eta berekoikeria, gure koldarkeria eta axolagabekeria, etab.

b) Elizaz kanpoko salaketa, gure gizartean ematen diren bazterketak, pertsona guztien eskubideen mespretxua, aberatsen gehiegikeriak, kapitalismo gogorra, herri aberats eta behartsuen arteko desberdintasunak, munduko gosea, kanpo zorra, etab.

*G.- Kristau Elkartean zenbaiteraino ezagutzen da Caritas?*

Denetik dago. Gutxiengo batek Caritasen izatea eta zereginaren ezaguerara maila ona du. Bestalde, Parrokiko gehiengo batek, uste dut, ez duela barneratu, ez duela ongi ezagutzen Caritasen benetako funtzionamendua eta egitekoa. Beste gutxiengo batek, antzinako Caritasen kontzeptuarekin jarraitzen du: Caritas = limosna. Gizartean eta kristau elkartean, Caritasen aurkako aurreiritzi edo irizkiak ere badaude. Badaude esaten dutenak: "gaur ez dagoela behartsurik eta norbait balego berak nahi duelako dela behartsu eta errudun bakarra". "Behartsuentzako biltzen den dirua ez dela behartsuengana iristen". "Behartsuak ez direnei laguntza ematen zaiela," etab. Honelako erizkiak entzutea ez da batere arraroa.

*G.- Caritasen lan egiteko prestakuntza bereziren bat behar al da?*

Caritas taldean lan egiteko baldintza, gure gizarteko behartsu, baztertu... eta gaixoeekin lan egiteko prest egotea da.

Gure ekintza borondatezkoa da, gure denbora eta dohaiak, bakoitzari Jainkoak eman dionak, jartzen ditugu behartsuei laguntzeko doakotasunez.

Caritasen lanean ari den pertsonak laster sentituko du prestakuntza baten beharra; badaki, hasierako borondate ona ez dela nahikoa elkar-maitasunaren zerbitzuak eskatzen duen eragintasuna eta langintza ona lortzeko. Behartsuekin lanean bakoitzak duen esperientzia garrantzitsua izanik, ez da nahikoa, prestakuntza soziala beharrezkoa da.

Caritasen boluntarioak zera ezagutu behar du:

1. Ekonomia arazo astunak eta horien ondorio latzak; gure gizartean egiten diren injustiziak, azpi-azpian dauden ideologiak, etab.

2. Gure gizartean gertatzen den guztia kristau ikusmoldeetik irakurtzen eta aztertzen ikasi behar dugu. Etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egin behar dugu; prestakuntza, lan eta erantzukizun desberdinen arabera.

*G.- Zegamako Caritas eta Gaixoen taldeak zein ekintza gauzatu dituzue urte hauetan?*

Zegama herri txikia da eta denok ezagutzen dugu elkar. Caritasetik lagundu zaien pertsonak gure errespeto guztia merezi dute. Isiltasuna, anonimotasuna zor diegu. Zuhurtziaz jokatu behar dugu. Horregatik diskrezio handiz lan egin behar dugu, laguntza hartu duena gutxietsirik senti ez dadin.

*G.- Zegamako Caritas eta gaixoen taldeak zein lan egin duzue urte hauetan herriko gaixoeekin?*

Azken lau urte hauetan, herriko gaixoak, erresidentzi eta kliniketan ingesaturik egon diren bitartean, gaixoen taldekoak gaixoak zaintzeko eskeini gara nahiz egunez nahiz gauez. Hala nola ondorengoak aipa daitezke:

Zazpi gaixok eskatu dute gure laguntza. Zerbitzu hau hamahiru pertsonak egin dugu.

- Ezin ditugu ahaztu, erresidentzira eramane eta ekarri egiteko garraio lana egin duten pertsona desberdinak, bolondres eta gaixoen familiakoak.

- Gure laguntza beharrik ez eta Osasun zentruetan ingesaturik egon

diren gaixoak bisitatu ditugu, ahal izan dugun neurrian; beti ez da izan posible, ingresatuta zegoen berririk ez zegoelako edota ezin izan dugulako denetara iritsi.

- Gaixo taldekoek, igandetan, herriko gaixo eta ezinduei, nahi dutenei noski, Jauna etxera eramateko konpromisua hartu genuen.

- Bakarrik bizi diren pertsona batzuei, medikuaren kotsulara lagundu zaie norberaren autoa erabiliz.

- Gaixoen zerbitzurako hiru ohe artikulatu ditugu eta grua bat ere erosi berria dugu. Denak zerbitzuan daude momentu honetan.

*G.- Caritas eta gaixoen taldekoek ardura berezia jartzen omen duzue gosearen aurkako kanpaina antolatzen?*

Behartsuak gertuan eta urrutian daude; gertuan gure herri eta hiri handietan, behar bada metro gutxi barruan. Urrutian, hirugarren munduko nazio behartsuetan.

Azpimarratzekoa da, gosearen aurkako kanpaina antolatzeko urtero, gure taldeak egiten duen lana. Gosearen aurkako kanpaina, otsaileko bigarren igandean egiten da urtero. Kristau elkartearen gogotuetan sentiberatasuna sortzeko propaganda berezia egiten dugu; kanpaina hauetan propagandari ematen zaio garrantzi handia, geuk prestaturikoa izaten da eta euskaraz eta gazteleraz egiten da; marrazki, argazki, testu etab. eguneko gaiari lotuta; familietara bidaltzen dugularik.



*Nieves Oiarbide, Dolores Telleria eta Jose Zubizarreta, Caritaseko partaideak*



Ekintza hori, Segurako Caritas gaixoen taldearekin batera elkarlanean antolatzen dugu.

Segurako irratia, bailara osoan entzuten denez, irratirako egokitutako propaganda grabatzen dugu eta kanpaina aurreko aste osoan emititzen da.

Bestalde, goseari buruzko erreflexio grabatu bat, musikaz lagundurik prestatzen dugu; egun honetan, Eukaristia ospaketen sarreran ematen da, parroikiko sistema megafonikoa erabiliz eta ohiko estiloa aldatuz.

*G.- Caritasek parrokian eta urtean zehar lau diru-eske egiten omen ditu. Zertarako erabiltzen da bildutakoa?*

Elizbarrutiko Caritasek urtero (apirilean eta irailean) bi diru-eske egiten ditu "BEHAR BEREZIEN" alde betiko helburuekin: beharrean aurkitzen diren langabetuen familiei laguntzeko, baztertutako eta marjinatutako gazteak; IHESak edo SIDAK jotako gaixoentzako Harrera Etxearen gastuak ordaintzeko; Alkoholaren eta drogaren menpe erori direnak berreskuratzeko; gazteen zat lanpostu berriak sortzeko eta gazteen lanbide eta lanbide heziketarako.

Bi eske horietan biltzen den guztia, bailarako Caritasera bidaltzen da (Beasain). Bailara guztian biltzen denaren erdia Donostiako Elizbarrutiko Caritasera bidaltzen da.

Diru-eske horietan, lanpostua izateko suertea daukagunoi eta lana banatu ezin dugun bitartean, hilabetero egun bateko soldata banatzeko deia egiten zaigu Elizbarrutiko Caritaseko langabetuen Fondoan parte hartzeko gonbidatuz. Izenematea parrokian banatzen den txartel baten bidez egiten da.

Bestalde, Parrokiko Caritasek beste bi diru eske egiten ditu:

1. Abenduko IV. Igandean eta Corpus Cristi egunean. Egun horietan biltzen den guztia Parrokiko Caritaserako da. Bestalde, Eguberrietako diru-eskean biltzen dena, Gabonak direla eta, herriko pertsona helduei, etxean erretiratuta bizi diren gaixo eta ezinduei eramaten zaien opariak ordaintzeko erabiltzen dugu.

2. Corpus eguneko diru-esketik % 30 Beasaingo bailarako Caritasera bidaltzen dugu, larrialdiarako fondoa egiteko.

*G.- Lau herrietako Caritas gaixo taldeak bat egin omen duzue. Zertarako?*

Zegama, Zerain, Segura eta Mutiloako parrokoek, lau herrietako Caritas gaixo pastoraltza taldeak bat egitearen proposamena luzatu zituzten.

Otsailaren 26an Seguran egin genuen bileran onartu zen bat egitea, eta helburu batzuk jarri genituen. Zertarako? Helburuak batu, lankidetzaren suspertu, indarrak bateratu, behar diren ekintza bateratuak bultzatu, etabarrerako. Denok gara beharrezkoak. Elkarren arteko erlazioa, komunikazioa sendotu, elkar hobeto ezagutu, animatu, informazioa, koordinazioa lortu, etabar.

*G.- Caritas eta gaixoen taldeak ba al duzue harremanik beste taldeekin?*

Bai, ondorengo taldeetan ditugu ordezkariak:

- Parrokiko Pastoral Kontseiluekin: bi ordezkari ditugu kontseiluan gure eginkizunen berri emateko.

- Bailarako Caritasen Batzordean ere ordeztuta gaude, hilero biltzen gara Beasainen bailarako herri guztietako ordezkari guztiekin, gure herrietako arazoak azaldu, gure programak bateratu, arazoak kopondu eta erabakiak elkarrekin hartuz.

- Donostiako Elizbarrutiko Caritasekin ere baditugu harremanak. Hiru urte hauetan, bailarako Caritaseko Batzordeak Beasainen egin dugu Batzarra Donostiako Caritaseko ordezkariekin.

*G.- Aurrera begira zein asmo duzue?*

Gure asmoak hiru ataletan bana daitezke:

- Norabide bateratua: Bailarako Caritas taldeen ahaleginak batu eta ekintza bateratuen bidez denon arteko lankidetzaren bultzatzeko ahaleginak egitea, talde bakoitza bere aldetik bakarrik, ezin asmatu, askotan desanimatuta ibiltzen baita; beharrezkoa da norabide berean lan egitea.


- Konpromiso Unibertsala hartzen duen Caritas: Hirugarren munduko behartsuei laguntza eta lurreko herri pobreekiko elkartsuna garatuz. Guztiontzat mundu gizartiar, baketsu eta zuzenagoaren aldeko konpromiso sendoa hartzea.

- Caritas, Kristau elkartaren gune: Caritas taldea osatzen dugunok deituak gaude, kristau elkarte osoa animatzera, motibatuz, kontzientziatuz pertsona behartsu eta marjinatuen aurrean sentiberatasunez jokatzera. Behartsuengana konpromisoa landuz.

BEGOÑA OLARTE



Caritas taldeko kideak



## KULTUR ETXEA

Kultur Etxea 80. hamarkadan eraiki zen, lehen Viana Etxea zena eraberrituz. Viana Etxea ezagutu ez zuenak ikus beza urtekari honetako "Lehen eta Orain" atala eta hantxe ikusiko du zernolako etxetzarra zen eraberritu aurretik. Beste herritar asko eta askori berriz era askotako oroimenak bururatuko zaizkiola berriz seguru nago.

Egin zenean ez bazuen bizi handirik ere, poliki poliki herritarrok gure herriko elementu garrantzitsu bezela onartu dugu eta erabili ere gero eta gehiago erebiltzen dugu. Zenbat eta zenbat bilera egiten diren berak bakarrik jakingo du, eta zenbat soinu eta musika entzun dituen ere bai. Behe solairua, herriko eskolaume ugari erabiltzen dute liburutegiko hautsak astinduz eta herriko elkarte gehienek berriz fotoko-

piagailu-zerbitzua dute, eta elkarteren bat balego ez lukeenik, oraintxe bertan jaso beza gonbidapena eskaera luza diezaion Kultur Etxeko Batzordeari. Astero astero, herriko emakume ugari elkartzen da eskulanean tailerlean eta azkenik herriko buruhandien konponketak ere bertan egiten dira. San Martinetan artzainen bilera Kultur Etxean burutzen da, astero astero, Katekesia ematen da, Orkatz Abesbatza eta Gazte Herexak bertan dute bilgunea, Elkartu Nahi Txirrindu Taldearen txokoa ere bertan dago, Tobera Musika Eskolako klaseak ere ematen dira eta Zegamako etxe askotako bilerak ere bertan burutzen dira; Guraso Elkarteko bideo emanaldiak ere hamabostean behin Kultur Etxean burutzen dira etabar etabar.

Urtean zehar hainbat erakusketa ere antolatzen dira, bai Kultur Etxeak antolatutako ikastaroetatik sortutako emaitzak ikusteko eta baita interesgarri iruditu zaigun erakusketaren bat ekartzeko ere.

### GABON ESKE IRTEERA

2000ko gabon eskean eguraldi koxkorra izan bazen ere, ez zen jende faltarik izan bai Barrenalde eta baita Goialdera ere eskean irtetzeko. Belaunaldiz belaunaldi dirauen ohitura hau oso

gustokoa dugu zegamarrok eta aurten-go gabon eskerako ere anima zaitzete-la dei egiten dizuegu, zahar eta gazte, ahal bada, egunari dagokion jantzia jantzita.

### GABON ZAHAR GAU

Lortu dugu, lortu, ez bakarrik herritarrak herrian juerga egitera, baizik inguruko herrietatik ere Zegama aldera etortzeko grina sortzea ere. Nahi izatea ahal izatea dela dio esaera zahar batek eta Zegama bere jai eta festa giroarengatik ezaguna izaten jarraitzea nahi baduzu, Urte Zahar Gauen ez aldegin gero herritik!!!

### ORGANU KONTZERTUA

Urtarrilaren 15ean izan genuen Organu Kontzertua San Martin Parrokian, Ana Belen Garcia izan genuen gure artean. Organuarekin jarraituz, Zegamako Kultur Etxeak, bere afazioaren erdia urtero ordaintzen du, gure kultur ondarea baita hau ere.

### SANTA AGEDA BEZPERA

Makila soinuak lagun, urteroko zitara jendea hurbildu zen San Ageda kantutak abestera. Koplak Orkatz Abesbatzak prestatu zituen, giro ederren aritu ginelarik herriko kaleetan zehar.



*Kultur Etxeak  
lagundutako  
Kasinoko  
bertso jaialdia*



*Olentzero  
Jauna*

### **BERTSOLARI GAZTEEKIN AFARIA**

Aurtengoan, Amezti Elkarteari egokitu zaio afari hau antolatzea. Apirilaren 6an egin zen afaria eta bertan Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea eta Alaitz Sarasola izan genituen. Neska "atakatu" zuten bi mutil gizarajoek baina hura lotsatuko zuenik ez zegoen mahaiaren bueltan. "Osaba Patxi" ere koloreak aterata erabili zuen hilobak, gure pregoilariak berriz "serioa"ren papera bete zuten.

### **ZINEA AIRE LIBREAN**

Iaz, musika ekarri bagenuen ere udako gau giroa alaitzeko, aurten "zinea aire librean" ematea erabaki genuen Kultur Etxeko Batzordean. Horretan aritzen diren enpresa batekin hitz egin ondoren uztailaren 19rako "Azken Mohikanoa" filmea enkargatu

eta bota genuen Udaletzeko arkupeetan. 100 lagun inguru bildu zen bertan. Esperientzia polita benetan eta tokia ezin hobea. Hurrengo urterako aga bertan uztea pentsatu genuen beste filmerrin bat botatzeko.

### **SAN BARTOLOME JAIK**

Jaien antolaketen barnean hainbat ardura harturik ditugu eta horien artean, disfrazen eguna, pregoi lehiaketa, belearen entierroa eta Kultur Etxean ipintzen den erakusketa dira.

Emaitzak denok dakizkizuen arren gogoratu egingo ditugu:

3. Pregoi Idatziren Lehiaketa: **Ekaitz Goikoetxea**

Mozorrotuen Lehiaketa:

Bakarkako saria: **Ander Lasa**

Disfraz landuena: **Arrantzaleak**

Giro gehien sortu zuena: **"La hora de Eva Nasarre"**.

### **BELEAREN ENTIERROA**

Azken urteotan azkeneko momentuan animatzen da jendea belearen entierroan parte hartzera. Honek, antolakuntzan gaudenoi azken ordurarteko kezka sortarazten digu, eta bere iraupena bermatu nahi badugu, izenemate epeetan parte hartu behar duzuen jakineraztea komeni zaigu. Bestalde, herriarroi jakinerazten dizuegu askoz hobeto pasatzen dela beltzez jantzita begira baino eta bestela probatu 2002ko San Bartolometan.

### **ESKULANETAKO ERAKUSKETA**

San Bartolometan ezinbesteko bilakatu zaigu erakusketa hau ikustea. Zegaman artista ugari ditugu Iñaxi Urreaga eta Asun Etxegiaren laguntzaz. Hauen gidaritzapean hainbat pinturlan eta hari-lan lantzen ari dira eskularen tailerren parte hartzen dutenak.

### **IKASTAROK**

Aurten ere hainbat ikastaro antolatu ditugu:

Ehungintza Ikastaroa, Jon Iturrarteekin, Tailaketa ikastaroa, Jabier Arrietarekin, bi Pintura Ikastaro, Maria Luisa Gorrotxategirekin, Internet Ikastaroa Goisystem enpresaren eskutik eta "Latxa ardia eta Idiazabal gaztari buruz" Jose Pablo Larrea eta Nikolas Segurrolaren eskutik, San Martin jaien barnean. Datorren urtarillareko ardo kata ikastaroa eta egur tailaketa ikastaroa antolatu dira, anima zaituz !!

### **AUTOBUSAK**

Euskararen aldeko ekitaldietarako autobusak ere Kultur Etxetik antolatzen ditugu. Aurten Kilometroak Beasainen zirenez, lineako autobusa gomendatu genien herritarrei antolakuntzak hala eskatuta. Nafarroa Oinez, Lodosan burutu zen eta bertarako autobusa bete ez zenez, Lazkaoko San Benito Eskolakoekin bat eginez autobusa jarri ahal izan genuen. Herri Urratserako ere autobusa izan zen urtero bezela.

### **GONBIDAPENA**

Kultur Etxeko Batzordeko kide izan nahi baduzu, zatoz!



## AITXURI HERRI-ESKOLA

### KIROL ZALETASUNA SUSPERTZEKO EKINTZAK

- Eskaladako hastapena: Kirol ezberdinak ezagutzeko kanpaina barruan LH 5. eta 6. mailako ikasleak Beasaingo Antzizar Kiroldegiko Rokodromora joan ziren urte hasieran.

- Autobabesa: Mendi eta itsasoen gaiekin lotuta, Eusko Jaurlaritzako monitore baten gidaritzapean LHko 3 zikloek ikastaroa egin zuten autobabesari buruz otsailen.

- Pelota: 2001eko lehenengo hiru hilabetean 5. mailako ikasleek, inguruko beste ikastetxe batzuekin batera, pelota jardunaldi batean parte hartu zuten.

- Felix Iñurrategi logotipo lehiaketa: Udaberrian 4. mailako ikasleek, Foru Aldundiak antolatutako lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko, zenbat logotipo asmatu zituzten.

- Igeriketa ikastaroa: Irailean hasita eta urriaren 9a arte, LH 1. eta 2. zikloetako ikasleak Majori Polikiroldegira joan ziren ikastaroa egitera.

- Izotz irristaketa: LHko 2. eta 3. zikloetako ikasleak Txuri-Urdinera joan ziren izotz irristaketarekin gozatuz kirol honetan gehiago trebatzeko.

### IRTEERA DIDAKTIKOAK

- Carrefour: LH 3. mailako ikasleak, lehenengo hiruhilabetean Carrefourren izan ziren bertako funtzionamendua ikusteko eta produktuei buruz informazioa jasotzeko.

- Pelikula: 3. eta 4. mailako ikasleak, urte hasieran Beasaingo Usurbe antzokira joan ziren "Baloia" pelikula ikustera eta hau abiapuntu bezala hartu zen, tutoritzan beste zenbait balore lantzeko.

- Donostiako Udaletxea eta Iparlat: Otsailen, 3. eta 4. mailako ikasleak

Donostiara joan ziren. Bertan udaletxea ikusi eta zenbait informazio jasotzeko aukera izan zuten. Ondoren Urrietako Iparlat lantegia bisitatu, esnearen prozesua ikusi eta ikasi zuten.

- Orio eta Donostiara bidaia: Ekainean egin zen irteera didaktiko honetan, HH eta LHko ikasleak, goizez Orion izan ziren bertako kaleak bisitatu eta arratsalde Txiki-Parken.

- Zeraina irteera: Bi urteko ikasleak ere parte hartu zuten urte bukaerako txango honetan, goiz bat Zerainen igaro zutelarik.

- Antzerkia eta musika saioak Seguran eta Ataunen: Bertako ikastetxeek gonbidaturik, han prestatutako antzerkiak eta musika emanaldira joan ginen.

### EUSKAL KULTURA

- San Nikolas: Abenduaren 6an, urtero bezala, LHko 2. eta 3. zikloko ikasleek parte hartu zuten ekintza honetan. Bertan jaso zen dirua, haurrek aurrez erabakitako tokira bidali zen.

- Gabonak: Ohiturari jarraituz, ikastetxeko ikasle guztiak eta nahi zuten gurasoak kantari atera ziren abenduaren 24an.

- Iñauteriak: Otsailaren 23an ospatu zen goizez jokuak eginez eta arratsaldez, herrian zehar desfile mundiala aurrera eramanez. Bukatzeko, Guraso Elkarteak antolatuta txokolatada egon zen herritar guztientzat. Udaletxearen babesarekin, beste zenbait ekintza ere izan ziren herri mailan.

- Euskararen eguna: Eskolako talde guztiek, emanaldi dotorea prestatu zuten Zegamako herritar guztiei gozarazteko.

- Ipuin eta istorio kontaketa: Zegama gaiarekin lotuta, Joxe Alustiza eskolara etorri zen 3. mailako ikasleei aintzinako zenbait ohitura azaltzera.

- Ondarroara irteera: 3. zikloko ikasleek parte hartu zuten irteera honetan zenbait ekintza betez: arrain salmenta ikusi, izotz fabrika eta txalupa bisitatu,...

- Miramoneko zientzia museoa: Urrian 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrak museo honetara joan ziren, bertan daudden aukerak aprobeztatu eta esperimentatu: Txiki-klik, Atapuerka,...

- Zegamako udaletxea: 3. mailako ikasleak herriko udaletxera joan ziren bertako funtzionamendua ikustera.

### IRAKURKETA SUSPERTZEKO EKINTZAK

- Galtzagorri: Urtarrilean Galtzagorrien bisita izan genuen gure ikastetxean. Ehun bat liburu ekarriz, bi monitore etorri ziren ikastetxera irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak eginez.

- Ipuin kontalaria eskolan: "Pep Tort" ipuin kontalariak saio dibertigarria eskaini zien LHko 1, 2, 3 zikloetako ikasleei.

- Korrika: Seguratik pasatzen zela aprobeztatu ikastetxeko LHko 2. eta 3. zikloetako ikasleak bertara joan ziren korrika egitera euskararen alde.

- Kasinoko ipuin lehiaketa: Urtero bezala, ikastetxe osoak parte hartu zuten, Kasinoak antolatzen duen ipuin eta marrazki lehiaketa honetan. Arantzazuko peregrinazio itzuleran sari banaketa egin zen parte hartu zuten guztientzat.

### INGURUGIROA

- Txotxongiloak: CEIDA eta Kultur Etxeko diru laguntzarekin Enkarni



*Aitzuri Herri-Eskolako haurrak baratza lantzen*



*Ipuin eta istorio kontaketa*

Genua etorri zen "Erreka Mari" obra txotxongiloen bidez antzeztera. Bertan HH eta LHko 1 eta 2. zikloko ikasleek izan ziren ikusle.

- Zuhaitz eguna: Zuhaitz eguna aitzakiatzat erabiliz, eskola ondoko eremu batean 5. eta 6. mailetako ikasleek zenbait zuhaitz landatu zituzten Udaletxeko batzuen laguntzarekin.

- Uliara: 5. eta 6. mailetako haurrak espazioa eta itsasoa ezagutzera joan ziren Uliara. Han egindako ekintzen artean: Pasaiaraino mendiz joan, Arrantzale eskolako Planetarioa ikusi, portua ezagutu, arrain lonja ikusi, Donostiako Akuariumera joan,...

- Urdaibai: 3. eta 4. mailetako ikasleek parte hartu zuten irteera honetan zenbait ekintzetan parte hartuz, bertako ekosistema ezagutzeko: San Cristobal auzoko padurak gidarekin aztertu, itsasontziz kanala behatu, erakusketaz antolatu eskolan bertatik ekarritako materialekin,...

- Ekintza horietaz aparte, aurreko urteetan hasitako pintaketarekin jarraitu genuen, landatutako zuhaitz eta landareak zaindu eta hondatutakoak berritu ziren guraso batzuen laguntzarekin. Oria ibaiaren zati baten garbiketa egin genuen.

- Baratzea: Aurten ere baratzerara joanez jarraitu da, eta ekainean feria egun batean erakusketa egin da handik ateratako ekoizpenak erakutsiz.

## HITZALDIAK

- Osasunkume: Osasunkume erakundeak antolatuta 3., 4., 5 eta 6. mailetako ikasleen gurasoentzat, droga-

menpekotasunari buruzko hitzaldi bat egon zen ikastetxean. Bestalde umee-kin ere lana egin da tutoritza garaian osasunkumetik bidalitako kuaderno-txoa erabiliz.

- Elikadura orekatua: "Anorexia eta bulimia"ko hitzaldia antolatu zen 5. eta 6. mailetako ikasle eta gurasoentzat.

## EURO KANPAINA

- Udaletxeak antolatu zuen "euro –astea"n ikastetxeak zenbait ekintzetan parte hartuz: euroaren desfilea antolatu, logotipo lehiaketa, jokuak eta produktuak erosi eta saldu euroa erabiliz.

## IDAZLEAK ESKOLAN

Gure ikastetxean irakurzaletasuna bultzatu nahirik idazleak ikasleekin harremanetan jartzea pentsatu genuen. Horretarako, lehenengo Joxean Ormazabal, herriko idazlearengana jo genuen. 1993-94 ikasturtean beraz, ikastetxera etorri zitzaigun eta bere liburuen berri eman zigun. Aurrez hizkuntzako klaseetan berak idatzitako "Kittano" liburuari buruzko lana egin genuen. Lan horretan, hasieran hipotesiak egin, ondoren liburua atalka landu eta bukatzeko hipotesiak egiaztatu genituen. Hori guztia egin ondoren, idazlea zetorrenarako galdera sorta prestatu zuten ikasleek. Galderak liburuari buruzkoak, idazlearen lan orokorrari buruzkoak eta pertsonalak izan ziren.

Joxean Ormazabalek berak eman zigun ideia, "Idazleen Elkartetik" bideratuta, aurrerantzean beste idazle batzuk ere ekartzeko.

Esperientzia hain ona izan zenez eta ikasleak hain motibatuta ikusi genituenez hurrengo urtean errepikatzea erabaki genuen. Hori dela eta, honela jarraitu dugu urtero idazle desberdin bat eskolara ekarriz.

Aipatu behar ditugu, Patxi Zubizarreta gazte ordiziarra ere gure artean izan genuela. Bere "1984ko uda" liburuari buruzko argibideak emanez. Mariasun Landa idazlea ezagutzeko aukera ere izan zuten gure ikasleek "Errusika" bere arkakuso famatuaren bidaiak ezagutuz. Jesus Mari Olaizola "Txiliku" idazlearekin lehen zikloko ikasleekin elkarrizketa bizi-bizia izan zuten berak idatzitako "Katixa eta Kroko" liburutaz. Gure ikasleak liburutik ihes egindako animaliak ezin aurkituta ibili ziren.

Hurrengo ikasturtean Juan Martin Elexpuru idazlea etorri zen. Berak idatzitako "Pitxirrio zirkus" liburua irakurri eta landu ondoren, liburu horretako pertsonaiek bizi dituzten abenturekin hainbat parre egin genuen. Elexpuru komentatu zigun sortzea oso zaila zela eta bera askotan oinarritzen zela umeek kontatutako istorioetan. Ikasleak bero-bero ibili ziren istorioak asmatzen.

Gure ohituraren berri bazekiten Kontseiluko gurasoek eta duela bi urte Iñake Aramendiak, Guraso Elkarteko Lehendakariak, berak lan egiten zuen udaletxeko alkatea ekartzea posible zela komentatu zigun bilera batean, Iñaki Zubeldia hain zuzen ere. Ideia ona iruditu zitzaigun eta berak martxan jarri zituen kontaktu guztiak: idazleari esan, honen liburuen zerrrenda ekarri eta eguna jarri.

Iñaki Zubeldiaren "Pako belea" eta "Nire aita ezin izan nuen salbatu" libururak aztertu genituen. Emanaldirako Iñake prestatu zitzaigun eta, berak hemengo inork baino hobeto ezagutzen zuenez, idazlearen aurkezpena egin zigun. Pako belea, zegamarren antzera, hitz egiten zuen belea zen, eta honen bihurrikeriak kontatu zizkigun. Handiagoen protagonista beste era batekoa zen, baina arazo bati irtenbidea nola aurkitu zion kontatu zigun.

Aurrerantzean ere idazleak ekartzeko asmoa daukagu, oso interesgarria deritzagulako gure ikasleen irakurzaletasuna suspertzeko eta sendotzeko.



## **TOBERA MUSIKA ESKOLA**

Ez da ez hau urte arrunta izan TOBERA musika eskolarentzat. Urteroko eginkizunei aurre egiten saiatzearekin batera, iazko ikasturtean azterketa eta egokitze lanak izan ziren benetako garrantzia hartu zuten egitekoak. Denboraren poderioz, egoerak ere aldatzen joaten dira eta nahiko hasiera apala izan zuen musika eskola proiektu honek bere hamabostgarren ikasturtea hasi du 2001eko irailean. Hasieratik hona beraz aldatzen joan da eta iazko ikasturtean, 2000-2001ean hain zuzen, izandako hazkuntza eta honetatik ondorioztatzen ziren zenbait aldaketan inguruan berregokitze baten beharra zuela ikusi ondoren, hauek aztertu eta 2001-2002 ikasturtean zenbait berrikuntza abiatu dira irakaskuntzaren antolaketari eta eskolaren funtzionamendu orokorrari dagozkion alderdi garrantzitsuetan.

### **HISTORIA PIXKA BAT**

TOBERA musika eskola 1987-1988an hasi zen bere lehen pausoak ematen. Orduan Zegamako haurrak bakarrik ziren musika eskolaren erabiltzaile. Ondoren 90eko hamarkadaren lehen urteetan Zerain herrira lehenik eta Segura herrira ondoren zabaldu zen musika eskola eta TOBERA izena hartu, gaur egun duena alegia, ordurarte Zegamako musika eskola baitzuen izena. Benetan garrantzitsutzat jo daiteke hiru herrien arteko proiektu bateratua izatea, honek egiten baitu TOBERA elkarte musika eskola indartsuago eta osoagoa, hiru herrietako biztanleriari musika mundua ezagutu, landu eta gozatzeko aukera ematearekin batera.

Gaur egun berrehun eta berrogeita hamar matrikula inguru daude TOBERA musika eskolan, hauetatik 165 matrikula Zegamakoak. Ikasleak guztira ehun eta berrogeita hamar dira. Eta Zegaman egun ondorengo ikasketa musikalak bideratzen ditu TOBERA musika



*Tobera Musika Eskolako Dantza Taldea*

eskolak: pianoa, akordeoia, trikitixa, panderoa, klarineta, saxofoia, txistua, kitarra, trikitixa, panderoa eta hizkuntza musikala. Hauekin batera ere dantza irakasten da, musika eskolen legeak ekimenean hau ere erakunde hauen baren kokatzen baitu.

### **2001 URTEAN BURUTUTAKO EKINTZAK**

Urteari hasiera emanez, erregeen kabalgata antolatu eta gauzatu zuen Zegaman TOBERA musika eskolak, urtarrilaren 5ean, errege bezpera egunez hain zuzen.

Bestalde, ondorengo ekintzak egin dira Zegaman urtean zehar:

- 2001eko martxoaren 28an, Zegamako Kultur Etxean, akordeoiko ikasleen entzunaldia
- Martxoaren 29an, pianoko ikasleen entzunaldia, Zegamako Kultur Etxean
- Trikitixa eta pandero entzunaldia, 2001eko apirilaren 4ean, Kultur Etxean
- Ekainaren 12an, txistuko ikasleen entzunaldia, Kultur Etxean

• Zegamako eliza nagusian, 2001eko ekainaren 16an, kurtso bukaerako kontzertua

• Santa Zeziliaren omenezko kontzertua, 2001eko azaroaren 24an, San Martin elizan

Hauekin batera, asko dira jorratutako lanak eta asmoak, azken batean eguneroko lanaren ondorioz burutu ahal baitira goian azalduko eskaintza bereziak. Nabarmentzekoa da bestalde, entzunaldi eta kontzertu hauetan ikasleek orokorrean azaltzen duten maila eta jarrera. Baiezta daiteke inongo arriskurik gabe izango dela Zegaman doinu eta erritmo ugari datozen urteetan ere.

Bukatzeko ekimen honetan parte hartzen duten guztiei gure eskerrona agertu nahi diegu ikasle, irakasle, guraso nahiz Udalei, denon artean erakitzen eta eusten ari garen TOBERA musika eskola bezalako zerbitzu eta kultur jarduera bat gure artean izatea denon lorpena baita.



*Txistu audizioa Kultur Etxean*



## GOGOETA ESTRATEGIKOTIK ZEASMA: BIHARKO ZEGAMARA

Zeasma: Biharko Zegama Taldea, zenbait zegamarrek osatutako hausnarketa taldea da. Bertan 1996an egindako Gogoeta Estrategikoan oinarrituta, ezarritako zenbait gai jorratu eta beraiei buruzko hausnarketak egiten dira.

Haserako urte haietan jendearen partehartzea sendoagoa bazen ere, elkartu garenok hainbat puntu hausnartu ditugu.

2000ko abenduaren 14an "Mentalitatea eta giro politikoa hobetu" gaitzat hartuta hitzaldia izan genuen Kultur-Etxean. Gai hau 2000. urterako aurrigutsu genituen lau hitzaldietatik azkena zen eta urtekaria inprentara eraman ondoren egin zenez, aurtengoan eman dugu bertako berri.

Juanfer Garciak, bera partaide den Beasaingo talde baten berri eman zuen, bertan alderdi politiko desberdi-

netako pertsonak bildu eta elkar errespetatuz elkarri entzuten saiatzen diren ekimenenaren berri eman zuen. Talde honen helburua arazo politiko eta hortik sortu diren egoera desberdinak mahai gainean jarriz konponbideak bilatzea da eta herrigintza lantzea.

Patxi Meabek Franko hil ondorengo egoera politikoa eta gaur egungoa konparatu zituen. Bi garaietako egoera politikoak aztertu eta alderatu zituen. Hitzaldi bikaina izan zen eta erreflexiorako bideak finkatu zituen.

Bestalde 2001eko otsailaren 9an egin zen bileran, aurrez egina zegoen Plan Estrategikoa berriatzi behar zela erabaki zen; izan ere bertan egingai ikusten ziren gai asko Udalak burututa zitueldako edota egoera aldatuta dagoelako, berridazketarekin ekintza

eta egitasmoen egungo egoera berreskuratuz eta berriro ere hausnartuz.

Berridazketa honi heldu aurretik, 2000. urteko gure lanaren berrikuskapen bat egin da eta azpimarratu da, Zeasma: Biharko Zegamaren Taldeak antolaturiko hitzaldietara herritar gutxi erakarri dugula eta, 2001eko helburutzat ipini da jendearen partehartze hau areagotzea.

Lerro hauen bidez herritarrei gonbitea luzatzen zaie, Zegamaren etorkizunari buruz hausnarketa eta elkarrizketa foro honetan parte hartzeko. Bilerak hilean behin izaten dira eta hileroko kultur ekintzetako liburuxkan azaltzen bada ere bilera eguna eta ordua, taldekide guztiei deialdi pertsonala egiten zaie. Anima zaitetz !!!

## XABIER ARAKAMA ZEGAMAR MUSIKARIA MUNDUAN ZEHAR



Zegamarrok aspaldidanik ezagutu ditugu Arakama anai-arrebak trikitixa joz, bai herrian eta baita inguruko hainbat herrietan ere. Xabier Arakamak egun musika du ogibide eta trikitixa lagun, Estatu Batu, Holanda, Suiza eta Austrian ere ibili da musikari eta ikastaroak ematen; horrez gain Euskal Herriko hainbat taldeetan jotzen du eta musika egiten ere trebea dugu. Besteak beste Zarauzko

ARAKAJUN Taldean jotzen du eta 2000. urteko Nafarroa Oinezeko musikaren egilea dugu berau TRIKIZIO taldearen abestua; bestalde "Tierra" izeneko laburmetraiaren soinu banda ere egin du eta azken lorpena, AEKantuz Diskan, Xabier Leteren "Itsasoan Urak Handi" kantu zaharra grabatu du TRIKIZIO taldearekin.

Zorionak beraz Xabierrri zegamarron izenean!!!

## 100 URTE, JESUS MERCHAN MIGUELEK



Joan zen maiatzaren 23an, 100 urte bete zituen. Jaiotzez Salamankarra eta 1980 ezkerko Zegaman bizi den honek. Bere 100. urtebetetze egunean, omenalditxo bat egin zioten, bertan izan zirelarik Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari, Zegamako Alkatea eta Jubilatu Elkarteko Lehendakaria ere. Jesusek, zaletasun ugari omen ditu, baina gustukoenak, erretzea, bakeroen filmak ikustea, tutean jolastea, eta abar futbola eta pilota partiduak ikustea. Zorionak, eta urte askotarako!!!



## ZEGAMAKO ORKATZ ABESBATZA

### ORKATZ TXIKI ABESBATZA, GURE KABI ETA HARROBI

Familia guztietan gertatzen den bezala ia konturatu gabe gure txikia koxkortu zaigu. 1981eko azaroan jaio zen gure haurren eta gaztetxoaren abesbatza, urte horretako abenduaren 8an, Sortzez Garbiaren egunez parrokiako meza nagusian lehen aldiz abestu zuelarik. Beraz aurtengoan hogeitau urte bete ditu. Bere ibilbide honetan zenbait lagun izan eta bildu dituen bere inguruan! Berrehun zegamar inguru aritu gara kantuan bere baitan. Kantuan eta harremanetan, lanean eta jolasean, elkarrekin proiektu bateratu batean arituz. Bada zerbait!

Orkatz Txiki beti izan da gure elkartearentzat egiteko kuttunena. Bera baita gure kabi eta harrobi. Berarengandik sortu zen Orkatz abesbatza 1987an eta berak bultzatu du ordutik hona ere, zenbait abeslari bertan prestatu eta ahots nahasien taldera igaro delarik. Beraz, hogeigarren urteurren honek duen garrantzia dela eta beronen prestaketa izan da helburu nagusia Orkatz Txiki taldearentzat bukatzen ari garen urte honetan.

### "ADI, SORKARI" ORKATZ TXIKI ABESBATZAREN PROIEKTUA

Horrela deitu diogu ipuin musikal bat egiteko hartu dugun asmoari. Abestaldekidetik bertan parte hartze aktiboa izan dezaten nahi da, hau da abeste eta gauzatzeko lanetan aritzearekin batera sortze lanetan ere parte har dezaten, hortik beraz proiektuaren izena. Hone-tarako aurtengoan nagusiki bi sortzaileren laguntza izan dugu. Batetik, ipuinaren testua abeslariarekin landu eta taxutzerakoan zegamar idazlea eta



*Orkatz-Txiki abesbatzako kideak*

gaztetxoentzako literaturan aritua dugun Joxan Ormazabalen lankidetzak izan dugu. Berak idatzi du "Txori meteorologoa" izeneko ipuina eta berau izango da Josu Elberdin musikagile pasaitarrak doinuz jantziko duen testua. Ipuin musikal hau 2002 urtearen barruan estrainetzeko asmoa dugu, honetarako antzerki munduko aditu baten laguntzaz abestearekin batera eszenatokitratzea ere era berezian prestatuz.

Asmo nagusi horrekin batera 2001eko abendutik 2002ko abendura ospatuko den hogeigarren urteurren honetan beste zenbait ekintza ere pentsatzen eta prestatzen ari gara (erakusketa, Orkatz Txikiko abeslari ohien topaketa eta abar) eta izango duzue guzti horren berri, beraz hemendik dagoeneko gure gonbidapena luzatzen dizuegu, ekimen hauetan gogotsu parte har dezazuen.

### ORKATZ TXIKI LANEAN HAUNDI

Baina aurtengora berriro itzuliz, lan ugaria bete dute Orkatz Txikiko partaideek 2001ean ere. Laburki aipatzeko besteriko tarterik ez dugunez, bihoaz egindakoak ondoren:

- Urtarrilaren 1ean Urteberriko meza nagusian abestu zuen parrokiaren.
- Hilabete horretan, hilak 6 Errege egunez, XVI. Eguberri Jaialdian ere parte hartu zuen Orkatzekin batera.
- Martxoaren 10 eta 11n, Barriako aterpetxean lan asteburu bat jorratu zuen. Bertan Joxan Ormazabalekin ipuinaren lanketa egin zuten eta Inma Arroyo zuzendari eta irakasle gasteiztarrekin ere lan egin zuten. Bera izango

dute aholkulari hurrengo urtean ere aldizkako lanaldi trinko hauetan.

- Apirilaren 4ean Legorretan eman zuten kontzertu bat, jendearen txaloak eureganatuz.
  - Apirilaren 12an Ostegun Santuz Zegamako parrokiaren meza nagusian abestu zuten.
  - Apirilaren 21ean Mutrikan izan ziren, bertako Madalen abesbatzarekin batera emanaldi bikain bat osatuz.
  - Ekainaren 2an, Zegaman V. Haur Abesbatzen Jaialdia antolatu eta bertara gonbidatutako Mutriku Madalen abesbatza eta Urretxu-Zumarragako Goiargi Txiki eta Goiargi Txikitxoak abesbatzekin kantatu zuten.
  - Ekainaren 10ean Zegamako parrokiaren Lehen Jaunartzeko mezan abestu zuten.
  - Ekainaren 29 eta 30ean Lizarran lanaldi trinkoa burutu eta denboraldiari bukaera eman zioten.
  - Azaroaren 24ean Zegaman Santa Zezilia kontzertua.
  - Abenduaren 15ean Zegaman XVII. Eguberri Jaialdia.
  - Abenduaren 21ean Urretxun Gabonetako kontzertua.
  - Abenduaren 26ean Segurako Zaharren egoitzera bisita eta kantaldia.
- Ezbairik gabe, urtea ongi borobildu dute. Eta datorrena ere arestian aipatu bezala proiektu berriz bete ageri da. Badute bai zereginik Leire Lozanoren zuzendaritzapean diharduten hogeitabost neska-mutilek. Jaso bezate Orkatzkide guztion txalo beroena. Zuetaz harro gaude!





Orkatz  
Abesbatzak  
antolatutako  
Kantu Festa

## ORKATZ ABESBATZA, EUROPARA BIDAIA

Urteko azalpenaren tarterik haundiena Orkatz Txiki abesbatzak hartu badigu ere, merezitako tarte gainera, Orkatz ahots nahasi abesbatzarentzat ere urte ona izan denik ezin uka. Gogor eman diogu lanari, Migel Zeberio zuzendari tolosarraren eskutik eta Izaskun Arruabarrena ahots teknika irakaslearen laguntzaz. Egindako lana benetan atzematen da eta honela adierazi digute aurtengoan entzun gaituzten etxeko herritar nahiz kanpotar guztiek. Bide onetik goaz eta horretan sakontzea dugu helburu. Motz-motz bada ere ondorengo ekintzak aipatuko ditugu aurtengoan burutu-takoetatik aipagarrienak bezala:

- Batzar Orokorra, 2001eko urtarrilaren 13an. Bertan erabakitzen eta jasotzen dira elkartearen asmo nagusienak eta urte honetako proiektu artistikoak

- Martxoaren 31n, Ordiziako Santa Ana abesbatzarekin batera, Zegaman koru musika kontzertua.

- Maiatzaren 26ean, Donostiako Elizbarutiak gonbidaturik Lourdesa bisita. Bertan egunean zehar goizeko nahiz arratsaldeko meza nagusietan eta gaixoen ekitaldi nagusian koru ofiziala bezala parte hartzea Juan Mari Uriarte gotzaina buru zuten elizkizunetan.

Eguerdiretan gaixoei bisita eta kantu emanaldia. Egun neketsua baina polita eta gizakoitasunez bete!

- Uztailaren 15a, Zegaman Adinekoen eguna, meza nagusian kantatzea.

- Uztailaren 28tik abuztuaren 12ra Europara bidaia (Milan, Innsbruck, Salzburgo, Viena, Praga, Nurenberg, Paris). Talde harremanetarako aukera ezin hobea, musikaren erreinua diren hiriak bisitatzea eta beraietan abestea... esperientzi bikaina.

- Irailaren 16an Zerainen Adinekoen eguna, meza abestua eta ondorengo kontzertua

- Urriaren 12tik 14ra Aragoiko Pirineoko herrietan kontzertuak: Torreciudad eta Castejón de Sos.

- Azaroaren 24ean Zegaman Santa Zezilia kontzertua.

- Abenduaren 15ean, Zegaman XVII. Eguberri Jaialdia.

- Abenduaren 22an, Beasaingo Zaharren egoitzara urteroko bisita eta kantalditxoa

- Abenduaren 25ean, Eguberri eguneko meza nagusia parrokan

Ez dira egindako guztiak azaltzen baina bai adierazkorrenak. Urtea benetan berezia egin duena dudarik gabe, udan Europara egindako irteera izan da.

Bidai hau prestatzeak eman digu bai nahiko lan eta buruhauste, baina azkenean denak merezi izan du benetan esperientzia ezin hobea izan baita: Innsbruckeko plazan emandako kantaldia, Vienako katedralean eginiko kantaldia, Salzburgo ondoko herrian laku baten altzoan osatutako kontzertua arratsalde paregabe hartan... bizitza osorako oroitzapen ezin hobek dira.

Bestalde aurtengoan ere urteroko ekintza bereziak aurrera eramaten saiatu gara: otsailaren 4ean Santa Ageda bezpera eguneko kantu eskeko irteera, VIII. Kantu Festa iraileko azken larunbatean, hilak 29, kantuaren inguruko herri festa gauzatuz eta Olentzeroari harrera eta honekin batera kantu eskea abenduaren 24ean. Aipatzekoa da ekintza hauek guztietan herritarren parte hartzea, honek egiten baititu arrakastatsuak, guk antolaketara lana egiten baitugu nagusiki. Horrela jarraitzeko dei bat luzatu nahi dizuegu herritar guztioi kantu eske ohitura hauek gordetzea eta urtero biziberritzea denon eginkizun baita.

Izan dira beste aipagarri batzuk ere, urtean zehar abestutako ezkontzak (ezin nabarmendu gabe utzi uztailaren 22an Mila Alustiza eta Jabier Azurmendi, gure "Txato", lagunen zilarrezko ezkontza ospaketa, zein egun maitagarria eman genuen elkarrekin!) baina honetan utzi beharko dugu aurtengoa, urtea bezalaxe urtekari honetako gure tarte amaitzen ari baita. Beraz, zegamar lagun, badakizu, kantua gustatzen bazaizu eta kantuz bizi nahi baduzu zatoz gurekin batera zure gogo horiek asetzerara. Datorren urtean zeu ere gure ibilbide honetako partaide izango zara eta orri hauetan Orkatz elkartearen urratsak irakurriz gain gogoratuz, berriz gozatzeko aukera izango duzu. Ordurarte eta beti bezala beraz gure atea zabalik daude, izan ongi!



Orkatz abesbatza Europan

## TXOMIN LANDA (SAKRISTAUA)

*"1957an hasi nintzen Sakristau lanetan"*



*"...Don Joxe Antoniok abisua bidali zidan berarekin egoteko, lehenengo bururatu zitzaidan gauza okerren bat egin izango nuela horrelako abisu bat izateko eta ez joatea erabaki nuen..."*

*"Fedeari ez zaio gaur egun bizkarrik ematen, baizik eta jendea nagikeriz alboratzen da"*

*G.- Non jaio zinen Txomin?*

Ni Matxinbentan jaio nintzen, gu jaio ginen partea Azpeitiko auzokoa da. Matxinbentak bost herritara pertenezizten du, txikia da baina ugaria. Gure baserria gaur egun ez dago zutik, erori egin zen.

*G.- Zegamara zer dela eta etorri zinen?*

1944ko otsailaren 20an etorri nintzen Zegamara gerora nere koinatua izango zen Demetrierekin lan egitera,

hark laguntzailea behar zuela eta; hamalau urtean lanean aritu nintzen koinatuarekin lehenik, mendi lanetan batez ere, aspertu bat hartu arte, eta gero Papeleran sartu nintzen. Dalia arreba, 1942an etorri zen. Egurtzeko Mercedes ezkondu behar zuen eta haren despedida Rubionean izan zen eta horrelaxe etorri ginen. Ezkondu 1958an egin nintzen.

*G.- Zenbat senide zineten?*

Sei senide ginen eta hiru bizi gara. Gazteena umetan hil zen bi edo hiru

urte zituela. Bizi garenetatik bi Zegaman bizi gara eta bestea Donostian, honek gerratean hanka galdu zuen eta elbarriturik dago, 88 urte ditu. Aspal-dikoak gera gu.

*G.- Sakristau lanetan noiz hasi zinen?*

Papeleran bi urte edo lanean neramatzala, Don Jose Antoniok deitu zidan, arratsalde batean, nik garai hartan, koruan abesten nuen elizan, zuzendari Euxebio Ormazabal genuen. Ordurako elizan bastante sartua nengoen beraz, hori dela eta, Don Jose Antoniok abisua bidali zidan berarekin egoteko, ez naiz gogoratzen zein izan zen abisua eman zidana. Lehenengo bururatu zitzaidana, okerren bat egin izango nuela izan zen, horrelako abisua izateko, eta erabaki nuen ez joatea, beldurtuta edo. Hurrengo egunean berriro abisatu zidaten, Don Jose Antonioren gana joateko eta orduan joan egin nintzen.

Berak zera esan zidan: - Galdera hauxe egiteagatik deitu dizut: - Nahi al duzu Sakristau izan? Hori guztia, ezkondu aurreko urtean izango zen 1957an eta gaur arte, urte asko. Nik egungo parrokoa den Pellori komentatu izan diot uzteko kontua baina, ez du entzun ere egin nahi. Txorkatilako erreumarekin eta ez naiz oso ondo ibiltzen batzutan baino, jarraitu egiten dut.

*G.- Jubilatuta arte Papeleran ibili al zinen?*

Bai, jubilatuta artean bai. Papelera eta Inprentaren artean 300 batetik gora ibiliko ginen lanean.

*G.- Zein lan egiten zenuen?*

Denetik, azkeneko lau edo sei urteetan Salan ibili nintzen.

*G.- Zure aurretik Sakristau zein izan zen?*

Don Jose Andres zen. Don Jose Andres Gorrotxategi eta bere anaia Idiazabala joan ziren garaian niri deitu zidaten. Ni baino lehen deitutakorik bazegoen, baino inork ezin. Ordaindutako lanak lehenago betetzen dira borondatezko hauek baino.

*G.- Eta zuk maixu zein izan zenuen, nork erakutsi zizun lan horietan?*

Nik aurretik banekien elizako martxa, monagilo izan bainintzen. Niri gehien Introbitoak ikastea kostatu zitzaidan.

*G.- Zer dira Introbitoak?*

Dena Latinez izaten zen, Mezea orduan monagiloek laguntzen zuten, latinez ematen zen eta latinari erantzun behar zenion, eta hari esaten zitzaion Introbito. Zuek horrelakorik ez duzue ezagutu, asko aldatu da hori. Monagilo garaian, mutikoa ni eta aita oso gazte hil zitzaigun ume ginanean eta ama hiru ume oso txikirekin gelditu zen. Kale inguruan bizi ginen eta monagiloak behar zirenez, monagilo sartu nintzen, baina horretarako Introbitoak ikasi behar latinez, eta ondo kostata ikasi nituen. Orain ahaztu ere banago, inoiz hitz batzuk etortzen zaizkit baina.

1957an hasi nintzen sakristau lanean, Zegamakoak ziren bi mutiko Seminarioan zebiltzan (garai hartan gaur baino ugariago joaten ziren Seminarioa), Zubizarreta anaiak, Joxe eta Andres. Don Jose Antoniori komentatu nion, monagilo ibilitakoa nintzela baina ahaztu ere banengoela eta zer egingo genuen, orduan berak esan zidan lasai egoteko Joxe Zubizarretak erakutsiko zidala sakristiko zirrikituak ezagutzen. Joxe bera mutikoa zen artean 12-13 urte. Horrelaxe hasi nintzen.

*G.- Sakristau lanaren barruan, kanpai jotzea ere tokatzen zaizu? Orain elektrikoak daude baina, lehen zeuk jotzen zeniten, koniatu pixka bat.*

Lehen kanpaiak denak, eskuz jotzen ziren, eta oso musika polita jotzen genuen, maiatzan 3tik irailaren 14 arte Santi Kurutzetatik Santi Kurutzetara. Egunean hiru aldiz, Maiñeak goizean, goizeko seietan, meza 6:30etan izaten zen, eguerdian 12:00etan eta iluntzean, ilunbistan. Orduan kanpai asko jotzen ziren oraingo aldean. Gaur egun, Hil kanpaiak, meza aurreko kanpaiak, eguerdian 12:00takoak eta larunbatetan edo jai bezperatan eguerdiko 14:00tan, jaiaren anuntzio modura, besterik ez da jotzen.

*G.- Lehen kanpai bereziren batzuk egongo ziren, ezta?*

Bai. Lehen komentatutakoak, Konjuro kanpaiak esaten zitzairen, maitzaren 3tik irailaren 14ra; orain jotzen direnak denak. Lehen ume gehiago hiltzen zen eta orduan kanpai berezi batzuk jotzen ziren, torreatzen puntaraino igo behar izaten nuen, kanpaiaren mingaina hartu eta harekin jotzen nuen kan, kan, kan, kan... Aingeru kanpaiak



*Txomin Landa San Martin Parrokiaren aurrean*

deitzen genien. Orain ez da jotzen, zorionez hil ere ez dira egiten.

Lehen kanpantorreraino igo eta jotzen ziren, gaur egun errezago jotzen dira, botoi bati eman eta kitto.

*G.- Orduro jotzen ziren kanpaiak eskuz jotzen ziren edo mekanikoa zen?*

Erlojuak eta kanpaiak, kontrapisuen bitartez lan egiten zuten. Aurrez kontrapisuak martxan jarri behar izaten ziren eskuz, pisuak goraka eramanez eta hiru bat egunetarako iraupena izaten zuten. Kontrapisuak oso luzeak ziren, behe-raino jeisten ziren eta martxan jartzeko kanpantorrera igo behar izaten zen Zumalakarregiren mausoleoaren ondoren dagoen atetik gora igota. Orduan astean hiru aldiz igo behar izaten nituen karakol eskailera guztiak, eta esan behar dut, asko direla. Maiatzaren 3tik irailaren 14rartekoan berriz, egunean hiru aldiz jo behar izaten nituen baina ez goitik, behetik baizik.

Gaur egun erloju zaharra geldituta dago, orain mekanikoki egiten du lana.

*G.- Papelerako lanarekin nola konbinatzen zenuen kanpai jotzearena?*

Goizean zortzietarako jotzen nuen lanera sartu aurretik, eguerdian hama-bietan lanetik irten genuenean eta iluntzeko berriz seietan, lanaren ondoren.

*G.- Sutea dagoenean ere kanpai berezia jotzen da, ezta?*

Bai, oraindik ere jotzen da, hauei su-kanpaiak deitzen zaie eta eskuz jotzen dira oraindik ere. Badaude kanpai batzuk oraindik eskuz jotzen direnak, bi

kanpai elektrizitatearekin daude baino beste bi handi fijo daude, hauek ez dago mugitzerik, hauek eskuz jotzen dira, adibidez su-kanpaiak, jai bezperatan, jai handixamarretan.

*G.- Fijo horiek nola jotzen dira?*

Sokaz. Mingainetik soka jarri eta sokari eraginez jotzen dira. Nekea dexentea dauka, musika atera behar baitiozu eta horrek besoak asko nekarazten ditu.

*G.- Zuk ere norbaiti erakutsi beharko diozu, ezta Txomin?*

Bai. Borondatea duen norbait balego erakutsiko nioke nik baina ez da inor prestatzen eta!

*G.- Hildakoren bat dagoenean kanpai ezberdinak izaten dira, baina badute beste berezitasunik?*

Bai, hamabi toke ematen dira hildakoa emakumea denean eta hamahiru toke hildakoa gizonezkoa denean. Lehen irratirik eta egunkaririk ez zen egoten eta nolabait bereiztu behar zen, jendea horrela enteratzen zen. Kanpai hauek hileta dagoen egun berean goizez jotzen dira, gaur egun ere jotzen jarraitzen dugu eta modu berean.

*G.- Ba al dago kanpai jotze moduren bat lehen jotzen zenik eta gaur egun jotzen ez denik?*

Gaur egun haurren bat hilko balitz ez litzateke joko lehen bezela, bueltako bat emango litzateke eta gainera elektrizitatearekin joko litzateke. Lehen meza hasieran kanpai txiki bat jotzen zen Kanpatxo deitzen zitzaion eta tin, tin,

tin... jotzen zen, Kanpaitxo Sakristiaren parean goian dagoena da, meza hasten zela abisatzen zuen, gaur egun ez da jotzen, bueltakoa jotzen da mekanikoki. Lehen kanpai asko jotzen zen, gaur egun baino askoz ere gehiago.

*G.- Kanpaia jotzeaz gain, elizaren zerbitzu lanetan, ixilean baino, lan asko egina zara Txomin, zer gehiago egin izan duzu?*

Sakristau lana, jantziak prestatu, lehen gaurko aldean, Kasuak ezberdinak ziren, horiek prestatu, Ogiak prestatu, apaizari prestaketan lagundu eta ondoren Mezan lagundu, beharra dagoen lekuan egon, Intentsuaren Intzesarioa manejatu...

Ikusten ez den lan asko egiten da.

*G.- Bitxikeriren batez gogoratzen al zara?*

Ezkontza asko izaten zen garai hartan, herriko ezkontza guztiak bertan egiten ziren. Orduan prestaketak handiagoak egin behar izaten ziren, eliza txukun eta ongi egon behar izaten zuen. Kanpaiak ere, bereziak izaten ziren ezkontza zela eta, eta eskuz jotzen ziren kanpai mordo bat, festa zela eta.

*G.- Apaizak ere ezagutuko zenituen, konta iezaiguzu zeinetaz gogoratzen zaren?*

Parrokoa Don Jose Antonio, Don Andres Oiarbide, Don Juan, Don Jose Andres, Don Inazio (nahiko denbora gutxi egin zuen Zegaman), Don Lorenzo, Don Jabier Lezeta Ormazabal, Don Jose Uranga, Don Clemente, Iñaki Bereziartua eta Pello Urriolabeitia.

*G.- Sermolaririk onena zein?*

Orduan pulpitora igotzen ziren hitzaldia egitera, Don Andres askotan igotzen zen eta Don Jose Antonio ere bai, hauek izan ziren hitzaldia ondoantxen ematen zutenak, hizlari onak ziren.

*G.- Zure lanerako eraginik handiena izan duen apaiza, zein izan da?*

Nik harreman ona gehienekin izan dut, baino gehiena Don Jose Antoniorenkin izan dut, azken aldian Don Lorentzokin ere oso ondo. Don Andres zaharra zen 93 urtekin hil zen Zegaman, gero Don Jose Antonio egin zuten parroko.

*G.- Obrak ere egin izan dira elizan?*

Bai, Don Jose Antonioren garaian bidrierak jarri ziren leihoetan, lehen leiho korriente batzuk ziren, sermoia egin behar zutenean kortinak jartzen ziren, sakristauak isten zituen, nire aurreko sakristauak egiten zituen lan

horiek, nik ez dut ezagutu hori. Ni bidrierak jartzen aritu nintzen.

Obrak berriz, Iñaki Bereziartuaren garaian hasi ziren, teilatua konpondu, pintatu, erretaula txukundu, aulkiak jarri lehengo silak kenduta, zorua ere berritu zen... Gaur egun Pellokin teilatua guztia konpondu da, Aizkorriko gurutzea elizan jarri da eta horretarako lekua egokitu da eta beste zenbait proiektu ere badaude.

*G.- Lehen elizaren antolamentuan gizonetako alde batean eta emakumeetako bestean esertzen ziren eta silak ere beste era batera zeuden antolaturik, ezta?*

Bai, gizonetako guztiak aulkitan edo koruan egoten ziren, emakumeak ezin zuten pentsatu ere egin aulkitan esertzea. Emakumeak beti silatan esertzen ziren. Aulkiak gurutzea bitartean egoten ziren. Gaur egun hori ere majo aldatu da eta eskerrak.

*G.- Garai batetan sila ondotan argizaiolak egoten ziren, ezta?*

Bai, su baten egoten zen orduan eliza, ez da urte asko hau Zegaman ikusten zela. Hildakoari urte beteant behintzat argizaiola ipintzen zitzaion.

Askotan pentsatu izan dut, erretzeko arrisku handia egoten zela orduan, ez dakit nola ez zen eliza gehiago erretzen, izugarriko arriskua ikusten nuen argizaiolekin. Eliza osoa argi batean egoten zen eta zorua egurrezkoa zegoen, nahikoa zen zorua piska bat su hartzea, eliza osoa erretzeko, baina ez zen sekula ere ezer gertatu. Berritze obrak egin zirenean kendu ziren argizaiola guztiak, orduan aldare azpian, eskailera ondoan mahai txiki bat kandela batekin jarri zen eta listo.

*G.- Eta Konfesionariak?*

Bostetik lau kendu egin zituzten. Don Lorentzo bizi zen artean egoten ziren baina, obrekin kendu egin ziren. Don Lorentzok erabiltzen zuena oraindik Elizan dago. Alde horretan bi zeuden jarraian, eta beste biak Pontaren bi aldeetara zeuden. Pontea ere aldatu dago gaur egun aurrean dago baina lehen atzean egoten zen. Denera bost zeuden.

Aldarea ere lehen itxirik zegoen balkoi moduko itxitura batekin, hura ere obretan aldatu zen.

*G.- Meza guztia latinez izaten al zen?*

Ez, sermoiak euskaraz eta pulpitotik, inongo bozgorailurik gabe izaten ziren gainera eta meza garaian apaiza bizkarez egoten zen. Bestela, mezak ez dira

asko aldatu, gehienbat estiloa aldatu da, erosotasuna handiagoa dago orain, baina esentzian berdin jarraitzen du.

*G.- Noiz arte jarraituko duzu Sakristau lanetan?*

Egia esatea nahi baduzu, nik jadanik 80 urte ditut eta beste bati pasoa ematen hasteko garaian nagoela geroz eta garbiago dut. Nire ustez, ez dut denbora askoz gehiagoan lan honetan jarraituko. Orain negua ere badator eta geroz eta gogorragoa egiten zait ardura hori eramatea. Ordezkoa bilatzeko ahaleginak egin beharko ditut.

*G.- Badakit, Arantzazuko Ama Birjinarengan fede handia duzula, eta Arantzazura urtero bederatziurrena egitea joaten zarela. Zenbat urte dararatzazu?*

Gure Arantzazurekiko erlazio oso zaharra da, Pakita nire emaztea eta bere ahizpa Romana asko joaten ziren Arantzazuko Goiko Bentara jostera, eta aurretik ere erlazioa handia izan dugu betitik, hau da, gure gurasoak ere Arantzazura asko joaten ziren eta beti Goiko Bentara inguratzen ziren bertako familiakoak balira bezela baitira. Beraiek ere Zegamara, gure etxera, San Martin egunean etortzen dira eta erlazio handia dugu.

Esan behar dut, Zegamako herriak beti eduki duela ohitura, iraila eta urriko hilabetetan Arantzazura joateko. Garai batean gainera, larunbatean oinez joan eta Arantzazun gaua egin ondoren igandean bueltatzen zen mendiz Zegamara. Hori jende askok egiten zuen, eta baita geuk ere.

Bederatziurrena egiten, badaramagu ia 26 urte, urtero urtero, bertan ospakizun guztietan parte hartzen dugu, guretzat oso garrantzizkoa da eta urtero oportetara joatea bezela hartzen dugu.

*G.- Zer esango zenieke gaur egun fedeari bizkar emanda bizi direnei edo sinsimen bila baina ezin aurkituta dabilzenei?*

Nik esango nuke fedeari ez zaiola gaur egun ere bizkarrik ematen, gehiago esango nuke, nagikeria dagoela gaur egun. Garbi ikusten da, hiletetan izugarriko jendetza egoten da, iganderokoan berriz asko bajatzen da. Nire ustez nagikeria da, errazegi uzten zaio edozein obligaziori.

Nire ustez, nagikeria guztiak utzi eta elizari gehiago jarraitu beharko litzaioke, fededunontzat, Jainkoari jarraitzeak lehendabiziko lana izan behar bailuke.

## ZEGAMAKO EHIZTARIEN ELKARTEA

### BELEA ELKARTEA

2001. urtea ehiz urte ona izan da gure mendietan. Postu askotan uso dextente bota da eta horrek datorren ehiz denboraldirako ere ilusioa eta esperantza ematen digu.

Aurten Zegamari egokitu zaizkion ehizpostuak nahiko onak izan dira:

Parajea	Postua	Parajea	Postua
APOTA	2	APOTA	8
APOTA	10	LARREBIL	5
ITURGAIN	1	ARATZ	1
ARATZ	3	PEAZULOETA	6
LEOTARAN	2	LEOTARAN	4
LEOTARAN	6		

Bestalde, hona hemen Partzuergoan egindako enkante publikoan gehien egin duten postuen zerrenda:

Parajea	Postua	Enkantea
APOTA	13	1.410.000 pzta
APOTA	11	1.201.000 pzta
APOTA	9	1.037.222 pzta
APOTA	15	1.001.111 pzta
AGIÑARAN	1	941.300 pzta
AGIÑARAN	5	916.605 pzta
LARREBIL	6	866.605 pzta

## JOXE MARI ESNAOLA CATALUNYAN

José Mari Esnaola (Ezpaleo baserrikoa) aurtengoan Catalunyan famatua egin zaigu. Hain zuzen ere, Urriaren 21ean Seu d'Urgellen aizkoran erakustaldi bikaina egin zuen, bertan antolatzen den " Pirineotako azoka" ikusgarrian. Izandako arrakastak eragin zuen Seu d'Urgelletik 12 Kmra dagoen Organya (Lleida) herritik azaroaren 25erako berriro ere deitzea. Ikus daitekeenez Jose Mari Esnaola ezaguna egiten ari da Catalunyan.



Jose Mari Esnaola  
aizkoran



Pako Irastorza  
Olaberri  
Elkarteko kidea  
Toka Txapelketako  
saria ematen

## OLABERRI ELKARTEA

Santa Kruz Egunean, maiatzaren 3an, ohiturari eutsiz Meza izan genuen Olaberriko Santa Kruz Ermitan. Bestalde aurten ere San Bartolome Jailetako toka txapelketa antolatzea gure gain joan da eta hona hemen aurtengo irabazlea:

Herriko irabazlea: Joakin Irastorza Mendizabal

## **GURASO ELKARTEA**

**Guraso Elkarteak Aitxuri Herri Eskolako haurren guraso guztiok osatzen dugun Elkarteak da. Gure egitekoa gure seme-alaben heziketan laguntzea da.**

**Helburu honekin 2001. urtean burutu ditugun ekintzetako batzuk hauek dira:**

### **IHAUTERIAK**

Gure haurrek urtero ospatzen dituzte ihauteriak Zegaman. Aurten otsailaren 23an, ostiral arratsaldean ospatu zituzten. Lehenik Eskolan prestatutako mozorroa jantzita Zegamako kaleetan zehar desfilea egin zuten. Ondoren Guraso Elkarteak Udaletxe azpiko arkupean txokolate beroa bizkotxoekin eskaini genien bertaratutako ikasle, irakasle eta gurasoei eta festa bukatzeko buruhandien aurretik korrika ibili ziren.

### **IKASTURTE AMAIERA eta FESTA**

2000/2001 ikasturtearen amaieran urte osoko ostiraletan muxutruk taileurretan aritzen diren guraso eta gainontzeko bolondresei afariatxo bat eskaini zien Guraso Elkarteak Ostaturun. Badakigu afari honekin ez dela ordaintzen beren urte osoko lana eta horri honen bidez gure esker ona luzatu nahi diegu Inaxi Urreaga, Asun Etxegia, Pili

Eceiza, M<sup>a</sup> Isabel Azurmendi, Arantxa Berasategi, Maite Asurmendi, M<sup>a</sup> Sol Etxeberria, M<sup>a</sup> Luisa Marín, Laura Calleja, Izaskun Igoa, Ainara Arrieta, Aitor Garaia, Mikelar Mendia eta Juan Luis Bakerori.

Bestalde, aurten ere "ikasturte amaierako festa" ospatu genuen ikasturtea amaitu zen egunean, ekainaren 22an, arratsaldean, Eskolako patio handian puzgarriak eta kars-ak jarri ziren eta Aitxuriko eskola umeak salto ugari egiteko aukera izan zuten. Bero ikaragarria egin zuen arratsalde hartan eta puzgarrietako bat, tobogana, erabiltzerik ere ez zen izan, eguzkiaren beroaren eraginez haurren hankak erre egiten baitziren.

### **IKASTURTE BERRIAREN HASERA**

Ikasturte berria hastearekin batera Guraso Elkartearen Gida Batzordeak zenbait ekintza burutu eta antolatu behar izaten ditu. 2001/2002 ikasturtearen haseran besteak beste ondorengo hauek burutu dira: Eskola kiroleko irakaslearekin (Xabier Intxausti) kontratua izenpetu, Aitxuri Eskolako ikasleen istripuetako aseguruak kontratatu, liburuak banatu, txandalak eskatu eta banatu, urteko bideo emanaldien egutegia egin, gurasoentzat hitzaldia antolatu, Batzar Orokorra antolatu e.a.

Aipamen berezia merezi dute, ikasturtean zehar haur eta gaztetxoek parte hartzen dutelako, urtero antolatzen ditugun ondorengo bi ekintzek:

1) Bideo emanaldiak: igande arratsal-

detan (hamabostean behin) Kultur Etxean haurrentzat zinea edo bideoak jartzen dira.

2) Eskola Kirola: eskolako orduez kanpo 3. mailatik gorako ikasleek kirol ezberdinak ikasten eta praktikatzen ari dira Xabier Intxausti irakaslearekin.

### **ESTATUTUEN ALDAKETA**

Aurten, urriaren 17an egin den Batzar Orokorrean Guraso Elkartearen Estatutuak aldatu dira. Aldaketak egitearen arrazoia zera izan da, Guraso Elkartearen funtzionatzeko modua aldatu egin da aurreko urteetan eta aldaketa hauek Estatutuetan sartu dira.

Esan behar da bilera hartara oso guraso gutxi joan zirela eta Batzar Orokorrak urtean behin izaten direnez, gai garrantzitsuak azaltzen direnez eta guraso guztien kezka azaltzeko une egokia eskaintzen dutenez, hurrengo urteetan parte hartze handiagoa izatea eskatzen du Gida Batzordeak.

### **SAN MARTINETAN TAKOLO, PIRRIKX ETA PORROTX**

Guraso Elkarteak iaz hasi zen San Martinen inguruan Zegaman ospatzen den aste bukaeran haurrentzat zerbait antolatzen. Honetarako Udalarengandik laguntza ekonomikoa jasotzen dugu.

Aurten, azaroaren 18an, igande arratsaldean, Takolo Pirrikx eta Porrotx pailasoak izan genituen eta 650 pertsona inguru bildu ziren frontoian. Saioan Tobera Musika Eskolaren barruan Zezilia Herrero irakaslearekin dantza ikasten duten haurrek ere parte hartu zuten eta oso saio polita eskaini zen. Ondoren txokolate beroa bizkotxoekin eskaini genuen frontoian bertan. Txokolate hau egiteko komeria franko ibili genuen, 300 lagun inguru espero bait genituen eta jende kopuru bikoitza etorri zenez txokolate gehiago egiteko jeneroa biltzen ibili ginen pailasoak beren saioa eskaintzen zuten bitartean.

Hurrengo urteetan ere San Martinetako igande arratsaldeetarako antzeko ikuskizunak antolatzen jarraitzea da gure asmoa eta nahia, Udalak ematen digun laguntzarekin eta sarrera kobratuz jasotzen dugun diruarekin. Honela Zegama eta inguruko haurrek momentu pozgarria pasa ahal izango dute.



*Takolo, Pirrikx eta Porrotx San Martinetako emanaldian*



Iñake Aramendia

### IÑAKE ARAMENDIA IRASTORZA, GURE LEHENDAKARIA.

Aurtengo urteak oso une tristeak ere ekarri dizkigu gure inguru eta bileretara.

Guraso Elkarteko Lehendakaria genuen Iñake. Bere gaixotasunaren aurka bi urtez borroka ikaragarria egin arren hil egin zen urriaren 17an. Aitxuri Eskolako guraso guztiok ikasgai miresgarria jaso genuen beregandik gaixo egon zen denbora guztian. Gure artean zegoenean beti aurrera begiratzen zuen gaixorik ez balego bezala. Beti bere

seme-alaba eta senarraren ondoan ikusten zen bere guraso papelean tinko. Guraso Elkarteko Gida Batzordean ere, gauzak antolatzen, Estatu-tuak aldatzen eta gainontzeko lanetan beti lehenengo ilaran aritzen zen. Gu berriz, bere ondoan, isiltasunean, bere kemena eta indarra miresten egoten ginen.

"Iñake, ez dakigu guregandik merezi zenuen laguntzarik jaso zenuen behar zenuenean, baina orri honen bidez guraso guztioi erakutsitako kemena eta Guraso Elkartearen egin duzun lana eskertu nahi dizkizugu bihotz bihotzez".

## ZEGAMAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Zegamako odol emaitzen elkarteak urtean bitan deitzen die zegamarrei beraien odola eskatzeko eta aldi berean bai ebakuntza, gaixotasun edota istripu larrien ondorioz beharrean gertatzen direnei laguntzeko.

Aurtengoan odol ateraldiak martxoaren 3an eta urriaren 20an burutu ziren eta bietan 44 na pertsonak parte hartu zuten. Ez da batere kopuru lotsagarria Zegama bezelako herri txiki batentzat, baina inoiz etorri ez zaretenoi dei egiten dizuegu zuek ere eman dezazuen.

### GOIERRIKO ODOL EMAILEEN BATZARRA LIERNIN.

Liernin ospatu zen Goierriko odol emaitzen batzarra, aurtengoa Segura eta Zegamako ordezkariok egokitu zaigun egun hau antolatzea eta ohiturari jarraituz, 25 odol emanaldi egindako bailarako odol emaitzei domina bat ematen zaie batzarraren ondoren eta aurtengoan bi zegamar zeuden tartean:

- Jabier Arizkorreta Elarre
- Jose Francisco Alustiza Azurmendi



Goierriko odol emaitzen batzarra Liernin

## GAZTE HEREXA ELKARTEA



Gazte Herexa Elkartea 1999ko ekainean eratu genuen herriko zenbait gaztek, Zegamako herritarrei –eta bereziki gazte beraien denbora libre funtzio kultural, sozial eta hezitzailea duten jardueren bidez kudeatzeko aukera eskaintzeko helburuarekin.

Diru-iturri nagusi modura herriko jaietan jartzen dugun txosna eta udalak urtero herriko elkarteek banatzen diren diru-laguntzaren kopuru bat erabili ohi ditugu. Horrez gain, tarteka beste baliabide batzuren beharra ere izaten dugu; esaterako, kalera-berriak ditugu elkartearen logotipoarekin diseinaturiko kamisetak.

Baliabide horiez baliatuz, elkartearen helburuetara bideraturiko ekintzak antolatzen ditugu urtean zehar. Honako hauek aipa di-tzakegu azken hamabi hilabeteetako ibilbideari dagokionez:

Joan zen abenduaren 29an mahai-jokuak antolatu genituen herriko plazan. Helburua gazte koadrilen arteko harremanak lantzea izanik, jolas kooperatiboaren bidez arratsaldea igarotzeko aukera izan genuen.

Udaberri aldera, logotipo-lehiaketa antolatu genuen, herritar nahiz kanpotar guztientzat irekia. Aurkezturiko lehiakideak honako 4 kide hauek izan arren, guztira 9 logotipo aurkeztu zituzten:

- Iker Zubeldia Katarain zegamarra
- Leire Igoa Arizkorreta zegamarra
- Erkuden Muguruza Prego pasaitarra
- Iñaki Arriaran Murgiondo idiazabalbarra

Aurkezturiko logotipoak aztertu ondoren, epaimahaiak lehen saria Leire Igoari ematea erabaki zuen, eta bigarrena berriz, Iker Zubeldiak eskuratu zuen.

Hona hemen Gazte Herexaren logotipoa, lehen sariaren irabazlea:

Esan, "herexa" hitzak aztarna esan nahi duela.

Udazkenean, San Martin azokaren egunean, Gazte-Herexaren eskutik Goierriko bost sagardotegi desberdinetako sagardoa dastatzeko aukera izan zuten polikiroldegira hurbildu ziren guztiek.

Urtea amaitzerako, drogen fenomenoaren inguruko hitzaldia antolatzeko asmoa daukagu. Honekin batera, urte amaierako batzar orokorrean buruturiko ekintzen balorazioa eta datorren urterako plangintza orokorra egingo ditugu.

## AMEZTI ELKARTEA



### AMEZTI ELKARTEA eta AMEZTI MENDI ELKARTEA MENDE BERRIARI BEGIRA

2001.eko urte honek lan berriak, poz berriak eta lagun berriak ekarri dizkio gure Elkarte gazte honi. Amezti naturarekin oso errotuta dagoen izena izanik eta Elkarteak burutzen dituen ekintzek honekin lotura zuzena dutenez, urtarotan banatuko dugu gure urte honetako jarduna.



*Amezti Elkarteko lehenengo Mus Txapelketako irabazleak*



*Amezti Elkartearen Pirineotako irteera*

### NEGUA

Urteari hasiera Mendi Elkarteko ohiko irteerekin eta ez hain ohikoekin eman genion; izan ere aurten, aurrenekoz eskia-tzera joan ginen Otsailaren 10 eko egun petral hartan (batzuk perfektionatzera, beste batzuk zerbeit ikastera eta beste batzuk motxilako bokadillo bikainak jan eta autobusean pelikularen bat ikusteraz). Candanchu-ko mendi magal zurietan ibili ginen, beno batzuk, zeren beste batzuk ezin zutiturik pasa baigenuen eguna. Jose Manuel Gorospe "Peke" herritarraren laguntza ez da ez ahaztekoa, izan ere bera izan baitzen hasiberriekin ausartu zena eta teknika pixka bat irakatsi ziena. Laburbilduz Zegamatik irteerako autobuskarak egun dotorea pasa genuen eta errepikatze gogoa geratu zitzaigun. Eta 2002. urtean izan-go dugu horretarako beta bai horixe!

### UDABERRIA

Gure bazterren loratzearekin batera,

gure Elkarteko Batzordea berri gure Urteko Batzar Nagusian, Bodegero eta Diruzain berrien aukeraketekin. Elkartean egindako ekintza aipagarrien artean, Kultur Etxeak antolatu ohi duen Bertsolari Gazteen Afaria da gogora ekarri beharrekoa; M<sup>a</sup> Luisa Etxartek (g.b) prestatutako afari bikaina Iker Zubeldia, Alaitz Sarasola eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariek girotu eta alaitu ziguten.

Mendi Elkartetik egindako irteeren artean aipamen berezia merezi duena Iparla Mendira, Bidarraitik (Lapurdi) eginiko ibilaldia da; lagun talde bikaina bildu ginen eta egun dotorea pasa genuen Iparraldeko bazter dotore haietan eta baita Hegoaldeko itsasertzeren baten ondoan ere.

### UDA

Eguna luzatu eta berotzen hasten zaila honetan, gure Elkarteak urtarolari modu berean erantzuten dio, ekintzak ugaltu eta Elkarte izpiritua berotu eta alaituz. Honetarako Anai Arteko afari batekin eman genion hasiera urtaro berriari, Elkartearen Lokala ireki genuenetik egin ohi dugun bezala, orain iada 4 urte.

Mendi Elkarteak bere aldetik asteberkaera pasa antolatu zuen Pirineotan. Oraingoan ere bidea ikasita genuenez, Candanchura joan ginen Uztailaren 14ko larunbat arratsalde gazi-gozo hartan. Bertan gaua pasa, eta igande goizean izutu baginen ere Formigal – Canfrac arteko ibilbidea egin genuen Analet-eko Laku edo Ibon-etan barrena, eguzkia lagun genuela. Oraingoan ere lagun talde polita elkartu ginen eta zortzi milakoren bat egiteko asmoa azaldu zuenik ere izan genuen, baita zizaleku dotoreren bat begiztatu zuenik ere, nahiz eta ziza garaia pasea izan; baina hori ere datorren urterako utziko dugu.

### UDAZKENA

Hostoak erortzen direneko honetan Elkarteak, urteko garai bizi eta oparoenari ireki zizkion ateak: Biziena eta Oparoen diogu izan ere ekintza ugari antolatu ditugu Elkartera eta Herrira begira. Aipa 1go Mus Txapelketa. Txapelketa honen garaile Collado Anaiak (Jabier eta Iñaki) izan genituen, bikote arteko lehia gogorra izan bazen ere Txapela irabazteko borrokan bi anaiak nahiko erraz gailendu zitzaizkien gainetako bikoteei.



Abenduko lehenengo egunean, Biasterira joan ginen, denok ezagutzen dugun eta hain gustokoa dugun bidai kultural horietako bat egin asmoz. Kultura asko ez zitzaigun behar bada erantsiko baina mahats salda edarrak dastatzeko aukera izan genuen Arabar Errioxako bazter dotore haietan.

Bestalde, urteari behar den neurriko amaiera emateko, Bazkideon arteko Gabon aurreko afaria egin genuen Abenduaren 5ean. Denoi kalterik egiten ez digun hitzaspertu bat egin eta aurrera begira datorkigun urterako Osasuna eta Bakea izan ziren Amezti Elkarteo bazkideon nahi nagusienak, giro apartean eginiko afarian.

Mendi Elkartek hileroko hitzorduei eutsiz irteera politik antolatu zituen

udazkenean ere; aipamen berezia merezi duena Aralarreko mendi zerran, Guardetxetik Irumugarrietara eginikoa.

Mendi Elkartek ere urtea egoki amaitu nahian Jose Manuel Gorospe "Peke" Mendi Elkartearen lagun lehial eta zintzoarekin, ohitura bihurtzen ari den afaria egin genuen. Afal ostean Candanchun eskia-tzen hartu zizkigun zenbait irudi ikusi genituen; izan ere Pekeren abentura sen horrek jendearengan harridura eta arreta berezia sortarazten baitu. Afari honek ere aurrera begira ditugun proiekturen bat zehazteko balio izan zigun eta baita amesten ditugun horiek lagun artean aurkeztu eta amesten jarraitzeko. Izan ere bizitza ametsa da, eta ametsak, ametsak baino zerbait gehiago dira.



*Amezti Elkarteoak Paella Lehiaketa irabazita*

## **ELKARTU NAHI TXIRRINDULARI ELKARTEA**

Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartean urtean zehar hainbat karrera antolatzen ditu eta San Bartolome jaietako haurren txirrindu frogen antolakuntzan ere parte hartzen dugu.

Elkartu Nahi Elkartek antolaturiko lasterketak hiru dira, beraiek dagoeneko urterokoak eta hona hemen beraietako irabazleak:

### **XVII. SANTA KRUZ FROGA**

2001. urtean apirilaren 4an korritu zen, eta 2. mailako kadeteen mailako froga izan zen. Lasterketa honetan garailea: Con. Met. Urretxu taldeko Gorka Ruiz de Gordoia izan zen, Bigarrena, Spanset Taldeko Jon Agirre Dorronsoro eta Hirugarren, Iberdrola Taldeko Asier Mujika Agirre. Aipatutako karreran Ruben Zabaleta zegamarra 4. iritsi zen eta Eneko Iraola 24. eta Oier Arkonada 44.

#### *Ekipoka*

- 1.go: Con. Met. Urretxu: 32 puntu
2. Andoaingo TE: 32 puntu
3. Iberdrola: 28 puntu

### **XVII. ELKARTU NAHI SARIA**

Uztailaren 8an burutu zen froga hau jubencil mailakoa zen eta irabazlea

Mapfre Taldeko Carlos Cuervo Martinez izan zen; bigarren Muebles Ordizia Taldeko Jesus Manuel Chamorro Mayor eta hirugarren, Skoda Taldeko Angel Etxedona Zubeldia, Froga honetan Aritz Irastorza zegamarra 24. iritsi zen helmugara.

#### *Ekipoka*

- 1.go saria: Skoda: ..... 44 puntu
2. saria: Muebles Ordizia.. 28 puntu
3. saria: Selección Pirin ... 36 puntu.

Bestalde, esan, txirrindularitza maite dugunontzat urte tristea izan dela aurtengoa, izan ere hainbeste eta hainbeste txirrindulariek eta txirrindu zaleok, bigarren amatzat genuen Maria Luisa Etxarte, Manolo tabernakoa, hil baitzaigu; ez da erreza izango hark guztioi emandako une goxoak ahaztea. Eskerrikasko Maria Luisari txirrindulari eta txirrindularitzaren alde egindako lan bikainarengatik.



*M<sup>a</sup> Luisa Etxarte*



*Apeadero igoera egiteko prest San Bartolome jaietan*



## TARTALOETXE KULTUR ELKARTEA

Aurreko urteetan bezela, aurtengoaren ere, Tartaloetxe Kultur Elkartetik, herritarrentzat hainbat ekintza antolatu zuten saiaturik. Ekintza hauetarik gehienak, urtero errepikatu ohi ditugu, hala nola, arrantza, tute mus txapelketak, urteroko bertso afaria, txakolin dastaketa etab. Lehenik eta behin, horiek guztiak aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko laguntza ematen diguten tabernari, dendari, igeltsero, arotz, txakolindegia eta gainontzeko guztiei ere, eskerrak eman nahi genizkieke.

Aurretik aipaturiko ekintza horietarik batzuk geuk burutzen ditugula ere aipatu, beste zenbaitetan, berriz geure partehartzeaz, laguntzen saiatzen gara.

Bukatzeaz dugun 2001. honetan berriz, besteak beste, honako ekintza hauek gauzatu ditugu:

### V. ARRANTZA LEHIAKETA

Gipuzkoako arrantza denboraldia ireki zen egunean, martxoaren 18an hain zuzen ere, TARTALOETXE KULTUR ELKARTEKO V. Arrantza Lehiaketa antolatu genuen. Parte hartu ahal izateko bi baldintza ezarri genituen: 16 urtetik behera izatea eta aldi berean, arrantzarako baimenaren jabe izatea ezarri genuen. Bertaratu ziren gaztetxoek, arrantzarako zaletasuna badagoela azaldu zuten, bai eta herrian antolaturiko ekintzetan parte hartzeko prest daudela ere. Aurtengo lehiaketaren irabazlea, Jaun Apaolaza Perez izan genuen, amurruin bakararekin, ez ordea nolana hiko! Bigarren postuan, Borja Urzelai Larrea eta hirugarrenean, Unai Atxa Azurmendi amurruin banarekin. Urtero bezela, irabazleez gain, parte hartzaile guztientzat sari gisa, arrantzarako materiala banatu zitzaion.

### TARTALOETXEREKIN SAGARDOTEGIRA

Martxoaren 24an, herritar orok, Astigarragako Gartziategi Gartziategi sagardotegira joan-etorria egiteko

aukera ederra izan zuen. Asmo horrekin, Tartaloetxe Elkarteak, joan nahi zuenarentzat doako garraioa jarri zuen. Aipatu, aurreko gonbidapenari, 49 herritarrek erantzun ziotela eta goizean goiz etxeratu baziren ere, gehienak, errepikatzeke asmotan direla.

### II. TUTE TXAPELKETA

Martxoaren 31n, II. Tute Txapelketa antolatu genuen. Txapelketa azkarra izan zen, egun bakarreko iraupenez. Irabazleak, Angel Otaegi "Moxo" eta Pako Larrarte suertatu ziren eta, bigarren bikotea, Eugenio Ormazabalek eta Antonio Oiarbidek osaturikoa izan zen. Sariak banatu ondoren, partehartzaile guztientzat afaria izan zen, honetan, partehartzaileek esandakoaren arabera, giro ezin hobea lortu zen bertan abesturiko abesti zaharrei esker.

### MUGA GUZTIEN GAINETIK

Aurreko urteetan bezela aurtengoaren ere, ekainaren 3an, Hirimuga (Irarra-gorri) mendi tontorrean antolatu zen bilkuran parte hartu genuen. Goizean, Araia, Ziordi eta Zegamatik abiatu zen jendea, Hirimugan, hau da, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako mugek bat egiten duten lekuan, ekitaldi bateratuan parte hartuz ondoren. Ekitaldian, muga guztien gainetik, Euskal Herriaren lurraldetasuna aldarrikatu zen eta tontorrek ekitaldia amaitu ondoren, Ziordirantz jarraitu genuen, bertan prestatuta zuten mokadu goxoaren kontu hartzera. Bazkalondoan, hainbat ekitaldi izan genuen.

### III. BERTSO AFARIA

Batetik, bertsolari gazteenen saioei bultzada ematearren eta bestetik, nahi izan zuten herritarrek tartea pasa zezaten, aurten 3. aldiz, Maiatzaren 26an, Tartaloetxe elkarteak, bertso afaria antolatu genuen. Bertaratuok, giro ezin hobean egin genituen bakoitzari egokituriko lanak (afaldu, bertsoak bota, entzun... etab). Afalostean lanean aritu zirenek, Iñaki Apalategi, Iker Zubeldia, Ainhoa Agirrezabaldegi eta Mikel Mendizabal bertsolariak, keramikazko

oroigarri bana jaso zuten.

### PAELLA ONENA

2000. urteko mailara iritsi ez arren, oraindik ere Tartaloetxe ordezkariek saiaturik eta sari garrantzitsuak lortzen dituztela esan genezake aurtengoaren. Hori ziurtatzeko, San Bartolometako lehiaketan saririk atera ez arren (aurreko gaueko ajea bide), adierazgarri izan daitezke aurtengoan ere, bigarren urtez, Segurako Iparra-Hegoa jaietan aterako lehen eta bigarren sariak. Segurako Elorripe Kultur Elkarteak, Euskal Herriko "sukaldari" ezberdinak izaten diren Paella lehiaketa antolatu ohi du, aurtengoan Tartaloetxetik bidalitako ordezkaritza, ondokoa izan zelarrik: Joxe Ramon Agirre eta Arantxa Garikano, Jabier Arrondo eta Maribi Maguregi eta Rosa eta Angel Irigoras. Zorionak seikote!

### SORGIN GAUA

Ekainaren 22an, Sorgin Gauda izenpean, hainbat orduko ekitaldia antolatu genuen herrian. Lau txalapartari bikote ekarri genituen ilunabarrean, udari sarrera emateko asmoarekin. Txalapartariak saiaturik baziren ere, behar bada lehenengo aldia zelako edo, ez genuen jakin egin zuten lana behar bezela plazaratzen eta herri erdialdean denek lana ongi entzun ez arren, herriko beste leku askotara iritsi zirelakoan gaude. Ondoren herriko plazan OROIMEN EKITALDIA antolatu genuen. Ekitaldi xume baten bidez, orain 10 urte etxetik alde egin beharrean suertatu ziren Idoia eta Gurutze ahizpak oroitarazi nahi izan genituen, bai eta beraiek bezela, beste hainbat eta hainbat preso, iheslari, eta senidek jasaten duten egoera gogorazari ere. Idoia eta Gurutze herrian ez daudenez, beraien gurasoei, ohorezko aureskua eskaini zitzaion eta herriko talde ezberdinek, opariak eman zizkieten. Eskerrak, oroimen ekitaldian parte hartu zuten guztioi. Ondoren, Udaletxeko arkupeetan, 72 lagun bildu ginen, Herri Afari ederra eginez. Afaria, bertsolari, trikitilari eta txalapartariak alaitu zuten eta afari ostean, Sorgin Gauak aurrera jarraitu zuen.



Tartalo Elkarteak Sorgin gaueko ekintzaren barnean antolatutako oroimen ekitaldia



*Sagardotegira irteera*

**IX. MUS TXAPELKETA**

Irailaren 28ko lehen kanporaketaren ondoren, urriaren 5ean jokatu zen aurtengonTXAPELKETA SAIOA. Hama-sei bikotek parte hartu ondoren, aurtengo irabazleak, Jose Ramon Urbizu eta Antonio Arizkorreta, Barrenaldekoak

izan ziren. Bigarren geratu zirenak berriz, Joxe Ormazabal eta Joxe Larrea izan ziren. Zorionak!! Eta sariak emandako guztiei, eskerrikasko.

**KILOMETROAK**

Aurten, orain 25 urte bezela, ikastolen aldeko jai handia, KILOMETROAK,

**KASINO ELKARTEA**

**ZEGAMATAR BATASUN KASINOKO OBRAK**

Urtekarian azal dadin, Kasinoan emango diren berritze obrei buruz lerro batzuk idazteko eskatu digute, eta nahiz eta gure elkarte honek izaera handirik ez izan, beraren erabile garenontzat eta Zegamako eguneroko bizitzan agian badu zeresanik.

Zegaman eman den soziedade zaharrena dela denok dakigu eta bere ibilaldi luzean izan du, zeresanik Zegamar izatearen moduan, erlazionatzeko moduan etb.

Kokaguneak ere batzuek izan ditu, gu gogoratzen garenez Sakristaanean, Gure Txoko tabernan, Manolo tabernaren lehen solairuan eta gutxi gora behera 1.956tik gaur duen kokagunean, Alondiga zaharrean alegia; Udalarena den eraikuntzan.

Ordu ezkerok ez du izan aldaketa handirik, badirudi betidanik berdin ezagutu dugula. Urte batzuetako San Bartolometan, Ikastolaren aldeko taberna montatzeko itxura aldatzen zitzaion, baino ondoren beti bezala.

Paretak dotore asko margotuak ditu, Zegaman urte askoz Apaiz izan zen Don Jabier Ormazabalek. Geroago Maria Luixa Gorrotxategik berrituak izan zirenak, eta orain obra garaian ez galtzea da gure asmoetako bat, nolabaiteko ikur bat bezala baititugu.

Ondoren ere norbaitengana jo beharko dugu txukun antzean utzi nahi baditugu.

Aurrean esan dugu aldaketa handirik ez duela izan, baina hori iragana da, oraingoran behar zuen txukuntzea heldu zaio Kasinoari, Ostatuko berritze obrekin batera berritzera goaz gure txoko hau ere.

Aldaketa garrantzitsuena, Sukaldea sortzeko hainbat leku lortzea izan da eta hau, Udalaren laguntzarekin lortu dugu. Orain, soziedade bateko sukaldeak behar moduko tresneria sartuko dugu, hau da suak, labeak, garbigailu, frigorifiko etb. Gaur egungo legeak horrelako aktibitate batek eskatzen dituen behar guztiak kontuan izanez, aire egokigailu, extraktore, insonorizazio etb ere kontuan izanez.

Honekin batera, altzariak berritzeari ere ekingo diogu mahai, aulki etb, guztira 6 bat miloiko aurrekonturarte.

Beste alde batetik, berritze honek herritarrengan izan du eraginik, beste dozena bat sozio baititugu elkartean, eta hau pozgarria da.

Obra horiek datorren urteko, martxo alderako bukatuko dira, askok zalantzarik gabe eskertuko dutena.

**KULTUR EKINTZAK KASINOAN. BERTSO JAIALDIA:**

Urtarrilaren 28rako Bertso Jaialdia antolatua genuen, aurten lau bertsolari eta abeslari bat ekarri genituen, ikuskizuna erakargarriago edo bilakatzeko eta esan jendeak oso gustokoa izan zuela bai bertso saioa eta baita abesti saioa ere. Bertsolariak, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jesus Mari Irazu eta Amets Arzallus izan ziren eta abeslaria.Jaione

Beasainen ospatu da, urriaren 7an hain zuzen euskaraz Hezkuntza osoa jaso ahal izateko behar adina diru izan gabe jarraitzen dugunez, 25 urte eta gero, berriro ere, diru eske jarraitu behar. Asmo horrekin, Beasaingo Ikastolak, batik bat Goierritarrei eskatutako laguntza eman genuen, egun konkretu horretarako antolaturiko tonbolan generotan azalduz.

**SAN MARTINETAN TXAKOLIN DASTAKETA**

Era honetako ekintzek herritarrengan ezezik kanpotarrengan ere sortzen duten arrakasta kontutan izanda, aurtengoaren ere, giroa alaitzearen, Tartaloetxeren eskutik, gerturaturiko guztientzat, aukera paregabea antolatu da, edalontzia erostearen truke, nahi beste txakolin dastatzeko betaz gainera, salda beroa hartzeko aukera ere luzatu dugularik.

Olazabal. Azken 4 urteotan bezela, Zegamako Kultur Etxeak ematen digun babes ekonomikoa jaso dugu aurten ere, era honetara jaialdia eder bat antolatzeko ardura hartzen dugu eta kalte ekonomikorik jasango ez dugula jakinda.

**KASINOKO XIII. IPUIN LEHIAKETA**

Aurten Arantzazuko Peregrinazioa Ekainaren 3 eta 4an egokitu zen eta ordurako, Zegamako Kultur Etxe eta Herri Eskolaren laguntzaz XIII. Ipuin Lehiaketa antolatu genuen, sari banaketa urteroko legez, haurrek peregrinazioko goxokiak bildu eta gero egin zelarik. Hona hemen aurtengo irabazleak:

**Lehenengo maila:** Sheyla Rey eta Josune Azurmendi

**Bigarren maila:** Janire Matxinandiarrena eta Nerea Galdos

**Hirugarren maila:** Ohiana Agirrezabalaga eta Idoia Zubizarreta

**Laugarren maila:** Irati Irigoras eta Amaia Berasategi

**Bostgarren maila:** Maite Berasategi eta David Panaderoa

**Seigarren maila:** Ander Ormazabal eta Jokin Otaegi

Irabazleei domiña bana eman zitzaien eta partehartzaile guztientzat izan zen opariren bat.



*Kasinoa obrak hasi aurretik*

## SAN MARTIN PARROKIKO ZENBAIT GERTAKIZUN ETA OSPAKETA

□ MARTXOA, GARIZUMAKO HITZALDIK PARROKIAN

Parrokian urtero garizuman herriari erreflexio hitzaldiak eskeintzen dizkiogu.

Aurten ondorengo egun hauetan burutu ziren:

Martxoaren 12,13,14 eta 15ean euskara, 16an erderaz.

GAIA: BAKEGINTZA.

a) BAKEA. Edukia eta oinarriak.

b) GUZTION ARTEAN. Elkarriketa.

c) GUZTION ALDE. Biziaren errespetoa.

d) JARRERA IRAUNKORRA. Irizpide eta jarrerak.

HIZLARIA: Iñaki Beristain, Arantzazuko frantziskotarra.

□ EKAINA, LEHENENGO JAUNARTZEA.

Aurten ere Lehenengo Jaunartzeak Trinitate egunez ospatu ditugu. Ekainaren 10ean. 10 haur izan dira Lehenengo Jaunartzea egin dutenak:



San Bartolomeko erretaula



Lehenengo Jaunartzea egindako haurrak

6 mutil eta 4 neska. 1991n jaioak. Hona hemen izenak: Mikel Aramendi, Nelson Bautista, Amaia Berasategi, Adrian Castro, Nagore Gorrotxategi, Jon Irastorza, Bakarne Larrea, Jose Jabier Malkorra, Ibai Urbiztondo eta Josune Zabaleta.

Beti bezela, herrian poz-giroa nagusi, nahiz eta eguraldiak ez zuen lagundu. Goizetik, euria parra-parra; arratsaldean, berriz eguzkia nagusi.

□ UZTAILA. "GAIXOAREN EGUNA"

Ordizi bailara mailan urtero Parroki batean ospatzen da "Gaixoaren Eguna". Aurten Zegaman ospatu da. 118 pertsonak hartu dute parte: Ordizi, Segura, Beasain, Lazkao, Idiazabal, Legorreta eta Zegamakoek.

□ EGITARAUA: Eguerdiko 13:00etan meza nagusia parrokian. Etorri ziren herri bakoitzeko eukaristi-ospaketan herri bakoitzeko produktu berezien eskeintza egin zuten:

Idiazabalgoek: gazta  
Segurakoek: ogia  
Beasaingoek: loreak  
Legorretakoek: Liburua  
Zegamakoek: pinua

Meza ondoren, bazkaria egin zen frontoian.

□ ANDUETZAKO SAGRARIOA

Abenduaren 13 eta 14an montatu zen, konpondu ondoren, San Bartolome Ermitan. Sagrario hau San Martin Parrokiko erretabloaren parte bat da; parterik garrantzitsuena, batez ere Trentoko Kontziliotik honantz.

Sagrario hau 1638an egina dagoela pentsatzen dugu.

Gregorio Fernandez (edo Hernandezen) tailerrean lan egin zuen Juan Garcia de Berastegik egina da. Galizian jaioa eta Valladoliden hila. Juan Garcia de Berastegik Arantzazun, Gasteizen, Legazpin, Seguran eta Lazkaon ere egin zuen lan.

Sagrarioa barrokoaren hasierako da. "Barroko Klazizista" deitzen zaio. Eta azaltzen diren irudietan nabarmena da Gregorio Fernandez maisu haundiaren ikutua, tunikaren tolesturatan batez ere.

Sagrarioak dituen irudietatik bost gordetzen dira: haundiena " Ecce Homo". Besteak zein diren esaten ez da beti erraza eskuetan edukitzen dituzten atributoak falta zaizkielako. Nahiko argia dena San Ignazio da. Besteak San Antonio edo San Francisco ematen du.

Sagrarioak daukan polikromia bere garaiko estiloko polikromia da. Ez da gertatzen gauza bera aldara nagusiaren polikromiarekin. Hasiera batean dena intxaurrez egina izan zen. Gero, berritu zutenean, gaztaina erabili zuten. Eta azken honetan, estrukturako gauzak konpontzeko gaztaina erabili da; eta motibo ornamentaletan: kolumnak, panelak, balaustreak, etabar konpontzeko zipresa.

□ KOSTEA: 1.657.756 pezeta. Horietatik 1.000.000 Foru Aldundiak eman du. Bestea herritarrek... Eskerrik asko denoi!

Konpondu duen artista Xabier Martiarena Sarasola izan da.

□ BATAIOAK: Jon Arakama Zeberioa, Aitzol Arrondo Larrea, Izaskun

Malkorra Rodrigo, Iñaki Galdos Urbizu; Egoitz Rivas Larrea; Joseba Azurmendi Sancho eta Oihane Pelaez Parra izan dira.

□ **EZKONTZAK:** Josu Mirena Alonso Oyarbide eta Rakel Inza Arrieta (Otzaurreko ermnitan); Iker Elorza Ugartemendia eta Amaia Arzuaga Garmendia (Urbiako ermitan), Aitor

Iriondo Inza eta Maria Jesus Ormazabal (San Martin Parrokian); eta Francisco Javier Auzmendi Doyharzabal eta Nekane Urbitarte Artano.



## **AITZGORRI FUTBOL TALDEA**

### **AITZGORRI FK KADETEAK AMSTERDAM CUP 2001EKO TXAPELDUN**


2000-2001 denboraldia bukatu berri, herriko Aitzgorri kadeteko futbolariak Holandara joan ziren Amsterdam Cup 01ean parte hartzera.

Talde honek kadeteen 1. mailan dihardu, iaz maila galdu bazuen ere, aurtengoan denboraldi zoragarria egin ondoren erraz lortu baitu berriro bueltatzea. Izan ere, 1. postuan bukatu zuten lehen fasea eta gora igotzeko fasean, artean 3 partida falta zirenean, 1. mailara zuzenean igotzeko bidea egina baitzuten. Jokalari aipagarrienen artean, Iban Ferreira segurarrak 53 gol egin ditu; Javi Sainz, Sergio Vera, Iker Urreta eta Jokin Apalategik, guztiak beasaindarrak, euren jokoaren kalitatea eta beteranotasuna erakutsi dute eta azkenik Anaitz Goya segurarrak - datozen urteotan hurbiletik jarraitu beharreko jokalariek- klasea eta sakrifizio maila handia erakutsi du une oro.

Amsterdam Cup-ean parte hartzeari dagokionez, uztailaren 22an egin zuen taldeak Pariserantz, Juan Carlos Garcia "Pinti" entrenatzaile ordiziarra eta Jose Manuel Sainz taldeko ordezkari beasaindarrarekin, handik Brujasen (Belgikan) eskala eginaz hilaren 24an torneo-ko inaugurazio eta desfilerako Amsterdamera ailegatzeko.



*Kadeten taldea*



*Ohorezko infantilen taldea*

Esperientzia ezin hobea izan da, partida bat ere ez galtzeaz gain (3 berdindu eta 3 irabazi baitzituzten) 16 urteko kategorian txapelkun izan baitira. Kategoria horretan Holanda, EEBBak, Ingalaterra, Suedia, Alemania, Gibraltarrak, Danimarka eta Galeseko aurkariak jardun ziren, besteak beste eta lehenengo hiru partidak berdindu ostean hurrengo hirurak irabazi egin zituzten. Santa Rosa JVko amerikarren kontra irabazi zuten finala. Egindako lanaren handitasuna honetan datza: txapelketa 4 egunetan jokatzeko da, finaleko egunetan 3 partida jokatu behar dira eta horrek nekea eta indarrak ez dauden lekutik atera beharra dakar.

Partidarik galdu gabe eta 6 gol alde eta 2 kontrako emaitzarekin (biak penaltiz) bueltatu zen taldea Euskal Herria. Aipagarriak dira Unai Larrea zegamarraren jokoak, futbol ona agertu baitzuen, Koldo Otaegiren 3 golak, urtebete lesioagatik geldituta egon eta gero, eta iker Urretabizkaia beasaindarraren duintasuna eta esfortzua.

Bukatzeko esan Juan Carlos Garcia "Pinti" entrenatzaileak ez duela taldearekin jarraituko eta idatzi honen bidez eskerrak eman nahi diela bere jokalariei egindako ahaleginengatik eta etorkizuneko goragoko mailatan ikustea opa

diela adieraziz. Pinti Infantilen Ohorezko Kategoriaren kargu egingo da eta 88-89 urteetan jaiotako Zegamako, Segurako eta eskualdeko umeak sartzeko saiatuko da, Segurako instalazioetara entrenatzera joanez gero.

### **INFANTILEN MAILA**

Aurtengoa Ohorezko Mailan taldea sendotzeko urtea izan da guretzat. Iaz Gipuzkoako onenen artean jartzea lortu genuen. Aurtengo erronka mantentzea zen.

Eta lana ez da makala izan. Errealak, Antiguokoa, Eibar, Real Union eta besteek guk baino azpiegitura eta baliabide askoz indartsuagoak dituzte. Hala ere, helburua bete dugu estutasunik gabe, eta gainera konplexurik gabeko futbol ederra eginez.

Javi Eizmendi entrenatzaileak 4 urte daramatza ume mordoxka honekin lanean, talde orekatua eta laguntasunez beterikoa lortu du, eta hortik ahal duen guztia ateratzeko gauza izan da.

Mutiko hauek 10 urterekin, baloiari ostikoka ibiltzen ziren, talde lanean oraindik nahikoa trebatu gabeak izanda. Gaur egun, Zegamako futbol taldean jokatzeko dute, Gipuzkoako onenen artean.

## OFIZIO BATEN DESAGERTZEA



### ROMAN ORMAZABAL TELLERIA ERREMENTARIA

*"Zegaman nik ezagutu izan ditut 800-900 ganadu buru, behi, idi, zaldi etabar. 35 idi pare ere bai"*

*Errementaritza oinarrizko ofizioa izan da Euskal Herrian, hala ere, adar desberdinak izan ditu eta horren lekuko familia bereko bi anaiek, ofizio berean jorratutako bi bide desberdinak. Errementaritza ofizioa ikasi, jorratu, eraldatu eta bere desagertzea islatzen da ondorengo bi elkarrizketa hauetan.*

*Barrenaldeko Intxaurtxotatik, Hospital-haundi, Pilar-enea eta Zatzalieren bizitakoak dira, eta Olaberri auzoko errementerian, Teofilo Mintegirenean eman zituzten ofizio honetan lehen urratsak; bakoitza bere kabuz jarri arte bestelako lanetan ere ibiliak dira biak.*

□ *Noiz eta non jaio zinen?*

Zegamako Olaberriko Pilar-etxen jaio nintzen. Pilar-etxe, orain Jose Antonio Etxeberriak erositako duena da. Hor Luis Atxatxe-eta ere bizi izan ziren; gero handik Zatzaliererra joan ginen, orain Joxe guarda bizi den etxe horretara. Joxe-eta orduan Ulin bizi ziren, Joxeren aita guarda baitzen. Tolosatik Nafarroara bidetan dagoen herri koxkorra da Uli. Zatzalier hauena zen eta haiek etorri arte, gu han egon ginen. Ondoren, berriro ere, Olaberrira pasatu ginen Errementeriarra, nik 8-9 bat urte izango nituen. Teofilo Mintegiren etxea zen garai batean, Teofilo bera, errementaria zen. Nire anaia, ordurako Teofilorekin ibiltzen zen errementaritzan ikasten eta gero lanean, eta ni ere, etxe horretara etorri ginenetik haiei laguntzen,

han ikasi nuen, errementaritza. Etxe horretan lau bat urte-edo egingo genituen, eta ondoren gure aitak animatu gintuen tailer edo perrategi txiki bat-edo jartzera. Tailerra Zupurrutin egin zen, nire anaia eta biok lan egiteko asmoz. Tailerra egiten hasi zenean, aitari burua berotu zioten tailerraren ondoan zergatik ez zuen etxea egiten. Era honetara, pentsatu, baimenak eskatu eta egin. Momentu horretan, erreka ondoan arbola batzuk zeuden eta haiek botata egin zuten.

Obra lanak bukatu eta 1946 aldera-edo hasiko ginen lanean, eta anaia 1947an-edo soldadu joan behar izan zuen.

□ *Sutegi al zuen izena etxe horrek?*

Ez, ez. Sutegi esaten zaie errementariei, su egiten delako edo...

Orduan, nik berehala soldadu joan behar nuen, joan aurretik, sei bat hilabetetan edo Zuloagako Antonio Arrondo eduki genuen erakusten pixka bat, eta ni soldadu egon nintzen garaian ni ordezkatuko ninduen. Soldaduska pasata etorritakoan, Antonio Aristrainen hasi zen lanean, eta nik ordutik orain arte, 57 bat urte egingo nintuen errementaritan. Bateko errementari, besteko perratzaile, etortzen zen lan guztiei heltzen nien.

Ezkonduta nintzen eta hirugarren haurra izan genuenean, perraketan ere lana gutxitzen ari

zenez, baserriko erramientak mantentzearen lana ere geroz eta gutxiagora zihoanez, txofertzako ofizioari heldu nion, taxia hartu nuen, txofer izatea betitik gustatu izan baitzait. Orduan ez zegoen taxi aukerarik eta Udaletxean eskatu nuen baimena eta segituan eman zidaten, era honetara ekarri nuen taxia, 1965eko ekainaren 4an. Auto zaharra zen, Donostiako taxista batena, bera kotxe berri baten zain egon zen laupabost bat hilabetez, 1500 bat, eta hura ekarri zuenean, nik hartu nion, gaur txatarrarako ere ez lukete hartuko horrelako autorik, baina orduan ez zegoen besterik eta hura hartu behar, eta gainera hura ona. Zazpi plaza zituen, eta oso ondo ibili zitzaidan urte pare batean edo. Gero beste 1500 bat ekarri nuen, hau ere bigarren eskukoa eta zaharra Silberio Altziturrikoari saldu nion eta hark ere ibili zuen pixka bat, fuertea zen, harek eman zion azken errematea. Handik urte batzutura niri ere heldu zitzaidan auto berria erosteko aukera, 1500 bat 1970ean erostia. Orduan bideak oso txarrak ziren, Altsasura joateko ere Otzaurtetik ezin zen, dena zuloz beterik zegoenez beti muelle bat edo hautsita, edo beste zenbait komeriakin ibiltzen ginen eta orduan Etxegarartetik ibili behar izaten genuen. 1970ean, Zegamatik hasi eta Aizkorriko bidegurutzerraino bidetara galipot kapa eman zioten, berritua. Nik suerte handia izan nuen, orduantxe auto berria erostia bainuen.

## OFIZIO BATEN DESAGERTZEA



Roman Ormazabal perraketan

□ *Errementari lanari helduko diogu pixka bat orain. Zer lan egiten zenuen? Olaberrin ikasi zenuenetik, zuen lana nola joan da aldatzen?*

Errementariok egin dugun lana gehienbat hau izan da: baserriko erramienta zorrotzu burni hori laburtuz eta bostortzeko horiek gastatzen joaten ziren eta pixka bat gastatzen zirenean sutegia puskak erantsi, kalban hartuta... ikaragarri lan txarra zen, baina hori ikasi genuen eta, hantxe ibiltzen ginen izerdia dariola. Lehen ikaragarri lan egiten zen errementari. Beti egoten zen lana, adibidez Zegaman, nik ezagutu izan ditut 800-900 ganadu buru, behi, idi, zaldi etab.; 35 idi pare ere bai. Orduan egun guztia enpleatzen zen perraketa gaitara. Perraketa lan asko egiten zen. Perra lanik ez zegoenean, erramienta gaitara pasa-tzen zen. Behien perrak egiten zituzten fabriketan, baina, zaldienik ezin izaten zen bilatu eta eskuz egiten ziren, eta orduan kaballeria ere bastante perratzen zen, Urbian ere artzain guztiak zuten kaballeria bana edo bina eta perratu gabe ezin ziren ibili.

□ *Kanpotik etortzen al zen inor?*

Bai, Segura aldetik asko eta Idiazabaldik ere bai bakarren batzuk. Segurako Kortaberri aldeko baserriak, San Sebastian auzokoak goialdeko baserriak etab.

□ *Beste sistema bat ere ikusi izan dizut zuri, perratokira bertara ekarri beharrean, eramaten ere ikusita nago.*

Bai. Nik perratokia etxetik kentzeko gogoan nuen eta aprobetxatu egin nuen Diputazioak, errementeritik gertu, albaiariak intseminazioak

egin ahal izateko, txabola egin zuenean, permisoa eskatu eta bertan perratokia egin nuen. Albaitariari ongi iruditu zitzaion ideia, berari ere ongi etorriko zitzaiola behiari eusteko intseminazioko orduan eta bertan jarri genuen dena.

Orduan Seguratik-edo ganadua ekarri behar zutenean, telefonoz abisatu aurretik, kamioilariari ere abisatu eta ekartzen zituzten.

Jendearentzat horrela ibili behar izatea nahiko neketsua zela ikusten nuen nik eta pentsatu nuen perrategia montatu, erremolkea prestatu eta era horretara, beraiek etorri beharrean, neu etxerik etxe ibiltzea. Askotan perraketarako ez zuten deitzen, behiek ez baitzuten horrenbeste lanik egiten, uztarriekin ez baitziren ordurako ibiltzen eta beraz, ez zuten perrarik gastatzen; baina, herrendu egiten ziren, edo iltzeren bat sartu zutelako edo kristalen bat, edo berezko herrenak sortzen zitzaizkielako. Orduan erremolkea hartu eta etxera joaten ginen. Oraintxe arte ibili izan gara era horretara.

Neke eta ibili asko izan ditugu. Urte askotan ez oporrik, ez larunbatik eta ezta jairik ere. Orain berriz, lanerako gauza ez (barre egiten du), eta deskantsatzeko gogoan dut.

Mutikoak ere, perraketan ikasten izan ditut, baina lan oso zikina da perraketa, behi kaka artean, askotan aurpegi osoa behi kakaz beteta bukatzen da eta nahiko desatsegina izaten da. Mutikoak atzera egiten dute berehala, inork ez du ofizioan jarraitu.

□ *Oraingo gazteak zaildu gabe egongo gara, orduan? Edo errezago ohituta?*

Bai, hori izango da, nik behintzat ofizioa jarraituko duenik ez dut topatu. Nik ere, gus-tukoak diren beste ofizio batzuk baditut, baina orduan ez zen beste aukerarik eta zegoenari heldu egin behar.

□ *Gaurko egunean nora eramaten da ganadua perratzerara?*

Oraindik neu ibiltzen naiz, baina Zegama osoan, batz bestea, urtean behi bat kuratuko dut, era honetara kalkula ezazu denean. Adibidez Seguran eta Idiazabalen ganadu gehixeago izango da, baina hala ere. Ni leku askotan ibilia nago, Ikaztegietatik hasi eta Legorreta, Beasain aldea, Lazkao aldea, Legazpi, Brinkola, Zumarraga... hala ere, gaur egun, perratzaile lana asko gutxitu da. Behiak asko aldatu dira, lehen pinta behiak ziren, gaur egun behi pirenaiakoak ezarri dira gehienbat eta hauek askoz gutxiago herrentzen dira, aldearekin.

Erramientan ere, ikaragarri aldatu da gaur


egun, momentu honetan erramientak zorrotzen ez dago batere lanik baserrietan, gaur dena prestatuerriko erramienta dago, aurrerapen handia dago gauza horietan. Nik egia esan, errementari lanetan ogibidea irabazteko gaur egun ez dut ikusten zereginik. Garai batean, gehiegi ordaindu beharrik ere ez zegoen eta libre nahiko ateratzen zen, baina gaur egun, bateko autonomo, besteko beste zerbait, defenditzeko ere ez dago oso erraza, asko atera behar duzu eta errementaritzan egiten den lana ez da ordaintzen behar bezela.

Ni, nire lana bukatu dudanean, gustura nago, lasai, gaur egun oso zaila ikusten baitut. Gaur norberaren kontura baino lantoki itxurazko batean tokatzea hobe... beste ziurtasun bat, haiei ostiral iluntzea heldzen zaie eta astelehenera arte, libre, gure lanean ez zegoen inondik ere aukera hori.

Orain 50-60 urte, inork ez zuen nahi izaten kaminero, ferrobiario, guarda, kartera, aguazil..., oso soldata txikia zutelako batez ere. Denborekin asko aldatu da, gaur lanposturik onenak horiek.

□ *Giltza egitearena ere asko aldatuko zen ezta? Garai batean giltzen kopiari egiten al zen?*

Giltza handi bakar horiek bai, ferreterietan moldeak egoten ziren eta haietatik egiten ziren, baina bestela giltza txiki horiek bat ere ez, ez ziren egiten, hain txikiak ziren, bat ongi ateratzeko, hiru izorratzen ziren, orduan galdu egiten zenuen haiekin. Behar zirenean, Beasaina joaten nintzen gizon batengana, berak etxean zuen makina horietako bat eta harekin konpontzen nintzen. Ondoren,



Roman Ormazabal errementaria

## OFIZIO BATEN DESAGERTZEA

kopiadora txiki hauetako bat neuk jarri nuen, eta makina hauek bai egiten dutela lan garbia, azkarra. Giltza gai honetan ere gauza asko aldatu da, orain berriro ere, giltza modernoak daude, guk egiterik ez dugunak. Bueno, makinari ez dugunez ezin dugu egin. Makina horrek miloi erdia balio dizu eta Zegama batean ez dago horri buelta emateko adina merkatu, izatekotan herri handigoa behar du, edo Beasain, edo Ordizia.... horietan amortiza liteke.

### □ Barandilak egiten al zenuen batere?

Bai, horixe, leihotarako, balkoiak ere asko, hemen Alderdi Eder etxeetako barandila guztiak neuk eginak dira, era honetara, asko, Segura, Idialazabalen-eta... Askok lan egin dut baita itxitura baterako atea eginez ere, edo balkoietako lorontzientzat jardinerak etab. Lan haui eskerrak, bestela ez zegoen bizitzerik.

### □ Pena emango zizun bada, errementeria botatzeak?

Bai, nola ez, handia, oraindik ere askotan iruditzen zait haruntz joan behar naizela. Pena handia eman dit bai, baina ikusten nuen hori ez zegoela ondo eta herriari ere beharrezkoa egiten zitzaiola hori botatzea eta bista eta patxara hobea uzten dio bideari. Ahal den hoberen konponduta, gauzak hobeto joaten dira.

### □ Jarraitzen al duzu orain garajeen lanen bat egiten?

Bai, neu entretenitzeko adina lan egiten dut, egunean orrubete edo, baino lehen bezela ez, noski. Giltza batzuk egin eta lagunen bati zerbaite konpondu... entretenitzeko. Hemendik aurrera, emaztea eta biok bizi eta ibili egin behar dugu, egunpasa batzuk egin, lekuak ezagutzuz, etxetik kanpora bazkaldu, gaur egun jatetxeetan dauden eguneko menu horiekin gainera kartara ere ez daukazu jan beharrik, oso ondo daude, etxeko prezioan. Ez egunero baina, astean pare bat aldiz-edo egiten hasiak gara.

### □ Zegaman beste errementaririk izan al da?

Ni hasi nintzanean, beste bat ere hasi zen, Kruz Garzia Olaberrikoa, hura ere Teofilo-ekin ibili zen ikasten eta Errotaxarren jarri zuen errementeria eta perratokia bere aitak gidaturik. Hala ere, berak gustukogoa zuen txofertzan aritzea eta hala egin zuen, dena utzi eta Mendiarazengana joan zen. Nonbait ez zuen ikusten errementeritzan irteera handiegirik. Gerora ere ikusi da, semeak ere txoferrak ditu Kruzek.

Beste errementari bat, hemen Zegaman, herrero-motza esaten ziotena, Kandidaren aita, Leon Gorrotxategi. Hori nik juxtu-juxtu ezagutu nuen lanean. Nik lanean ia oso gauza



Roman Herreriako atean

gutxitan ezagutu nuen hura, enkargu batzuk egin eta horrela.

Harategian txorizoa banatzen zutenean goizeko zazpitan, gau guztian zain egon eta goizeko zazpitan txorizo sestrakara bat banatzen zuten Joxek eta bere aita zenak. Handik pusketa bat etxera eramateko, han egoten ginen ilaran bostetatik atarian (portalean), gaur eguneko Benitoren harategian.

### □ Txorizoa zergatik banatzen zuten, bada?

Jendea lapikoa zerbaite gozatzen laguntzeko. Joxek denon bistan pisatzen zituen, eta gero zenbat lagun ginen kontatu, eta zenbat gramo tokatzen zitzaion bakoitzari kontua ateratzen zuen.

### □ Debalde ematen al zuen hori?

Ez, ez, ordainduta. Ilaran beti lehenengo egoten ziren Bittori, Luis Otaegiren ama eta Maria handi deitzen geniona. Ez zegoen aurrea hartzerik horiei. Zenbat eta aurrerago izan, txorizoa hobea izaten zen eta jendea goizeko ordubaterako ilaran egoten zen. Seboa ere, astean behin banatzen zen eta sebokolan geundela, Pako Irastorzaren anaia, Juanito, kamioiak harrapatu zuen eta hanka guztia txikituta gelditu zitzaion. Gu mutikoak ginen eta hura, harrapatu zuenean, ez dakit zenbat urte izango zituen, 5-6 bat urte. Gogoratzen dut nola farmaziara ekarri zuten izara baten bilduta, baina ezin ezer egin eta ez dakit nora eramatu zuten eta han hil egin zen.

### □ Gaia aldatuz, jakin dut izugarritzko afizioa duzula errekoratorioak jasotzeko, hala al da?

Bai, gogoratzen dut gure etxean etxe-aldaketa zela eta herrerian ere trasteak txukuntzen, gure emakumeak ikusten nituela eliza liburuak hartu eta errekoratorioak piloka bota-

tzen. Horrelaxe esan nion nire emazteari: "Mariatxo, ikusten dituzun errekoratorio guztiak jariezazkidazu pilo batean, ez bota bat bera ere". Kaja handi bat bete zen. Emazteak galdetzen zidan: "zer egin behar duzu horiekin?", eta nire erantzuna: "horiek jaso egin behar ditut nik", albu bat banuen nonbaite-rik ekarrita eta bertan jartzea pentsatu nuen. Gero jartzen hasi nintzanean, errekoratorioen artean bilatzen nituen, adibidez, senar-emazte batzuk eta elkarrekin jartzen nintuen, bikoteka ez nituenak berriz, askotan eskatu ere egiten nintuen.

Azken 30 urteotan zegaman hildakoen errekoratorio gehienak ditut.


### □ Diarioa egiten duzula ere badakit, noiztik?

Ni hau, 1975etik-edo hasiko nintzen egiten, bakarren bat badaukat 1970ean edo egina, baina. Egunero-egunero, egunean pasatu diren gauza garrantzitsuenak kontatzen saiatu naiz. Edozein istripu, uholde gertatuz gero edo atentaturen bat gertatuz gero ere, nik dena idazten dut. Egunero-egunero ohera joaterako idazteko ohitura dut, eta gauean egiten ez badut, goizean lehenengo gauza horixe idaztea egiten dut. Egunero egiten ez bada bi edo hiru egun atzeratzen baduzu ezin da berdin gogoratu. Lehenengo eguraldia jartzen dut, lainotua, hotza, euria... Norbait hil bada ere bai, hau beste liburu txiki batean eramaten dut. Eskelak, Zegamakoak, Segurakoak eta inguruko denak, 1975etik aurrera, horrelako 25 liburu ditut. Askotan gogo gutxirekin idazten dudanean, tontokeria asko jartzen ditut.

EDURNE ALBIZU



## OFIZIO BATEN DESAGERTZEA



### JOXE ORMAZABAL TELLERIA

*"Madrilera joan nintzen berogailuentzat kalderak egiten ikastera"*

#### □ *Noiz eta non jaio zinen?*

1925eko apirilaren 24an jaio nintzen Zegaman, Intxaurtxueta baserrian, Ondarre auzoan. Intxaurtxuetan jaioetako azkena naiz ni. Ondoren aldaketa ugari egin genituen, sei bat hilabete nituela Goialdera joan ginen, hain zuzen ere, Ospital-haundi baserriara. Ondoren Olaberri aldera, gaur egun Garakoa denda dagoen lekura, urte bat bete nuenean gutxi gora-behera, Olaberrin bertan Pilar-enea etxera, handik 7 urte nituela Zatzaliera aldatu ginen eta jaunartze handia egiterakoan, 11 urtekin gutxi gora-behera, Intxaurtxetara berriro, aitona eta izebari laguntzera.

#### □ *Non eta nola hasi zinen lanean?*

Inprentan mutil gazteak behar zituztela eta 14 urte nituela sartu nintzen Inprentan, garai hartan gure aita eta ama Zatzalierren bizi ziren artean. Bost mutil gazte behar zituzten eta, Teodoro Alzola, Juan Arana, Pako Alustiza, Felipe Azurmendi eta ni neu hartu gintuzten.

Gu pintxe modura ibiltzen ginen korreoko tresnak antolatzen, egunean 2 pezeta irabazten genituen eta astean 12 pezetako sobrea etxera.

Erreformak egin behar zirela eta, etxera bidali gintuzten. Orduan, 15 urte nituela, Teofilo Mintegi errementariarekin, errementari lanak ikasten hasi nintzen 18 urte arte.

Jose Azurmendi guardaren anaia perra saltzen ibiltzen zen eta hark komentatu zigun Lekunberriko albatariak laguntzailea behar zuela eta neu joan nintzen Lekunberrira zazpi hilabeterako. Lekunberrin, egunean 12 pza irabazten nituen eta gainera mantenua ematen zidaten. Oso ongi ordaintzen zidaten.

Teofilo ezinean hasi zen garaian, gure aita eta amak errementeria berria eta familiakoa irekitzea pentsatu zuten, 1945. urtean.

Martutenetik ere deitu zidaten, Martuteneko baserriarren ermandade batera, perrato-

kia martxan jarri eta errementaritzan egiten nuen lana.

1953ko uholdeak harrapatu ninduen Martutenen, 3,90 metroko ura izan genuen tailerrean. Gure ondoan zegoen zerra fabrikaren teilatua urak nola eramaten zuen ikusi genuen geuk.

Gu hiru familia oso, hirugarren solairu batean egon ginen leihotik begira.

Goizeko 8etan txalupa bat etorri zen bizirik geunden edo ez jakiteko eta handik ateratzeko. Nik arratsaldeko 19:30etan hartu nuen txalupa eta laster batean apeaderora joan nintzen Zegamara deitzera, baina ezin izan nuen, inkomunikaturik geunden.

Tailer guztia hondatua zegoen, motorrak lehortzeko sekadero batera eraman behar izan genituen. Izugarria izan zen.

Egun horietan Zegaman ere ura sartu zen etxetara, adibidez, errementerian 15-20 cm.eko urak izan ziren.

Egoera horretan Martutene uztea erabaki nuen eta beste lan batzutan hastea, era horretara nire ezaguna zen goarda batek komentatu zidan, 15 lagun behar zituztela goarda lanak egiteko eta horretarako azteketa bat egin beharko nuela. Animatu eta egin nuen azterketa hori eta gainditu ere bai.

Gaueko erronda egin behar izaten zen. Askotan gaueko mozkorreire aurre egin behar izaten zitzairen, ez zen batere atsegina. Egia esan, lau bat hilabetez aritu nintzen lan hartan, ez nuen batera gustukoa.

Egoera honetan, Madrilera ikastera joateko aukera azaldu zitzaidan eta haruntz joan nintzen zerbait berria ikasteko asmotan.

#### □ *Zergatik Madrilera?*

Lagun baten osaba Madrilan tailer bateko nagusietakoa zen eta errementari lanak egiten

zizkien langilea hil egin zitzairen. Tailer horretan errementari lana oso premiazkoa zenez, ordezkoaren bila zebiltzan eta lanpostua niri eskaini zidaten.

Nik, baldintza batzuk jarri nizkien, behin Madrilera joanez gero, errementari lanaz gain, beste lanen bat ere ikasteko aukera nahi nuen. Lantegi horretan itsasoko seinaleez gain konbentu eta elizetarako ikatzezko erregaiez berotzen ziren berogailuentzat kalderak ere egiten zirela esan zidaten eta hori izan zen ni Madrilera joateko arrazoia.

Nire lan baldintzak onartu egin zituzten, nik errementari lanetan egingo nuen beraiek niri berogailuentzat kalderak egiten irakaslearen alde.

Berogailuentzat kalderen instalazioak egiten ikastea, nire gustuko lana zela ikusten nuen eta aldi berean, neuk ikasiz gero etorkizunean lan egiteko modua ikusten nuen, hau da, lan honek geroa zuela ikusten nuen.

Beraz, burubelarri ekin nion ikasteari eta errementari lana ere ez nuen alde batera utzi.

□ *Errementaritzan esaten duzunean, zertaz ari zara? Esplikatu al duzu zer lan den errementari lana?*

Errementaria, metalak, eta batez ere, burdina lantzen dituen arotza da.

Ulertzeko, hauxe da, garai batean, tailerrean materiala seriean ateratzen zen normalean, eta askotan tailer horietako piezaren bat haus-tenean, tailer horietan garai hartan ez zen egoten konpontzeko modurik, orduan, errementariak konpontzen zituen hautsitako pieza horiek. Hamaika konponketa egin izan ohi ditu errementariak. Gaur egun, tailer guztietan egoten da soldatzailea eta bertan konpontzen dira pieza guztiak, baina garai hartan, piezak kaldeatuz konpontzen ziren eta



Jose Ormazabal errementari lanean

tailerrak ez zuten lan hori egiten. Horregatik zen hain garrantzitsua errementaritzea.

❑ *Madrilera itzuliaz, nola egiten zenuen ikasi eta aldi berean lan egitearena?*

Lehen esan dudana bezela, ni baldintza horrekin sartu nintzen, errementaritzean lan egingo nuen baina honen truke ikasteari emango nion garrantzia, eta hala izan zen.

Egun batzuetan autokable eta berogailu instalazioak nola egiten ziren erakusten zidaten, nola kaldera handi baten bitartez, lokal handia berotu zitekeen berogailu aparatu batzuen bitartez. Egia esan, dena adierazten zidaten eta nik oso interes handiarekin jarraitu nuen.

Garai hartan sistema hauek eliza eta konbentuetan jartzen ziren batez ere. Esan behar da artean ez zegoela oso perfektionaturik berogailu sistema hori, kalderatik plaketera zihoazen tuboak ere ez ziren kobrezkoak, bur-nizkoak baizik.

Madrilen 23 hilabetez egon nintzen eta egia esan behar badut nire bizitzarako oinarrizkoak izan ziren, bertan asko ikasi nuen eta ideia berriak ere oinarrizkoak izan ziren gerorako.

❑ *Zegama aldera itzultzerakoan berriz, ideia berriak lantzen hasi al zinen?*

Bai, lehenik Legazpiko Bellota enpresan lan egin nuen bi urtez, 1958 urtean. Baina Bellotak kaldereria lantzen zuen eta nik berogailuen mundua jorratu nahi nuen, beraz, Zegaman neure tailerra muntzatearen arriskua hartzea erabaki nuen. Momentu hartan Andres Larreak tailertxo zuen alokatzeko eta hantxe hasi nintzen.

Hasiera hartan, lana aseguru nahian, edozein lan hartzen nuen eta berogailuak ipintzeari lana pixka bat finkatu nuenean ekin nion. Lehenengo momentu haietan Garmendia anaiantzat lan asko egin nuen, batez ere, katu hidraulikoen txaxisa eginez.

❑ *Noiz hasi zinen beraz berogailuekin?*

Lana nahiko ondo zihoala ikusten hasi nintzen garaian, neure etxean probatxoak egiten hasi nintzen, etxeko berogailu instalazioa egin nuen eta egia esan, oso ondo atera zitzaidan. Esan behar dut Madrilen leku handietako berogailuak jartzen genituela, kaldera oso handiekin, baina ni etxe txikiagoetarako eta kaldera txikiagoekin hasi nintzen probak egiten.

Gipuzkoan iturgin asko zegoen momentu hartan baina berogailu instalazioak egiten zituenik, nik ezagututa behintzat, Tolosatik Zegamara bitartean inor ez. Berogailu instalazioa oso gauza berria zen inguru hauetan eta esan behar da pixkanaka sartzen hasi zela. Gero arrakasta handia izan zuen.

Nire bizitzan, nahiko berandu azaldu zitzaidan ofizio hau. Probak egiten hasi nintzenean, 35 urte nintuen eta lana ugari izan nueneko urte batzuk pasatu ziren.

❑ *Beraz ikusten zenuen berogailuen sistema, hemen sar zenezakeela?*

Nik esaten nuen, denborarekin sutarako ekonomikatik etxe guztirako berotasuna lortzeko modua egingo banu, bero hori plaka batzuen bitartez konterbatuz, etxe askotan izugarriko abantaila izango luketela.

Garai hartan etxe gehienetan, butanozko berogailuarekin edo beste batzuetan beheko suarekin gela bakarra berotzen zen edo gehienetan sukaldea bakarrik eta etxeko beste gela guztiak hoztuta egoten ziren, hoztuta ez, izoztuta.

Sistema honekin beheko suari kaldera jarriz eta gela bakoitzean plaka bat jarriz etxe guztia berotu eta tenperatura berean edukitzeko modua zegoen.

Momentu hartan eliza eta lokal handietan jartzen zen modura zergatik ez etxe partikularretan? Horretan saiatu nintzen eta arrakasta handia eduki zuen gainera.

❑ *Tailerra ez al zitzaizuen txiki gelditu, horrenbeste lan izanda?*

Bai, egia esan, momentu horretan lan asko nuen. Bost edo hamar bat langileri lana emateko ere izango nuen, baina lehen esan dudana modura, bizitzan nahiko berandu iritsi zitzaidan arrakasta hau eta pabiloi berri batetan sartzea ere pentsatu izan arren, ezeko era baki nuen. Momentu hartan, egia esan, egoera nahiko txarra zegoen lan munduan krisi gogorra jasaten ari ginen, zenbait enpresa sei hilabetean lanik gabe ere egon ziren. Beraz, arrisku handiegia iruditzen zitzaidan momentu hartan.

Gurea oso lan berria zen, ni hasi eta bost bat urtera, hasi ziren Espainiara etortzen lehenengo ekonomiak kanpotik.

Esan behar dut, bi urtetan jarraian erakustazoka batean egon nintzela berogailuen muntaia nola egiten zen erakusten, demonstrazio gisa. Hemen lehenengoak ginen gu, Valentzian zegoen etxe bat honetan hasita, baina esan liteke lehenengoak ginela.

❑ *Zein motako ekonomikak zuden?*

Bi motatako ekonomikak ezagutu ditut nik, zuria eta beltza, batzuk ekonomika zuria behar izaten zuten itxuraz garbiagoa ikusten baitzuten eta beste batzuk berriz beltza, indartsuagoak zirela esaten baitzen.

Egia esan nik zuriari eta beltzari tratamendu bera ematen nien, hau da, kalderei erreperadore mota berekoak egiten nizkien. Nik egiten nituen kalderak, lan asko suposatzen zuten eta koprobazio asko eramaten zituzten, nik beti pentsatzen nuen nire aldetik behintzat akatsik ez zezatela izan.

❑ *Berogailu sistemak nola eboluzionatu zuten?*

Lehenengo sistema, ekonomikarako izan zen, ura berotu ahal izateko balio zuen batez ere, eta aldamenean 25, 30 edo 40 litroko kalderin bat jarrita funtzionatzen zuen. Suaren bueltan "serpentina" egiten zitzaion, "tubo de acero estilau"arekin, beste batzuk egiten zuten berriz, kaldera jarri, baina hori ez zen ongi kalkulatu, ezinean ibili ziren, askotan beroegi egiten zen eta lehertzeko arriskua zegoen eta horretarako iturria irekita egon behar zuen, baina hori ez zen posible beti. Horregatik presioa kontuan hartu behar izaten zen eta presioa kontrolatzeko segurtasuneko balbula jartzen zitzaion eta oso garrantzitsua zen, behar zen garaian salto egiten baitzuten, bero larri hura, lurrindurik zegoen ura balbulatik ateratzen zen eta era horretara kalderina lehertzeko beldurrik ez zen egoten.

Berogailuak ekonomikarenak baino balbula handiagoa behar izaten zuen, hala ere, berogailuak abantaila zuen, lehenengo berotzen joaten zen eta behin neurri batean irakitera heltzen bazen, edozein arrazoi zela medio, plaka txikiegiak izatea, bero asko ematen duen egur ona eta su handiegia egitea, edo eguraldi epela izatea... orduan espantsioko depositoa edukitzean zuten goian eta espantsio horrek haruntz haizeak ateratzen zituen, ura joaten zen eta handik salto egiten zuen. Deskargatzen zenean, beheko aldean zuen hidrometro baten bitartez, ura zegoen ikusten zen eta ez bazeukan berria sartu eta honelaxe funtzionatzen zuten, era honetara arriskua saihesten zen. Arriskua saihesten arren, ezinezkoa zen beti ura sartzen aritzea, eta betetze automatikoa zeritzan giltza batzuk atera ziren merkatura, honen bidez, ur gutxi zegoenean nibelatu egiten zen.

Gure garaian hau guztia oso berria zenez eta ez zegoenez tekniko espezializaturik, gauza asko norberak probak eginez ikasi behar izan genuen baina denbora askoan lan egin behar izaten zen.

Hala ere, esan behar da, berogailuen ideia gehienbat ekonomiketarik sortu zela, ekonomikak sortzen zuen beroa etxe guztira banatu zitekeela ikusten baitzen.

### □ Zein erregai erabiltzen zen?

Ekonomikak egurra eta harri-ikatza erabiltzen zuten, egur-ikatza ere bai, baina garestiago zen. Hasiera hartan normalean, harri-ikatza erabiltzen zen.

Gerora gasoila sartu zen eta gaur berogailu gehienak gasez funtzionatzen dute, hala ere, badaude lehengo sistemarekin jarraitzen dutenak.

### □ Zuk zein erregai gomendatuko zenuke?

Gaur egun, nik uste dut gasa dela erosoena,

hala ere, gasoleoa ere ona da. Orain zein irte-ten den ekomonikoena? Nik neuk ez dakit, nik uste dut hemendik 15 bat urte barru antz emango zaiola.

Gasaren erosotasuna markatzen dut batez ere herrietan zisterna orokorrak jarri ondoren, norberak ez baitu inongo ardurarik hartu behar izaten.

Beste eretara, adibidez, gasoleoakin ardura-tu egin behar izaten da noiz bajatzen den gasoila zisterna partikularra betetzeko.

Adibide bezela, Zegamako elizan jarri genuen berogailu sistema lehenik, eta merkeena zelako, "Fuel Pesado" erabili zen erregai modura, nahiko sistema ezerosoa zen, fusibleak sarri-sarri aldatu behar izaten baitzitzaizkion. Ondoren gasoleoa jarri zitzaion, horretarako kaldera berria jarri behar izan zitzaion.

Gaur egun gasoleoz berotzen da, ikusiko da gerora, gauza asko aurreratzen ari da eta geroak berrikuntza asko ekarriko digu.

BEGOÑA OLARTE

## ZEGAMAKO JUBILATUEN ELKARTEA

### ABENDUA-URTARRILA

Kabalgatako arropak prestatu.

Tobera Musika Eskolak antolatutako Errege Magoen Kabalgatan, Errege Magoen jantziak konpontzen eta txukuntzen parte hartu genuen, eta era honetara, ekimen honetan lankidetzan aritu ginen.

### OTSAILA

1. Otsailaren 3an Abadiñora bidaiara; San Blas eguna ospatuaz egun ederra pasatu genuen Bizkai aldean, bazkaria Lur Gatika jatetxean eginez.

2. Lurdesko Amaren eguna; otsailaren 11an Lourdesko Amaren eguna ospatu ohi da Zegamako Jubilatuen Elkartean urtero, Meza ospatzen delarik eta ondoren txokolate beroa hartuz.

### MARTXOA

Urteko Batzarra egin genuen.

### MAIATZA

1. Egun pasa Baztanen; Elizondo ikusi eta bertan bazkaldu genuen Hotel Elizondo jatetxean. Bazkal ondoren Elizondon hain arrakastatsua den txokolatea erosi eta buelta etxera. Eguraldiak oso gutxi lagun-du zuen egun honetan.

2. Jesus Merchan Miguelek maiatzaren 23an 100 urte bete zituen eta bere omenaldian parte hartu genuen, Jubilatuen Elkartetik oparitxo bat eman genion.

3. Zegamako Udalak antolatutako Zaharriak erakusketaren barruan, pieza garbiketa lanetan eta ikuskari lanetan borondatez languntza eman dugu. Erakusketa oso baliogarria izan zaigu, lehengo kontuak berri-tzeko, nahiz gauza berri pila bat ikasi ahal izateko.

### UZTAILA

1. Uztailaren 8an, Jubilatuen eguna izan zen. Bi urte hauetan udako partean ospatu da eta egia esan behar bada, oso-osorik asma-tu da, eguraldiak izugarriako segur-tasuna ematen baitu. Eguna urtero bezela oso ona izan zen, bazkari ederra, bertsolariak, opariak, soinu-jolea eta gehien balio duena, giro ederra.

2. Egun pasa Hondarrabian; Hondarribia, herri zoragarria bene-tan, ikusteko ugari duena. Bazkaria aireportuko jatetxean egin genuen.

### ABUZTUA

Abuztuan, San Bartolome feste-tan, talde bezela kolaboratu nahian eta Udalaren gonbitea aintzakotzat hartuz, herriko beste zenbait elkar-tekin batera, paella lehiaketan parte hartu genuen.

### IRAILA

1. Irailean Peraltara bidaiara egin genuen, Tafalla bisitatu eta bertan bazkaldu genuen.

2. Orion antolatutako martxa erre-gulatuan parte zuen Zegamako Jubilatuen Elkarteko ordezkari batek.

### URRIA

1. Urriaren 26aren Miramonen Foru Aldundiko Gizartekintzak anto-laturiko Jardunaldi batean parte hartu zuen Jubilatuen Elkarteko ordezkari batek.

2. Gernikara bidaiara. Urtean zehar Gernikan egiten den azoka ospe-tsuena ikusteko aukera izan genuen.

### AZAROA

Azaroaren 16 eta 29an osasunari buruzkoa hitzaldiak antolatu ziren, hitzaldiak Amagoia Muruamendia-raz medikuak eman zituen. Gai inter-resgarriak, asko erakusten digute-nak dira hauek.

### ABENDUA: Kultur astea

Aurreko urteetan, Kultur astearen barruan, osasunari buruzko hitzal-diak egin izan ditugu. Aurten, hitzal-diak azaroan egin dira eta aben-duan berriz, urtero bezela joku txapelketa; Kultur Etxean bideo peliku-la ikusteko aukera ere izan da eta jokuei bukaera emateko, eta Santo Tomas eguna ospatu ahal izateko, txistorra jana urtero bezela.





## AIZKORRIKO LAGUNEN LAGUN BERRIAK

Uztailaren 2an ospatu genuen Aizkorriko Lagunen Eguna. Egun ederra, aurtengoa ere. Aizkorriko tontorrean, San Adriango basilizian, Santo Espirituko ermitan eta kiroldegiko bazkalorduan, mendizaletasuna eta lagunartea oparo leku guztietan. Omenduak ere goi mailako mendizaleak: EDURNE PASABAN, orduantxe Everest mendiaren gailurrera igo berria, eta JUANITO OIARTZABAL, diren zortzimilako guztiak eta bat gehiago igotakoa. Honenbestez, Aizkorriko Lagunen Elkartereko bi bazkide eta adiskide handi. Esker onez eskaini nahi izan diegu Zegamako Urtekarian orrialde hau, Aizkorriko Lagunen bigarren eguna gogoratuz.

## EDURNE PASABAN: MENDIZALETASUNA AFIZIO, EZ OFIZIO

Begirada narea du Edurnek, lasaia eta argia. Erraz imajina dezaket, han, Himalaian, Everest [8,848 m.] mendiaren gailurrean, inguruko edertasun oparoari begira, pozik:

*"Iritsi gara, hemen nago. Etxerako bidea orain".*

Eta berdin ikusten dut, Dhaula-giri mendian, 7.800 metrora igota, elurrezko hormatzarreen nabarmendutako pitzadura beldurgarriei ere, arretaz begira:

*"Ez, ez dugu aurrera egingo, arriskutsuegia da. Har dezagun etxerako bidea".*

Neure begiak ixtea nahikoa, bereak, malkoz, lauso eta triste gogoratzeko, joandako udazkenean Dhaulagiri mendiaren altzo izoztuan betiko gelditu zitzaion Pepe Garces adiskideari, negar-ixilean, agur esanez:

*"Eta, orain, gu ere etxera, Pepe".*

Eta halaxe ikusten ditut Benantxio Irureta eta biak, han, Pumoriko edertasunaren elurrezko zurrumbilok irentsitako bost euskal mendizale gazteei ere betiko agur esan beharrean, Benantxioren hitz ederak airean:

*"Munduko lekurik ederrenean zeuden, Edurne. Goazen etxera".*

Edurne, Tolosarra da, Altzon bizi da eta, inoiz, Zizurkilgo ABELETXE aterpetxera joaten bazara, beharbada, berak aterako dizu salda beroa. Errepara iezaiozu une batez bere begien lasaitasunari. Erraz imajina dezakezu Edurne Pasaban, Himalaiako mendien edertasunean, beste zortzimilako baten gailurretik itzuleran edota, halako batean, emakumez bakarrik osatutako espedizio baten buru, lasai asko esanez:

*"Beno, neskak, hemengo lanak bukatu dizkinagu. Goazen etxera".*

Ongietorri, beti, Edurne. Urte-berri on, Zegamatik, Aizkorriko lagunen partetik.



*Jendetza Aizkorriko gailurrean*



## JUANITO OIARTZABAL: "LA ILUSIÓN ES LO ÚNICO QUE NO ME FALTA"

Mundu osoan sei baino ez dira Himalaiako zortzimila guztiak igo dituzten mendizaleak. Joanito Oiartzabal horietako bat, alajaina. Hamalau zortzimilakoak igotzea gutxi bailitzan, propinako bat ere eskaini digu joan zaigun urtean: Everesteko gailurra [8.848 m], bigarren aldiz, oxigenorik gabe oraingoan. Horrelakoxea da Juanito, beti aurrera, eta halaxe lortu du munduko mendizalerik mirestuenen tranpaldora igotzea.

Inork lortzekotan, Juanitok, orain-txe bertan ere ilusia da eta gainezka dariona. Urtebeteren buruan, Txinan, TaklaMakan-go basamortua zeharkatu du, Everest oxigenorik gabe igo eta 27 egun eman ditu Alpeetan, Courmayer-en, Mont Blanc-en Italia aldeko partean. Horrelakoxe da Juanito; urteak urte, nekeak neke, kosta ahala kosta, beti aurrera.

Eta urte berrirako ere buruan darabilki, dagoeneko, behin berritan Makalu mendia [8.515 m] igotzea, ekialdeko hegitik oraingoan. Eta aurrerago, noski, 85ean igo zuen estreinako zortzimilakoa berriro igo nahi luke, Txo Oiu [8.153 m.] mendia, alegia. Eta horrela, Himalaya, Mont Blanc, Yarlung Tsangpo, Mc Kinley, Kilimanjaro... , nonahi, Juanitok beti aurrera.

Urteberriak ere ilusioz bete zaitzala, Juanito. Urteberri on, Zegamatik, Aizkorriko lagunen partetik.



*Zegamatik  
Aizkorriantz*



*Mendizaletasunari lotutako lehen mailako pertsonaiak izan genituen Zegaman*

## SAN BARTOLOMEAK 2001

Eguzkia eta eguraldi beroa izan dira aurtengo San Bartolome jaietako ezau-garri nagusietarikoak. Abuztuaren 23tik 26ra (biak barne) luzatu ziren herriko festak. Kontuan hartu behar da tabernari eta txosnetakoak aipatutako egunei irailaren 1a ere erantsi zietela.

Iazko antzera aurtengoan ere azpimarragarriak izan dira giro jatorra eta herritarren parte hartzea.

Festaren hasiera ofiziala abuztuaren 23ko txupinazoa izan arren, ohitura bihurtu dira dagoeneko abuztuaren 22an herriko koadrila eta lagun taldeek egiten dituzten afariak eta ondorengo festa eta algara.

Abuztuaren 23a, festak eskaintzen dituen lehen kontraste aipagarriak begien aurrean ditugu; alegia, Apeadero lgoerako txirindulari probako parte hartzaileak lehen beroketak egiten eta bezperatik ezin etxeratuta dabilzanak, guztiak herriko kaleetan zehar.

Festetako programa gaztetxoek txirindulari probarekin hasten da eta azkenik, Jabier Berasategiren omenez egiten den Apeaderoko 4. lgoerarekin. Proba horietan prestaketa maila ona eta parte hartze bikaina izan zen eta irabazleen zerrenda honako hau izan zen:

### Jabier Mendizabal

Unai Larrea	2	1	3	Xabier Agirre
-------------	---	---	---	---------------

**APEADERORA IGOERA**

### Ibai Arrizabalaga

Joseba de la Hera	2	1	3	Maria Atxa
-------------------	---	---	---	------------

**7 URTEKIK BEHERAKOETAN**

### Unai Atxa

Joseba Olaziregi	2	1	3	Jose Jabier Malkorra
------------------	---	---	---	----------------------

**7, 8 ETA 9 URTEKOAK**

### Joseba Arakama

Iñaki Kastro	2	1	3	Ibai Urbiztondo
--------------	---	---	---	-----------------

**10 ETA 11 URTEKOAK**

### Unai Agirre

Arkaitz Aldasoro	2	1	3	Gorka Aierbe
------------------	---	---	---	--------------

**12 ETA 13 URTEKOAK**

### DISFRAZAK KALEETAN ZEHAR

Eguerdiko hamabiak hurbiltzen zihozazen heinean, plaza inguruak kolore eta giro bereziz pizten zihozazen. Koadrilak eta lagun taldeak plazan elkartu ziren mozorroturik eta txarangak doinu alaiekin festa hasierako txupinazoa girotu zuten. Algara eta alaitasunez beteriko une honetan, pregoia irakurri aurretik, festetako programaren azaleko argazki lehiaketaren lehen saria eman ziren. Aurtengo irabazlea Mikel Berasategi, Maittegi baserrikoa izan da, udalerrria Aratz eta Aizkorrekin batera elkartzen dituen argazkiarekin. Txupinazoa bota ondoren, mozorrotutako koadrilek txarangarekin batera herriko txokoak alaitzen zituzten, eguerdian egiten den bazkarira arte. Egun guztia mozorrotuta pasatu ondoren, iluntzeko 8etan Kultur Etxeak antolatutako disfraz lehiaketaren sariak banatu ziren. Aurten-goak hauek izan dira:

Bakarkako Saria: **Ander Lasa**

Jantzi landuenaren saria: **Arrantzaleak**

Giro gehien sortu zuena:

**La hora de Eva Nasarre**

### FESTAK ETA ELIZKIZUNAK

Ohitura denez, festek beraiekin izaten dituzten kristau ospakizunak. Abuztuaren 23an, arratsaldeko 5etan hasten dira San Bartolome Ermitan egiten diren Bezperekin. Jarraipena, San Bartolome eguneko Meza Nagusiarekin ematen zaio, ohikoa den moduan, San Bartolome Ermitatik Elizaraino egiten den prozesioa amaitu ondoren. Meza horretan, herriko Orkatz Abesbatzak abesten du. Azkenik, San Bartolome bigarreanean, urtean zehar hildako

herritarren aldeko meza ospatzen da, goizeko 10etan, San Bartolome Ermitan.

### BALKOI ETA LEIHO APAINKETAREN LEHIAKETA

Iazkoan lehiaketa hiriguneko eremura mugatu bazen ere, aurtengoan udalerriko baserrietara ere hedatu da. Beraz, lana zaildu egin zitzaien epaimahaikoei. Kontuak kontu, aurtengo lehen saria Goialdeko Amiano-Barrena baserrira joan zen, Itziar Etxaberen eskuetara, hain zuzen ere. Zorionak berari eta leiho, balkoi eta etxe inguruak apaindu eta polit edukitzeko eskaera herritar orori.

### DANTZARIAK SAN BARTOLOME EGUNEAN

San Bartolome eguerdiko meza bukatu bezain agudo, udal korporazioak dantza saioa egiten du herritarren aurrean Beasaingo dantzarien laguntzarekin. Dantza saioaren erdian, ikuskizun paregabe honetara hurbildu zenetarikoa batek bere ondoan eserita zuen etxeakoandeari honela esan omen zion: "herriko lanak dantza baino hobeto egingo ahal dituzte, bestela konponduta gaude...".

Baina ondorengoak bai, benetako dantzariak! Donostiako Trebeska dantza taldeak, eguerdian eta arratsaldean, gure kulturaren errotuta dauden dantza saio paregabeak eskaini zizkigun. Politia benetan emandako ikuskizuna.

### BARRAKAK LEKUZ ALDATU

Olaran auzoan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen ari direla eta, barrakak zine atzeko aparkalekuan kokatu dira, beraz, azkeneko urteetako kokalekua aldatu da.



Abuztuaren 26ko umeen eguneko jokuak

## PAELLA ETA SARDINAK DASTAGAI

Abuztuaren 25ean, iazko antzera, paella lehiaketa ospatu da Udaletxeko Plazan. Aurten ere, herriko bost elkartetako 10 bikote aurkeztu ziren, elkarte bakoitzetik bina. Goizeko hamarretan hasi eta eguerdiko ordu batean amaitu zuten lana eta bikote irabazlea Amezti elkartekoa izan zen, Julian Iraola eta Aitor Galdosek osatua, hain zuzen ere, eta bigarrena Kasino Elkarteko Pako Ormazabal eta Ignacio Urbizuk osatua.

Bestalde, abuztuaren 26an, parrillan erretako 60 kilo sardina eta nahi beste sagardo banatu ziren bertaratuen artean.

## HERRI KIROLAK

Iñaki Perurena eta etorkizun izugarria duen Inaxio semea hurbildu ziren Zegamara. Bertaratuak oso gustura gelditu ziren harri-jasotze erakustaldia-ekin. Bestalde, festa aurretik zeresana eman zuen sokatira apustua ere plaza-ratu zen. Alderdi batetik, Eduardo Irastortza, Domingo Arrieta, Imanol Berasategi eta Izaro Arrondo eta bestetik, Felipe de Prado, Juan Inazio Urbizu, Joseba Albizu eta Jose Mari Urbizu. Lehendabiziko laukoteak irabazi zuen apustua. Ohiko aizkora apustua ere ez zen falta izan saioan eta bertan, Jose M<sup>a</sup> Esnaola herritarrak parte hartu zuen.

## AFIZIONATUEN MAILAKO SAN BARTOLOME TXIRRINDU FROGA

- 1.- Iñigo Urretxua
- 2.- Lander Euba
- 3.- Aitor Perez

## BESTE OSPAKIZUN ETA EMAITZAK

Plater-tiroa: irabazlea **Igor Ormazabal** izan zen.

Futbitoa: **Shalky 07**

Toka: **Joakin Irastorza**, lehen herritarra

Gipuzkoako Bolo Txapelketarako baliagarria: **Antonio Miner**

## HAURREN BOLO TXAPELKETA

- 1.- JON ALDASORO
2. IBON ZABALETA
- 3.- GORKA AIERBE

## HERRITARREN BOLO TXAPELKETA

JOSE MARIA AZURMENDI



*Plater-tiroko partaideak*



*San Bartolome egunean arkua egin zuten neskak*



*Trebeska dantza taldea Zegamako plazan*



*Sokatiran egindako mutil taldea*

## **SAN MARTINAK**

### **SAN MARTINAK AZAROAREN 17AN**

lazko urtekarian jakinarazi zen moduan, aurtengo San Martin Azoka azaroaren 17an ospatzea, Beasaingo Odolkiaren Kofradiak, Ordiziako Udalak eta Zegamako Udalak datozen 10 urteetarako adostutako akordioaren baren kokatu behar da. Akordio honen bidez, Goierriko hiru herri horietan sasoi honetan ospatzen diren azokak egun berean ez gertatzea lortzen da. Bestalde, jakinarazi behar da datorren urtean (2002an) San Martin Azoka azaroaren 9an ospatuko dela Zegaman.

### **EGITARAU ZABALA ETA ANITZA**

Aurtengoan ere, San Martin Azokaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dira. Azaroan 8an eman zitzaien hasiera e hizari buruzko sukaldaritza ikastaroarekin, Koldo Lasa sukaldari ospetsuaren eskutik. Azaroaren 12an, ingurumenaren arloari ukitzen zion gaia izan genuen entzungai; alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendaria den Leire Ereño Osak eta departamentu bereko teknikaria den Xabier Zabala Ibarbiak "Agenda 21" ari buruzko hitzaldi eta informazio guztiz interesgarria eskaini zuten.

Gastronomia jorratu zen azaroaren 13an, Zumarragako Kabia jatetxeko sukaldaria den Juanma Hurtadoren eskutik; hain zuzen ere, gure basoetan udaberriatik udazkenera hain ugari diren perretxikoen inguruko sukaldaritza ikastaroa.

Azaroaren 14an latxa ardia eta Idiazabal gaztari buruzko hitzaldi eskaini zuten Nikolas Segurola eta Jose Pablo Larreak. Esan behar da, Nikolas Segurola, Azpeitiko Matxinbenta auzoan jaioa eta Arantzazun frantziskotarra dela. Halaber, Gomistegi baserrian artzain lanetan jarduten duela eta Artzain Eskolaren tutorea dela. Bestalde, Jose Pablo Larrea, Andoainen jaioa, albaitaria eta Zumitz elkarteko presidentea da (etiketa beltza eta berdea duten gazten selekzioan jarduten du). Beraz, bi hizlari horien esperientzia eta jakinduria eskaini zitzaie bertaratu-tako guztiei. Esan behar da hitzaldia bukatutakoan, ekarri ziren gazta ezberdinak dastatzeko aukera ere izan zela.

lazko antzera, aurtengoan ere ardoari bere lekutxo utzi zitzaion egitarauan eta azaroaren 15ean "Homenaje de Bodegas Marco Real" bodegako etnologoak gidatu zuen geroz eta atxikimendu handiagoa duen ardo kata. Ondoren, Rubioren jatetxeak prestatuturiko afariarekin eman zitzaion amaiera egunari.

Aipatu behar da sukaldaritza eta kata ikastaroak Intxaurrendoko Euskal Herriko Gastronomia Etxearen laguntzarekin egin direla eta ardi latxa eta Idiazabal gaztari buruzko hitzaldiak eta ondorengo kata Zegamako Kultur Etxearen laguntzarekin.

### **SEKULAKO GIROA PROFESIOALEN ARTEKO PILOTA PARTIDUETAN**

Azaroaren 16an profesionalen arteko pilota partiduak ospatu ziren udal pilotalekuan. Lehen partiduan Capellan-



*Eugenio Mendizabal eta hiloba gazta egiten*

Goni III.ak erraz menderatu zituzten Goñi II.-Lasa III.a (22-12). Esan behar da Goñi II.ak ez zuela erantzun zaleek espero bezala eta partidua hortik joan zela. Bestalde, bigarren partidua guztiz interesgarria eta zaleek gehien txalotu zutena izan zen. Partidu hori Euskal Herriko lau t'erdiko txapelketaren baren kokatzen zen eta Otaegi azpeitiarra eta Etxaniz bergararra aritu ziren aurrez aurre. Aipatu behar da bi herrietako jarraitzaile ugari hurbildu zela Zegamara, baina azpeitiarren presentzia nabarmenagoa zela. Esan bezala, partidua borrokatua eta lehiatu izan zen eta 22-18 amaitu zen azpeitiarraren alde.

Azkenik, azpimarratu behar da partidua ETBk eskaini zuela eta udal pilotalekuan izugarritzko jendetza elkartu zela.

### **SAN MARTIN EGUNA**

Aste guztia eurtan joan bazen ere, azaroaren 17a guztiz ederra egin zuen. Goizeko lehen orduetatik hasita, Udalak jarri zituen bi karpak eta inguruko eremuak saltzailez betetzen hasi ziren. Udaletxeko arkupeetan artisauek eta eskulangintza zabala ikusgai, Aitzuri Herri Eskola aurrean herriko hainbat abere ere txukun-txukun lerrotuta, udal pilotalekuan Aizkorri eta Urbiako artzainen arteko 3. gazta lehiaketa, beste saltzaile batzuk eta gazta antzinako erara eta ogia egitearen prozesua ikusgai eta eskualdeko txistulariak beraien doinu alai eta pozgarriekin azoka eremua jantzi zuten. Halaber, udal pilotalekuko bigarren solairuan orain egun batzuk martxan jarri berria den Ehungintzako Enplegu Tailerreko instalazio eta ekipamenduen erakusketak guztiz atsegina eta Kultur Etxean pintura erakusketak izan ziren ikusgai.



*San Martinetan Kultur Etxeak antolaturiko ardi latxa eta Idiazabal gaztari buruzko hitzaldia. Jose Pablo Larrea eta Nikolas Segurola argazkian*



Beraz, jai eguna aipatutako zutabeetan oinarrituta garatu zen. Eguerdian, nola ez, sari banaketaren orduan iritsi zen. Urtetik urtera arrakasta eta sona gehiago hartzen ari den gazta lehiaketak epaimahai ospetsu izan zuen; hain zuzen ere, Miguel Indurain (txirrindulari ohia), Abraham Olano (txirrindularia), Kontxu Odriozola (Goenkaleko M<sup>a</sup> Luisa), Miguel M<sup>a</sup> Etxebarren (Real Sociedadeko mediku ohia), Peio Garcia Arriano (gastronomoa), Nikolas Seguro (Artzain Eskolako tutorea) eta Ana Martí (San d'Urgelleko alkateordea). Epaimahaiak lehiaketara aurkeztutako 21 gaztak dastatu zituen eta horien artean lehenengo hirurak aukeratu zituzten. Honakoak izan ziren:

- 1) M<sup>a</sup> Angeles Iñurrategi- Zerain
- 2) Jesus Aranburu- Idiazabal
- 3) Joxe Migel Azurmendi- Zegama

Ondoren, lehiatu ziren gazta guztiak bertaratu zen jende ugariaren artean banatu zituzten herriko elkarteek Errioxako ardoarekin batera.

Bestalde, adierazi behar da ganadu asko aurkeztu zela lehiaketara. Irabazleak ondorengoak izan ziren:

Zaldietan: **Juan Migel Larrea**

Etxe behorretan: **Lourdes Arrieta**

Mendi behorretan: **Pedro Azurmendi**

Behi suizetan: **Imanol Ruiz de Egin**

Behi pirenaikatan: **Sabina Arakama**

Behi mestizoetan: **Pedro Azurmendi**

Bildotsetan: **Santi Katarain**

Ardietan: **Mari Paz Oiarbide**

Zezenetan: **Maria Zabaleta**

Arratsaldean, buruhandi eta erraldioen kalejira egin zen herriko kaleetan zehar. Ondoren, udal pilotalekuan herri-tarren arteko eskuz binakako San Martinetako 3. txapelketako finalak jokatu ziren. Giro ederrean bizi ziren partidu horien emaitzak ondorengoak izan ziren:

#### HELDUAK:

Xabier Arakama eta Aritz Irastorza = 22

Jon Arakama eta Ruben Zabaleta = 4

#### KADETEAK:

Aritz Agirre eta Ruben Casanova = 19

Oier Arkonada eta Iker Azurmendi = 22


#### INFANTILAK:

Gorka Aierbe eta Mikel Berasategi = 10

Eñaut Alberdi eta Aitor Zabaleta = 18



*Koldo Lasa Sukaldaria*



*San Martin Feriako Ganadu Lehiaketa*



*Gazta Lehiaketako irabazleak*

#### BENJAMINAK:

Arkaitz Aldasoro eta Ander Ormazabal = 4

Arkaitz eta Estebe Ariznabarreta = 16

Arratsaldeari amaiera emateko, herri-tarren arteko aizkora apustua egin zen eta Joxe Mari Esnaola eta Iker Zubeldiak Arakama anaiak gainditu zituzten.

#### IGANDEAN ERE JENDE UGARI

Azaroaren 18an, igandean, udal pilotalekuan "El Diario Vasco" torneoko pilota partiduak ospatu ziren eguerdiko 12etan. Jendetza handia hurbildu zen

frontoira eta guztiak liluratuta irten ziren Oinatz Bengoetxea, aurrelari leitzararren jokoarekin. Adi horrekin, pilotari handi baten aurrean egon gaitezke eta.

Igande arratsaldean, eguraldi bustia egin arren, Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailazoaren emanaldiak arrakasta itzela izen zuen. Haur eta guraso ugari elkartu ziren frontoian hain gutxi lantzen dugun irribarrea egiteko. Ondoren, barruak ere alaitu eta bertzeko Guraso Elkarteak prestaturiko txokolate bero-beroa hartzeko aukera izan zen.

## ZEGAMA ZENTRU METEOROLOGIKOA

2001. urteko datuak eskuartean izanik, urte osoko datuak egunez egun ematea aspergarrizamarra iruditu zai-gunez, hona hemen hilabetekako batz bestekoak:

Bestalde, norbaitek egun zehatz bateko datuak nahiko balitu jo beza Udaletxera.

	Prec. (l/m2)	t.max. (°C)	t.min. (°C)	Rachamax. (km/h)	Humedad relativa (%)
Urtarrila	198	17	1,4	103	74
Otsaila	40	19,2	-1,2	94,3	75,3
Martxoa	179	24,7	-0,3	97,6	68,2
Apirila	74	22,4	-0,4	83,5	74
Maiatza	26	31,5	1,7	67	72,3
Ekaina	20,2	37,3	7,6	47,5	72,6
Uztaila	73,8	30,4	9,3	69,8	79,4
Abuztua	10,9	35	10,4	77,4	69,6
Iraila	46,9	24,8	6,6	67,7	74,1
Urria	82,6	25,8	7,2	88,6	63,7

Guztira: 751,4 l/m2

### Argibideak:

- Prec. l/m2 = Euria, m2 bakoitzean zenbat litro.
- T. max (°C) = Temperatura edota hozberorik altuena.
- T. min (°C) = Temperatuta edota hozberorik txikiena.
- Racha max.(Km/h) = Haizearen indarririk handiena, orduko zenbat kilometro.



**Construcciones  
MENDIOLA**

Labeaga, 9 - 1º URRETXU  
**943 720 511**

*Zorionak eta  
Urte Berri On*



**CONSTRUCCIONES Y URBANIZACIONES**

Promoción y Venta de Pabellones Industriales  
en Legazpi y Urretxu



Zorionak eta Urte Berri On!

OBRA ZIBILA  
ERREPIDEAK, ZUBIAK, ERREKA BIDERAKETAK  
INDUSTRIALDEAK, KANALIZAZIOAK, URBANIZAZIOAK




Nafarroa Kalea, 50 • 20800 - ZARAUTZ (Gipuzkoa) ☎ 943 13 23 34  
Fax 943 13 11 84 e-mail: ubiri@ubiri.com

## IZADIA ETA AINTZINA IBILBIDEA ZEGAMAN

Zegamako Udala eta Goimen Elkarte, Izadia eta Aintzina proiektuan elkar lanean aritu dira. Proiektuak, eskualdean zehar gure arbasoen bizi-modua, nekazaritzaren aztarnak alegia, nabarmen biltzen dituen gunek sailkatu eta ezagutarazteko asmoa du. Zegamako kasuan, Murgizelaitik San Adrianera doan bidean, hasieran dagoen natur gunea hautatu da Goierri mailan egin nahi den sarean sartzeko. Bertan, garai bateko nekazal jarduerak, naturarekin, bertako baliabideekin azaldu-tako erabilera dugu aipatzekorik garrantzitsuena, egurra eta harriarekin, egin izandakoa. Egun neka-zalturismo, pinudi eta oreinekin dagoen gunean, garbi jaso dira harresiez markaturiko gurdibideak, ezkutuan jasoriko oilategiak, besteentzako lan egi-ten zutenen "saletxeak", lubizien aurkako "terra-zak" soro trinkoak mantenduz... burdin ura duen iturriaren bueltan, harri lehorraren teknika zahar-rean eraikitako artegiak eta gaztainondo trasmot-xatuak, besteak beste.

Lasai lasai, ordu pare batean egin daiteke-en bide honetan, paisaiatz eta basoaren ixiltasunaz gozatzetik aparte, oso eremu txikian espezie botani-ko anitz ezagutzeko aukera ematen du. Insignis, larizio eta douglas artean dirauten elorri zuri, arantz-a beltz, txilar, ereintz eta abarren konbinaketak, esne baldez gure amonen oin biluztuak eginiko bidea edertzen jarraitzen dute, eta gizakiaren arima pizten... Hemendik, gure gonbitea!

MANEX ARANBURU



## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

2001eko maiatzaren 13an, Euskal Autonomi Elkarte, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Zegaman, ondorengo emaitzak eman ziren (1998an Eusko Legebiltzarrerako egin ziren datuak ere azaltzen dira):

	ZENTSOA	ABSTENTZIOA	EAJ-EA	EH	PSE-EE	PP-UA
2001ean	1.104	133	655	254	9	31
1998an	1.131	242	479	357	8	35

## **BASOZAINAK ZEGAMAN**



### **JOXE AZURMENDI LARREA**

*"Aita zana basozaina zen Berastegin eta jubilatut zenean Zegamara etorri ginen bizitzera"*

**□ Non eta noiz jaio zinen?**

1918ko otsailaren 7an jaio nintzen Leaburun. Aita zana basozaina zen Berastegin eta jubilatut zenean Zegamara etorri ginen bizitzera. Gerra garaia zen eta nik 18 urte nituela eraman ninduten gerrara beraz, gerra bukatutakoan Zatzalier baserrira etorri nintzen, amaren jatorriko baserria da hau eta.

Soldaduska arte lan desberdinetan ibili nintzen eta gerran berriz 5-6 urte, tontotzeko lain denbora egin genuen.

**□ Goarda ofizioa zergatik hartu zenuen?**

Gerra bukatuta gero ez zegoen lan handirik eta hala anuntziatu zituen Diputazioak plaza batzuk eta hara presentatu ginen, azterketa Donostian egin genuen.

**□ Garai hartan zein lan burutzen zituen goarda edo basozain batek?**

Orain bezela, finka partikularrak eta publikoak atenditzen genituen eta baita Partzuergoa ere. Ataun aldetik ere lana etortzen zitzaidan askotan, hango goarda askotan "edan pasauta" ibiltzen baitzen eta neurketak eta ez zituela tajuz egiten eta ni bidaltzen ninduten. Jubilatut aurretik erotu beharrean ibili nintzen lanak gainezka eginda.

Besteak beste, birlandaketak, neurketak, garbiketak, entresakak eta baita pistak nondik ebaki behar ziren ere; partikularretan berriz neurketak e.a.

**□ Zein arbola mota zegoen garai hartan Partzuergo eta finka partikularretan?**

Aralar eta Partzuergoan aprobetxamenduak izaten ziren, pagoa batez ere.

Partikularretan berriz intsignisa.

Intsignisak 30-35 urte behar izaten ditu hazten, lurraren arabera, pagoak berriz 50 urtetik gora. Pagadian landare txikiak etortzen dira ezkurretik eta orduan ganaduari kaso egin behar zaio itxiturak eginez.

Pagoa ateratzerakoan zein arbola botatzen zuten ondo begiratu behar izaten zen izan ere kontratista batetik bestera alde handia baitzegoen, hor ere denetik dago batzuk txintxoak eta besteak bihurriak.

**□ Lan hau gustokoa al zenuen?**

Basoa ondo jartzea beti izan dut gustokoa.

**□ Zein lan garrantzitsu burutu zen Zegaman zu goarda zinen garaian?**

Herriko zenbait mendi kontsortziatu genituen. Garai hartan alkate Aranguren

## BASOZAINAK ZEGAMAN

zegoen, eta zinegotzi berriz Doroteo Maitte-gikoa, Damian Iturburu-Barrenekoa eta neu ere bai. Damianek patrimonioko jendea ezagutzen zuen eta hura nahiz eta ganaduzalea izan, herriko mendietan Estaduarekin kontsorziatuta pinuak sartzeko aukera zegoela esaten zidan eta hala animatu ginen.

Estaduak landarea sartu, itxiturak egin eta mendiak berak mantentzen zituen aprobe-txamendurarte, okasio ona izan zen, 100 Ha. baino gehiago sartu genituen, lehen mendi gorria zena martxan jarri genuen. Proporzioak honako hau ziren: herriak % 55 eta Estatuak % 45.

Orduan sartutakoak dira, Saadar aldea, Arrano Aitz, etabar.

Estaduak berak ekartzen zituen koadrila jakinak mendi lanak egiteko.

Beste herri batzuk ez ziren fidatu eta ez zuten ezer egin. Hemen ere bazeuden honen kontrarioak batez ere ganaduzaleak. Utzi ziren ganaduzaleentzat ere larreak noski.

### □ Ikazkinik ba al zen garai hartan?

Bai, normalean terreno partikularretan egiten zituzten txondarrak, egur zailik ez baitzuten nahi. (Pago handiak) Haiek nork txikitu!

Baino batzutan kontsorzio forestalean baimena eskatu, eta ikazkinek subastan mendia hartzen zuten, subasta Seguran egiten zen. Leku txarrean zegoen egurra askotan ikatza eginda ateratzen zen, era horretara pixu askoz gutxiago izaten zuelako. Mandoetan pistaraino ekarri eta gero kamionetetan eramaten zen saltzera. Araiara ikatz asko bidaltzen zen.

Egurra garraiatzeko kablea ere ezagutu dut Aratz azpitik Otzaurteko tren geltokiraino. Kable zirkularra zen eta Beunden oso behetik pasatzen zen, garai hartan pistarik ez zegoen eta komeriak, orain pistak daude nonahi.

### □ Ehiztariak ere izango ziren bada zure basozain garaian ezta?

Bai, baino nik ez nuen ehiztariei begiratzeko denborarik eta gogorik ere ez. Ehiztariak ilusioarekin joaten ziren chizera eta... egin genituen bai, eskopetak egun pare baterako kendu eta gero eman (farre egiten du) ez dut uste inori lizentziarik eskatu nionik. Zein oker egingo zuten bada?

### □ Eta, zein kotxe zenuten garai hartan?

Behikuloa? Aurrena bizikleta, gero motorra eta ondoren 2CV bat denak neuk erosiak. Motorrean ibiltzen nintzenean nere anaia zaharrenak esan zidan "moteil, moteil, hi bezela mendian ibiltzeko erosi ezak 2 CV bat!" Ene, harekin zenbat lokazti pasatu nituen nik! Oso onak ziren, lokatza gehiegi zegoenean aitzurrez eta palaz kendu eta aurrera! Azken hamar urteetan bakarrik izan nuen nik Diputazioko kotxea izateko eskubidea, jorrala ere oso urria genuen eta beste zerbaitetan saiatu egin behar, landara edo gabon pinu e.a. Morroi extremeño bat izan nuen, oso mutil jatorra, konfiantzazkoa eta txintxoia.

### □ Injineruekin zer moduz konpontzen zinen?

Injineruekin joaten ginen mendia ikustera eta zein landara sartu beharko genukeen erabakitzera. Injineru onak eduki genituen, bueno horiek ententitu inork ez zuen ententitzen (barre egiten du). Goardak ibili behar eta, denak gu bezain saiatuak ez!

Haseran haiek esandakoa egiten nuen baino gerora diskutitu egiten nien. Gogoan dut, Saadar mendia sartzera injineruak kapritxoia zeukan Douglassa sartzeko eta nik diskutitu egin nion: "yo soy un simple

guarda y usted Ingeniero pero yo tengo que defender como si fuera mío, si quiere poner un par de Ha.s en una esquina vale pero todo el monte no le consiento"; azkenean injineru horrek "vale, vale, ponemos laricio y vale!"

### □ Eta, gaur egun goarda ofizioa nola ikusten duzu?


Oraingo goardak ene!!! Hori ezta lana. Bakoitzak bere kotxea, telefonoa, buskea, pistak nonnahi. (barre egiten du) beraiek gaizki esango dute ez? (barre berriro).

### □ Zein da goarda ofizioak duen gauzarik erakargarriena?

Dudarik gabe kanpoan, basoan ibiltzea.

### □ Badakigu Albisturren abeto douglas bikainak dituzula. Konta iezaguzu mesedez hauen historia?

Bai, gure aita zenak erosi zuen, (bere anaia lagundirik) ni jaio nintzen urtean 800 areako terrenoa 1.000 pezetan, eta abeto douglasak sartu zituen. Gehienak oso arbola onak badira ere, bat aparta da, gure seme Jose Inaziok askotan neurtzen du eta 60 bat metro altu ba omen da. Ikusgarria da, nere aita zenak nere kintoko arbolak zirela esaten zidan.



1. Joxe Azurmendi (Zegama) 2. Fco. Aierbe (Ataun) 3. José Andres Larrea (Zegama) 4. Arrabiolako Patxi artzaina (Segura)

## BASOZAINAK ZEGAMAN



### ALBERTO AIERBE LARREA

*"Belaunandi berrietako jendeak geroz eta gutxiago ezagutzen ditu lursailak eta gutxiago oraindik mugarriak"*

❑ *Non jaio zinen?*

1957an jaio nintzen Zegaman, uztailaren 23an.

❑ *Nolatan zara basozaina?*

Papertegian 13 urte lan egin eta gero itxi egin zen. Papertegian lanean ibilitako 13 pertsona aurkeztu ginen oposaketa haue-tara. Lehen deialdi honetan plazarik ez nuen atera baina handik sortu zitzaidan alor honetan lana. Haseran arrantzako begirale bezela eta hortik goarda lanetara pasatu nintzen.

❑ *Lan honetako zure lehen urratsak azalduko al dizkiguzu?*

Ehiz eta arrantzan ibili nintzen hasieran, sei hilabetez arrantzako lanak eta beste sei hilabetez ehizeko lanak burutu nituen gutxi gora-behera 6-7 urtez. Ondoren beste opo-saketa batzuk izan ziren eta hor plaza atera nuenetz, Legazpi, Zumarra, Urretxu eta Gabiriko herriak hartu nituen, orduan goarda lanari bete betean heldu nion.

❑ *Zein aldaketa ezagutu dituzu zure lanean tresneriari dagokionean?*

Asko hobetu dugu tresneri aldetik bai ibil-gailuan eta baita terreneak neurtu eta egurra neurtzeko tresnerietan ere. Erabiltzen den tresna berritzailetako bat GPSa da.

❑ *Zer da GPSa, zertarako balio du?*

Azken batean errezeptore bat da. Sateliteria bidaltzen du informazioa eta terreneotako puntu desberdinei buruz informazioa bidali dezakezu, hau da men-dian egin duzun ibilaldi osoaren informa-zioa bidal dezakezu, ondoren informazio hori, programa informatiko baten bidez

plano-etara sartzen du. Honek datu oso zehatzak lortzea ekarri du, bai mugarrien kokapenari eta, terreneoaren azalerari buruz batipat.

Orainarte erabili den edozein dokumentu baino erreala goa da. Edozein eskriturretan alda-pak ez daude kontuan hartuta eta ondorioz ez dira datu zehatzak neurriari dagokionean.

GPSren datuak gutxienez 4 sateliteren bidez hartzen dira edota gehiagoren bidez eta ondorioz datu oso zehatzak dira.

❑ *Zona bakoitzean G.P.S. bat dago?*

Mendi zuzendaritzak bat bakarra du.

Legez, lau urtetik behin herri mendietako mugak eta mugarriak errebisatu beharko lirakeke. Lan hau herri batzuk egiten dute eta beste batzuk ez, edota iristen dira edo ez. G.P.S.arekin informazio hau jasota gelditzea oso garrantzitsua da.

Mendietan deslindak egiten direnean, terreno mugak finkatu, inguruko terreno jabe eta erakunde guztiak parte hartzen dute eta akta bat jasotzen da, mugarri bakoitzak idatzi bat du bere kokapena, deskripzioa, orientazioa e.a. jasotzen duena. Arabakoek, argazki eta guzti dituzte jasota mugarrien fitxak.

Hau dena edukita ere GPSz eginda egotea garrantzitsua da, datuak gero eta zehatza-goak biltzen ari garelako.

Gaur egun Udaletxetan ditugun katastroko argazkiak ere nahiko zaharrak dira, asko-tan gertatuko da, argazkian zelai dena gaur egun pinudia izatea.

❑ *Gaur egun, mugarriekin izaten al da*

*garai batean bezelako tirabirarik?*

Bai, gaur egun ere izaten dira baina gero eta gutxiago, honen arrazoia oso garbia da, jendeak, batez ere belaunaldi berrietako jen-deak terreneak geroz eta gutxiago ezagutzen ditu eta mugarriak are eta gutxiago; base-riarekin harremanak galdu diren neurrian bertako terreneotako informazioa edo eza-gutza ere bi belaunalditan galdu egin da.

Bestalde, jendeak gero eta gehiago galde-ten digu, ea zer alda dezaketen, batez ere lan gutxi emango liokenaz. Kriterio produk-tibo ekonomikoa galdu eta errezero jotzen hasi da jendea, haziera azkarreko frondosak sartuz. Ondoren etxeko terreneak direnez, saldu ez dituzte egin nahi eta zerbait sartze-gatik sartzen dute, lanik emango ez dioten zerbait eta hau, ikusten dut etorkizuneko joera.

Terreno berria, azkenik muganteak eros-ten du edota bestela horretara dedikatzen den jendeak, leku eta herri askotan ter-re-noak dituztenak.

Gaur egun, jendeak duen lan mota dela eta, ez du asmorik asteburutan etxeko mendian lan egiteko.

❑ *Zein lan egiten du goarda batek terreneo partikularretan eta zein herri terreneotan?*

Partikularretan batibat, mozketa mailan kontrola eraman, Diputazioako Nekazaritza Departamentuan eskaera bat egin behar du egurra bota behar duenak eta baimena tra-mitatu.

Insignia botatzeko, hau da haziera bizko-rrekoak, botatzeko normalean ez da batera arazorik izaten.

## BASOZAINAK ZEGAMAN

Larizio, alertze, abeto douglasa etabarrek, hau da haziera ertainekoek 50-60 urteko muga izaten dute Diputazioak jarrita, batez ere neurri itxuroso hau hartzeko urte horiek beharrezko dituztelako.

Bestalde, Diputazioak laguntzak ematen ditu mendia botatakoan berriro ere landatzeko, itxiturak egiteko eta baita garbi mantentzeko ere.

Sute garaietan garrantzitsua da mendia garbi izatea, alde batetik erregai gutxiago dago sasirik ez dagoen mendian eta bestetik itzaltzera doanak ere errezetasun handiagoa du baso garbian sartzeko.

Gainera pinudiak beraiek ere zaindu beharrean izaten dira itxurazko kalitate bat edukitzeko. Beraz, guzti hauen tramitazio eta kontrola da gure lana partikularrei dago kienean.

Herri mendietan, alde batetik gure lanetako bat zaintza lana da, Diputazioko ardurapean dauden elementuak dira eta gu Foru Aldundiko goardak garenez, dagoen legea betearazteko zaintza egiten dugu. Bestalde, hainbat pista ireki, garbiketa lanak koordinatu eta abar. Aprobetxamenduren bat dagoenean, Partzuergo edo edozein herri mendietan guk seinalatzen ditugu zein bota eta baita kontrola eraman ere, zenbait egur dagoen jakin...

*Suteak direnean, zure eremuko jendeak laguntzarik eskeintzen al du?*

Zona honetan, Gipuzkoako hegoalde honetan bai, Zegama, Legazpi, Gabiria eta iunguruko herri hauetan, jendeak kultura

forestala duenez, segituan joaten da arrapastaka, askotan gehiegi eta guzti, baina hori hobe da inor ez joatea baino.

Badakigu kostaldean arazo larriak izaten dituztela gure lankideek. Han sua izan eta terreno jabea ere ez da joaten, gainera euren ustez ez da beraien eginkizuna sua itzaltzea. Hemen esan behar da terreno partikularren jabeek ardura eta "kultura" dutela sua itzaltzera joateko; Diputazioak ditu suaren kontrolaren eskumenak, baina sua itzaltzeko bitartekoak Diputazioak jartzen baditu su partikular bat itzaltzeko lan hau kobratu dezake, beste gauza bat da egiten duen hala ez.

*Zeintzuk izaten dira sutearen arrazoiak?*

Normalean, sutearen arrazoiak jakitea zaila da. Oinaztar, utzikeria edota norbaiti ihes egin diolako...

Nik hemen bereiztuko dudana zera da, sua itzaltzeko ahalegina egiten duten terreno jabeak eta suak ihes egin eta su hura itzaltzea Diputazioaren zeregina dela esaten dutenak.

Gauza bitxiak ere pasatzen dira, hau da, Diputazio eta goarda, terreno garbiketa egiteko hartzen dituztenak ere badaude, sua itzaltzera joan eta azkarregi itzali diegula esaten dutenak, hau da terreno guztia erreterako sua itzali dugula kexatzen direnak.

*Beste ardurarik ba al duzue?*

Bai, nahiz eta eremu forestalekoak izan, asteburutan hainbat lan ardura ipintzen dizkigute. Arrantza eta ehiz bigilantziak egiten



*Ezkerretik eskubira: Alberto Larrea, Imanol Artola, Jose Azurmendi, Xabier Ormazabal, Inazio Urbizu*

ditugu erretenean gaudenok. Erretenean mila arrazoiengatik egoten gara, suteengatik, isurketengatik e.a. eta tartean bigilantzi zerbitzu hau ere egiten dugu.

*Ba al du inguru hauetako goierritarak zauritutako hegaztiak zuengan eramateko joerarik?*

Bai, normalean, 112ra deitzen du jendeak eta hauek Diputazioara hemendik zonako basozainari pasatzen zaiolarik abisua normalean, Arrano-Etxera eramaten dira.

Nere ustez ehiztariek ere gero eta gehiago errespetatzen ditu babestutako espezieak.

*Baso mutil edota kuadrila faltarik nabarmendu al duzue?*

Bai, fabriketan lana egon ezker mendian falta nabarmentzen da. Mendiko lana fisikoki gogorra izateaz gain, asko eta asko dauden lan baldintzek oraindik gehiago gogortzen dute. Gaur egun inguru honetan atzerriko jende ugari dabil mendian lanean, beste ezer ez dutenak.

*Badakigu ehiztari amorratua zarela, oporrak noiz hartzen dituzu?*

Gehienbat urrian.



*1. Gorrotxategi Jna 2. Jose Olanan 3. Gumersindo Azurmendi 4. Antonio Arrieta 5. Angel Olanan*

## BASOZAINAK ZEGAMAN



### INAZIO URBIZU TELLERIA

*"Hemengoek ondo dakite zein espezie datorren ondoen terreno bakoitzean"*

❑ *Non jaio zinen?*

1954an jaio nintzen Zegamako Kaleko-Txiki baserrian.

❑ *Zure etxean ba al zen goarda ofizioan aritutakorik ?*

Nere aitona esaten zuenez, bere osabaren bat izan omen zen goarda, baina besterik ez.

❑ *Nolatan sartu zinen bada goarda?*

Ni goarda sartu aurretik kamioiarekin txofer ibiltzen nitzen eta egunkariaren bidez jakin nuen goarda oposaketak zeudela eta neri mundu hori gustatu egiten zitzaidanez, 8 hilabetez txofertza utzi egin nuen azterketak prestatzeko.

Garai hartan sartzeko suertea izan nuen. 1984ean sartu nintzen.

❑ *1984tik 2001era zein aldaketa nabaritu duzu?*

Gu transferentzi garaian sartu ginen. Haseran ICONA zegoen, hauek Estatuari zegozkionak ziren, gero Eusko Jaurlaritzarekin SEFOCONA sortu zen eta gu hor sartu ginen, ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen gure eremua eta egun Gipuzkoa Foru Aldundiko Nekazaritza Departameta atxikita gaude. Haseran oinez ibiltzen ginen, gero motorra ekarri ziguten, beste goarda batekin konpartituta eta gero 2CVa. Eta orain bakoitza geure Land Roverrarekin gaude.

❑ *Komunikatzeko ezer ba al zenuten garai hartan?*

Orduan ez geneukan ezer, gero emisora batzuk jarri zitziguten, ondoren buskak eta

orain telefonoa ere badaukagu. Beraz gaurko egunean lokalizatu ezinik ez dute.

❑ *Zein tresneri gehiago duzue?*

Pistak markatzeko klaximetroa eta orain azken aldean GPSa. Honek satelite bidez funtzionatzen du, nahiko exaktoa da eta gaur edo bihar mugarriren bat desagertu ezker hant markatzen du non zen lehen mugarria, zein koordenadatan. Aparailu honen bidez, partzelak rodalizatzen ditugu, pistak, planoan dauden toki zehatzean sartzten ditugu.

❑ *Zein da zure laneko eremu geografikoa?*

Nere lan eremua Zegama, Segura eta bi Partzuergoak dira, Guipuzkoa eta Arabako Partzuergoa eta Gipuzkoako Partzuergoa, "Partzuergo Txiki" izenaz ezagutzen duguna.

❑ *Herri mendi nahiz Partzuergoan lehentasunezko premirik ikusten ahal duzu?*

Gipuzko eta Arabako Partzuergoan forestal eta larre arloa jorratuko duen plan partzial bat egitea komeni da. Plan hori enkargatuta dago eta datozen urteetan zer egin behar den markatuta jartzea komeni da. Egitasmo honen bidez, lur eremu bakoitzean zein ekintza aurrikusten diren jakingo dugu, garapen egoki bat emanaz daukagun lur eremuari.

Haserako lehen zatian, 118 Ha. markatzen dira aldatzeko, ganaduzaleek behar duten larrea mantenduta. Gaur egun lur eremuak dauden bezela (berreraketa) erregerazio naturala ez da behar den bezela ematen, udaberrian jaiotako landaretza

berria, ganadua sartzten denean jan egiten duelako. Ha. guzti horiek landaretza berria, artzain eta ganadu-zaleei larreak meioratu berezko berreraketa lortuko da.

Plan honen medioz zatika zatika itxi egin behar dira errepoplatutako sailak, ondorioz berezko berreraketa lortuko da.

❑ *Herri mendietan zein behar ikusten dituzu?*

Nahiko kubrituta daude, hutsik zeudenak errepoplatuta daude gehienak, garbiketa, desbrozeak e.a. aurrera doaz eta Zegamako mendiak nahiko eguneratuta daude.

❑ *Partikularrek ba al dute gutxieneko ezagutzarik landaketaririk egiteko?*

Herri txiki hau baso herria izan da aspaldianik eta ez da lurra arbolarik gabe edukitzearen aldekoa orohar, bestalde nahiko definituta du bakoitzak zer sartu behar duen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeetik laguntza nahiko onak daude eta herritarrek badakite zer sartu. Hemengoek ondo dakite berez zein espezie datorren ondoen terreno bakoitzean.

❑ *Pista aldetik nola daude herri mendiak?*

Orain ari dira bi herri mendi handienetan azpiegiturak osatzen: Arrano Aitz eta Saadar-Aztion. Nahiko ongi geratuko dira pista hauek burututakoan. Gutxi gora behe-ra 11 Km.tako pistak egingo dira. Honek terenoaren balorea asko igoko du, bestalde, azpiegiturarik ezean ezin da bertako probetxamendurik burutu.

Lehen zeuden pistak oso aldapatsuak ziren, orduan, lehengo pistak berritu, tapa-



## BASOZAINAK ZEGAMAN

tu behar direnak tapatu eta berriak egiten ari dira aldapa proportzionalekin.

❑ *Oria ibaiari dagokionez, zein fauna daukagu?*

Lehen kangreju ugari zen baina gaitz batekin galdu zen, zerbait ikusten da baina oso gutxi.

Hemen batez ere amuarraina dago, mota gorridun amurraina. Diputazioak urtero errepoplatzen ditu ibaia ondo egon dadin, berez ere errepoplatzen diren arren amuarrain handi batzuk ere botatzen dira arrantzarako eta alebinak ere bai bertarako izan daitezten.

Oria ibaiaren egoera, gaur egun kutsaduraren aldetik begiraturata, egoera onean dagoela esan behar da, baino udan ur faltagatik, eta uraren tenperaturata asko igotzen delako amurra in batzuk akatu egiten dira.

❑ *Eta ehiztariei buruz zer esango didazu?*

Haseran nahiko utzita zegoen, baino gaur egun, beste mentalitate bateko jendea dago eta egun nahiko normalizatuta dago. Ehiztariak babestutako espezieak ezagutzeaz gain errespetatzen dituzte orohar, nahiz eta beti egoten den arauetatik kanpo ibili beharreko norbait. Iaz bat bakarra harrapatu genuen babestutako espezieen kontra botatzen.

❑ *Zein ehiz dago Zegaman?*

Uso migratoria eta basurdea da ugariena. Orkatzak ere jarrita daude baina oraindik ugaritzen diren arte ezin dira ehizatu. Orkatzei leku zikina eta aldi berean inguruan irtetzeko zelai garbia gustatzen zaie. Partzuergoan badaude batzuk baino gehiago Zegamako partean, erbia ere lehen zeharo galduta egon zen baina gaur egun banaka batzuk ikusten dira.

❑ *Partzuergoaren barruan ehiz mota desberdinik egiten al da?*

Partzuergoa berez koto pribatu bat da, eta koto horretan 100 puesto daude usotan egiteko. Erdiak, Partzuergoa osatzen duten herritarren artean zozketatzen dira eta besteak subasta publiko bidez ematen dira. Koto horren barruan beste koto sozial bat egiten da eta hemen faisán eta eperrei jaregiten zaie eta aurten berrikuntza modura usoei jaregitea aurrikusita dago.

Koto sozial honetan, lote bat partzone-roendako eta beste 3-4 lote Partzuergoko Juntaren erabakiz, irekiak izaten dira, hau da partzuergoak ez direnentzat.

## IMANOL ARTOLA AGIRRETXE

*"Basoa gure garaian produktibo bezala ezagutu dugu, eta orain aisiarako joera ikusten dut"*



❑ *Non jaio zinen?*

Zegaman jaio nintzen 1958ko martxoaren 21ean, Zegamako Olaberri auzoan.

Zegamako auzorik martxosoenean dudarik gabe.

❑ *Zergatik martxosoena?*

Igeri tokia zegoen eta jendea mugitzen zen tokia zen. Uda guztia presan pasatzen genuen eta jende asko joaten zen. Guretzat ez zegoen beste igerilekurik.

❑ *Zergatik hartu zenuen goarda ofizioa?*

Ikusirik, Augusto Portugesa eta ni joaten ginen fabrika edota tailer guztiak itxi egiten zirela, eta azkeneko papertegia bera, Diputazioak egindako goarda deialdira aurkeztu nintzen eta esan beharra daukat ama-birjiña azaldu zitzaidala.

Lehenengo Elektrokimikan hasi ginen eta itxi egin zen, gero biok Aitzen hasi ginen eta itxi egin zen eta gero biok Papertegira joan ginen eta hura ere itxi egin zen.

Lehenengo deialdian ez nuen plazarik atera baina interino bezela hartu ninduten eta hurrengo oposaketan plaza atera nuen.

❑ *Zein aldaketa nabaritu dituzu zure lanean?*

Dudarik gabe bere garaian salto handia egon zen tresnerian, gurditik kamioia erabiltzen hasi zirenean edota esku trontzatik motozerrara aldatu zenean, baina nik hain aldaketa bortitzik ez dut ezagutu nere goarda denboran, mantsoago ematen dira aldaketak, urte gehiagoren barruan.

❑ *Mendi kudeaketan aldaketarik nabarmendu duzu?*

Lehen 8 urtean aurreko Mendietako Diputatua zen Txuekaren lana ezagutu dugu eta duela bi urte ezkerer Jon Mikel Muruarena.

Ikusten dudana da, basoa gure garaian produktibo bezela ezagutu dugula eta orain aisiarako joera ikusten dut, hau da basoa aisiarako prestatzen ari da, gizarteak egun aisiarako eskatzen duelako. Gizartean aldaketa hau nabarmen ikusten da.

## BASOZAINAK ZEGAMAN

❑ *Herri mendi edota Partzuergoaren aisiarako erabilera hau nola ikusten duzu?*

Nere ustez, aisiarako toki gehiago prestatu behar dira, toki desberdin gehiago potentziatu behar da eta jendea leku desberdinetan banatu, denak leku batera joan gabe.

Gipuzkoa mailako prestaketa bat egingo nuke lurraldean zehar horrelako tokiak jarri.

Erabilera ona emateko, egun dauden legeak errespetarazi behar dira.

❑ *Egun, non burutzen duzu zure lana?*

Oñatiko Basozaina naiz eta udalerrri bakarra bada ere lur asko ditu eta nire egunero ko lana ongi betetzen du, horrez gain Deba Garaiko sobregarda ere banaiz.

❑ *Perretxiku bilatzailerik ba al dago Oñati aldean?*

Gai horretan Oñatin suertea daukagu, nahiko zokoan geratzen da eta oso zabala denez txoko asko daude. Zegama ordea, ehiz kontu honekin oso ezaguna egin da eta jende ikaragarri etortzen da. Potentzial hori aprobetxatu beharko litzateke herria bultzatzeko.

❑ *Ehiz posturik ba al dago Oñatin?*

Bai, baina Zegamarekin erkatuz, han ez da ehiz posturik zozketatzen.

❑ *Ehiztariei buruz zer esango zenidake?*

Oraindik babestutako hegazti ugari eramaten dugula perdigoiak ateratzera albaite-roarengana Donostiara.

❑ *Zein behar ikusten dituzu goarda langintzan?*

Basozainak basoan du ibili beharra eta gero eta denbora gehiago pasatzen dugu papelak tramitatzeko ofizinetan sartuta, administratibo batzuen beharra ikusten dut Nekazari Bulegoetan basolaguntzak eskatzeko.

❑ *Herri mendi eta partikularren artean zein desberdintasun dago?*

Herri mendian tramitazio eta papeleo gutxiago egiten ditugu zorionez, gure goitik dauden teknikariek egiten dituztelako, hortik aparte herri mendietan zure iritziak azaltzeko askoz askatasun gehiago duzu partikularretan baino.

Partikularretan berriz, mugatuagoa da zure iritziak azaltzeko aukera baina gauza ona badauka, baztar eta zoko guztiak eza-gutzen dituzu denboraren poderioz.

❑ *Zer da gehien gustatzen zaizuna zure lanetik?*

Niri, goarda lanetik, salaketak sartzea ezik, gehiena gustatzen zait, baina baserritarrekin edukitzen duzun elkarrizketarako aukera azpimarratuko nuke. Laurogei urteko aitona bat topatzen baduzu hark kontatzen dizkizun kontu guzti horiek oso aberasgarriak dira.

❑ *Badakigu Arantzazu aldean, basoari eta zehazki zuhaitzei loturiko izugarritzko bilduma egiten Diputazioarekin parte hartu duzula, kontuaguzu bere nondik norakoa?*

Bixente Dorronsorok, Diputazioko mendietako injeneru teknikoak, behin bilera baten aipatu zigun interesgarria izan zitekeela basoan tokatzen zitzaigun zuhaitzak eta botatzea, muestra batzuk hartzea, ilargia kontutan hartuz e.a.

Egia esan hasera batean ez genion inongo kasorik egin, baina handik urte ta erdira gertatu zitzaidan, Arrasateko palazio antzeko etxe batean, Diputaziora baimena eskatu eta garbiketa bat egiten hasi ziren eta hor konturatu nintzen merezi zuela hortik ale batzuk hartzea, izan ere posible baitzen horrelako beste zuhaitzik ez egotea Euskal Herrian eta horrela hasi nintzen bilduma hori burutzen.

Gero "monoa" sartu zitzaidan eta gero eta gehiago nahi nituen eta egun Euskal Herrian hazi diren 150 enbor desberdin ditut.

Arbola bereziak dauden tokietan indianoen istoriak daude askotan, hau da Amerikatara joandakoek bueltan ekarritako zuhaitzak dira edota jauregietako jendeak atzeritik ekarriak.

❑ *Aurki Zegama aldera dator bilduma hori, ilusiorik egiten al dizu zure jaioterri-  
ra ekartzeak?*

Bai, ilusioa egiten dit, noski baina esan behar dut Arantzazu enborrak ikusteko toki zoragarria dela eta horrez gain frantziskotarrak gurekin oso ondo portatu direla, eta ni neu ere Oñatin nabil lanean baina egia da Zegamara datozen moduan, Hondarribira edota beste edozein herritara joan zitekeela bilduma eta Arantzazun ez badago, Zegaman oso ondo dagoela.

❑ *Enborrez gain, beste materialik bildu al duzu?*

Bai, zenbait erropa eta basoan erabili diren hainbat tresna.

❑ *Ibaiei dagokionez, zein egoeratan daude?*

Ibai guztietan depuradorak jartzen ari gara eta bestalde erreka eta errekatxoak eskoileraz betetzen ari gara baztarretako zuhaitz guztiak moztuz eta erreka kanal bihurtuz, nere ustez, pauso bat aurrera eta beste bat atzera emanaz gabiltza.

❑ *Zein arazo azpimarkatuko zenuke zure lanean?*

Baso mutilen falta nabarmena edozein lan burutu ahal izateko; suteetan herri txiki hauetan oraindik su-kanpaiak jotakoan jendeak lagundu egiten du baina herri industrializatueta ez dago horrelako laguntzarik. Deba garaian dexente sute izaten ditugu eta ametsa izango da behar bada, baina mendiko suteak itzaltzera dedikatuko litzatekeen jende profesionalaren falta botatzen dut.

Gaur egun erretenean dagoen jendea, bakoitza bere lanean aritzen da eta jendea biltze kostatu egiten da. Sei-zortzi lagun prestatuak kamioi pare batekin beharrezko ikusten ditut suhiltzaile modura, baina mendiko suhiltzaileak izango liratekeenak.



1. Gumersindo Azurmendi (Zegama) 2. Antonio Arrieta (Zegama) 3. Angel Olanan (Zegama)

## BASOZAINAK ZEGAMAN



### XABIER ORMAZABAL ALUSTIZA

*"Insignis pinuari  
fama txarra eman  
zaio, baina hemengo  
baserritarrentzat  
oso ona izan da,  
ez aberasteko baina  
bai semealabak  
aurrera ateratzeko"*

#### Non jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1959ko maiatzaren 15ean, Aizkonieta Baserrian.

#### Goarda ofizioa zuen zure aurrekorik izan al da?

Ez, nik dakidala ez.

#### Nolatan sartu zinen goarda?

Mendi lanean nenbilen eta lehenengo deialdian, Inazio Urbizu eta sartu zirenean aurkeztu banintzen ere, ez nuen plazarik atera. Hurrengo deialdia egin zuenean Gipuzkoako Foru Aldundiak 1986an, Zegamako papertegian nenbilen lanean eta hots txarrak zeudenez berriro ere aurkeztu egin nintzen eta deialdi honetan plaza ateratzea suertatu zitzaidan, lanean hasi eta sei hilabetera itxi zen Papertegia.

Garai hartan zegamar mordoxka aurkeztu ginen frogua hauetara eta azken azterketaraino zortzi bat zegamar iritsi ginen.

#### Goarda izateko aparteko ezagutzarik behar al da?

Baserrian bizi izan garenok, gutxi ala asko denok ezagutu dugu etxean basoa. Baserri guztiek izan dute beren soro, zelai eta basoa eta ondorioz kultura bat jaso dugu.

Insignisa sartu zenean, hasera batean behintzat lehen baso zena gero insignisa sartzen hasi zen, eta hemengo baserritarrek basoa tratatzen badakite, nere ustez alde nabarmena dago Zegama eta Zaldibiren artean. Zegaman basoa zaindu eta erabili egiten da eta hori ez da herri guztietan gertatzen. Herrian inplizituki dagoen ezagutza horretaz zegamarrok baliatu garelako uste dut.

#### Zein da zure lan eremua?

Zaldibia, Abaltzisketa, Gaintza eta Itsasondo.

#### Eremu horretan partzuergorik ba al da?

Aralargo Mankomunitatea dago, hemen nere lan eremuko herrietatik Zaldibi, Abaltzisketa eta Gaintzak parte hartzen dute.

Gaintzak ez du batere herri mendirik.

#### Aralargo partzuergoa eta Gipuzkoa eta Arabako partzuergoaren artean zein bereizketa da?

Garai berekoak dira baina Aralargoaren kasuan, herri bakoitzak du bere baso eremua aprobetxatu dezan. Hori dela eta bakoitzak egin duen erabilpen desberdina dela eta garai batean basoak zirenak gaur egun larre bezela daude. Gaur egun badaude zenbait asmo hau aldatzeko.

#### Zein etekin ateratzen zioten lehenengo baserritarrek basoari?

Garai batean basoa etxearen baserriaren osagai bat zen, helburua, zenbait jakiz gain, gaztaina, intxaur... etxerako egurra lortzea izaten zen, baserriak behar zituen konponketa eta abarretarako. Insignisa sartu zenean ordea, baso produktiboaren kontzeptua sartu zen eta orduan ez da etxerako egurra bilatzen errenta ekonomiko bat baizik. Insignisaren etekinak baserri asko eta asko itxuratu ditu, hau da, bestela inola ere ateratzerik izango ez zuketela diru baten sarrera izan dute, oso positiboa izan dela uste dut.

Honen ondorioz, hemen kultura garrantzitsu bat sortu da, gaur egun nahiz eta baserri gehienak ustu diren, hemengo jendeak baso edo zelaiak ez ditu ezer gabe, insignis edota beste pinu motaren bat

sartzen du eta badaki ondorengo urteetako zainketa lanak burutu behar dituela etekina ateratzeko, baso zainketa kultura bat sortu da.

#### Azken 14 urte hauetan zein aldaketa nabaritu dituzu zure ofizioan?

Batez ere tresnerian eta komunikabideetan, arlo honetan aurrerapen nabarmena egin da.

Horrezaz gain tramitazio ugari egiten dugu eta ofizinetan gero eta denbora gehiago egiten dugu.

Lehen normala zen 3-4 pertsonako taldea basolanak burutzeko; gaur egun sektore honetan ere profesionalizazioa eman dela esan behar, eta gero eta enpresa handiagoak aurkezten dira lanak hartzea edota pertsona bakarra eta honek lana hartzen badu gero zortzi-hamar lagun hartzen ditu lanak burutzeko. Garai batean, basoa ezagutu eta baso lanerako balio zuen jendea zebilen bertan, gaur egun, beste inon lanik ez eta bertan dabilen asko dago eta hori nabaritu egiten da.

Azkenaldi honetan ekoetariarrak, eslova-koak e.a. dabilta. Pertsona hauek normalean paperik gabeko jendea da, izan ere paperak lortu orduko fabriketara edota erakuntzara joaten baitira. Gaur egun eskulan falta handia dago basoan.

#### Hain garrantzitsua al da basolaneko talde hauek faltatzea?

1989-1990ean, sute handiak izan ziren, Soraluze, Bergara, Oñati eta Lasarte aldean eta horrelakoetan nabarmentzen da batez ere azpiegitura falta eta mendia ezagutzen duten pertsonen falta. Sute horien ondorioz hainbat kamioi jarri zen ura garraiatzeko eta basolanen dabilen koadrila azpiegitura hori oinarri bezela hartu eta Diputazioak hainbat hitzarmen sinatu ditu, suteetan beraien laguntza izateko. Diputazioak suhiltzaileak baditu baina sute handia dagoenean mendia ezagutzen duten jendea behar da, guri gerta baitzaigu Bizkaiatik hona koadrila bat bertako jendea baino lehenago iristea. Hauek erretan zerbitzua ere egiten dute eta azkenean sute bat dagoenean koadrila bat lokalizatzea errezagoa da fabriketatik jendea biltzea baino. Gainera talde hauek pistak, mendiak eta beharreko guztia ezagutzen dute.

#### Zein behar ikusten duzu baso alorrean orohar?

Eguraren prezioa, balorea mantentzea berriro ere baserritar edota baso jabeek aldatzen jarraitzeko eta mendiak aberatsak izateko.

Duela urte pare bat Frantzia izan zen haizetea dela eta egurraren eta batez ere insignisaren prezioa baxatu egin da eta horrelako gertaeren aurrean hainbat neurri

hartzera komeni da jendeak basoa zaintzen jarrai dezan eta basoa landatzea errentagarri izan dadin.

Baserriak hustutzen ari dira eta ondorioz jendeak terrenoak hutsik ez izateagatik zer-bait landatu egin du. Baserriak txikiak dira eta makrodezisiorik ezin da hartu, norberak erabakitzen du bere terrenoarekin zer egin.

Insignis pinuari fama txarra eman zaio, baino nere ustez hemengo baseritarrentzat oso ona izan da, ez aberasteko baina bai seme-alabak aurrera ateratzeko diru-sarrerara lagungarri bezela.

**□ Lan administratibo asko izaten duzue?**

Bai, bai, gure lana batez ere horregatik aldatu da, gero eta papeleo gehiago egiten da.

Lan hau egiteko ez digute prestaketa berezirik eman eta hori gero nabarmendu egiten da, askotan nahi gabe gaizki egiten direlako paperak, programa informatiboak ezagutze-ko egunerok erabili behar direlako e.a.

**□ Erreka, ibaiei buruz zer esango zenidake?**

Zaldibiko erreka oso polita eta ona da Bilore arte. Bilore enpresarekin beti izan ditugu arazoak. Hainbat isurketek errekarri kalte egiteaz gain erre egiten dute, hau da bertako fauna hiltzen dute eta beste isurketa batzuk ez dute faunarik akatzen. Guk arrainak akatutakoan sar dezakegu salaketa bakarrik.

Bestalde, badago Zaldibin amurrain galantak dauden eremu bat, hau herri banean dagoen "beda" bat da eta arrantzale elkarteak zaintzen du, mutikoekin izaten dute lanik handiena.

**□ Ehiztari eta arrantzaleek babestutako espezieak zaintzen al dituzte?**

Ehizari dagokionean esango nuke, Gipuzkoako duen arazoa, duen azalerarako ehiztari dentsitate gehiegi duela, ehiz gutxi dagoela eta azkenean ehiztariak egun ederra botatzera joaten direla ahal den neurriko ehiza eginez.

**□ Zure lanean gertatu al zaizu bitxikeriarik?**

Bat nahiko polita gertatu zitzaidan Zaldibin.

Lan Roverrarekin nindoala landaketa bat egindako herri mendi batera iritsi nintzen, urruti xamarrera, (katalejuz) begiratu nuen eta hara non ikusi nuen bikote bat bertan akanpaturik bere txakur, ahuntz eta guzti. Plantazioan ahuntza sartuta ! Bertara gerturatu eta esan nien:

- Eh? Ese bicho!!!
- ¿qué bicho, el perro?
- Que perro!!! ni perro ni hostias, la cabra?
- La cabra, si es de cartón!!!

Ikusten denez, arku tiraketa praktikatzera joan ziren eta errematzeko nire kuadrilako baten lagunak izan. Juanin Alzola ibiltzen da arku tiraketan, nahiko farre egin zuen kontaktu nioenean.

EDURNE ALBIZU

## ZEGAMAR TXAPELDUNAK

**Badira Zegaman, kirola edo dantzan lortutako emaitzengatik bereizten direnak eta hona hemen aurten gozatu direnak:**

### DANTZA

2001. urtean hainbat ekitalditan parte hartu dute Xabier Azurmendi eta Janire Urbietako dantza bikoteak: Zumarraga, Arrate, Itziar, Hernani, Donostia.... Hala ere garrantzitsuena Seguran burutzen den Euskadiko Txapelketan lortutako 6. postua azpimarra genezake. Aurten atal berri batekin hasi dira, lau bikotek koreografi bat osatu dute fandangoa eta arin-ariña dantzatzuz.



Xabier Azurmendi

### TXIRRINDULARITZA

Zegama betidanik izan da txirrindularien kabi eta 2001ean ere hainbat zegamar gogor aritu dira txirrinduaren gainean:



Eneko Iraola

### QUEBRANTAHUESOS 2001/ JESUS ZABALETA LEKUONA

Froga hau urtero Sabiñanigon burutzen da eta aurten ekainaren 23an ospatu zen bertan Pirineotako 3 mendate gogorrenak igotzen dira, 45etik 50 urte bitarteko taldean Jesus Zabaleta Lekuona zegamarak urrezko domiña lortu zuen.

Zorionak!!!

### ENEKO IRAOLA IRASTORZA

Kadete maila

Kadete mailan Eneko Iraola zegamarra ere txirrindularitzan dabil eta aurten gozatu lasterketan emaitza aipagarrienak hauek dira:

2001-04-07 Zegaman burututako frogan 23. geratu zen.

2001-06-30 Tolosan burututako frogan 12. postua lortu zuen.

2001-07-07: Oñatin burututako frogan 1. go postua lortu zuen.



Jesus Zabaleta



Ruben Zabaleta

### RUBEN ZABALETA APAOLAZA

KADETEEN 1.GO ETA 2 MAILAN KORRITZEN DU.

EMAITZAK:

Martxoaren 25ean Lazkaon, 2. postua • 31n Urretxu, 2 postua

Apirilaren 7an Zegama, 4 postua

Maitzaren 12an Zarautzen, 2. postua • 26an Balmasedan, 4. postua (Euskadiko Txapelketa)

27an Ordizian, 3. postua (erlojuz kontrako Gipuzkoako Txapelketa)

Ekainaren 8an Oñati, 1.go postua • 30ean Tolosa, 2. postua • 17an Tolosan, 5. postua (Gipuzkoako Txapelketa)

### ARITZ IRASTORZA ARRIETA

Jubenilen mailan korritu du aurten eta hona hemen bere lorpenak.

- 1.go SARIA: ZARAUZKO "Gaeko Kriteriumean".
- Azkenaren saria Larratxoko lasterketan.

### AITOR PEREZ ARRIETA

Aitorrek afizionatuen mailan korritzen du eta aurten saritan urte oparoa izan du:

1go SARIA: Apirilean, Frantzian korritutako lasterketa batean.

1go SARIA: Ataunen ekainean korritutako lasterketan.

2. SARIAK: Palentzia, Olazti, Nafarroako Bueltako etapa batean eta Espainiako "Berga Sanboi" frogan.



Aitor Perez



Aritz Irastorza



Oier Arkonada

3. SARIAK: Zegama, Leongo Bueltako etapa batean eta Sestaoko lasterketan.

### OIER ARKONADA

Oier Arkonadak ere hainbat txirrindu frogetan parte hartu du 2001 urtean eta hona hemen zenbait sailkapen:

DEBAko lasterketa: 26. postuan.

ELGOIBARgo lasterketa: 16. postuan

TOLOSako lasterketa: 22. postuan.

URNIETAko lasterketa: 27. postuan.

## BA AL ZENEKIEN?

*1809an agertzen dela Ostatuaren enkate publikoari buruzko lehen akordio akta?*



... eta, urte honetan enkante publiko bidez Ostaturia hartzeko interesdun berrik ez zela izan?

.... eta 1879an jasotako aktak dienez, Ostatuaren kargua hartzen zutenak, Udaletxe azpian zegoen kartzelaren garbitasuna ere egin behar izaten zuela?

.... Eta Udaletxetik alhondiga eta kartzelara sarrera bat zegoela?

..... eta sarrera hau udal gorporazio-kideek bakarrik erabil zezaketela?

..... Ostaturia hartzeko Udalak jartzen

zituena baldintzetan, besteak beste, hartzailea urtero zuriketa lanak egitera behartzen zuela eta Ostatuaren sarrera, karga eta deskargarako erabiltzen bazen ere, inola ere ezin zirela bertan paketeak utzi?

..... eta Udaletxean gauean bileraren bat suertatzen bazen, Ostaturia zeukanak obligazioa zuela Udaletxera argia emateko?


..... eta Ostaturia zeukanak, eskailetan urteko egun guztietan, argia jarrita eduki beharra zuela gaueko 20:00ak

arte neguan eta 21:00ak arte udan, desordenak ekiditeko?


... eta pobre edo zaurituen bat Udala zaindu beharrean gertatzen bazen, Ostaturikoak beharturik zeudela prezio egoki batean zaintzea?

... eta lau urterako hartutako arrendatarioak "1000 erreale vellon" eko fidantza jarri behar izaten zuela, Ostaturia utzitakoan jasotzekotan?

Iturria: Udal artxiboa

**ATZOKO ZEGAMA****1 • ARGAZKIA**

1950. urteko argazkia da. San Bartolome auzora doan bideko errebueltatik aterata dago eta besteak beste, egun Andraitz Auzoa eta Aitxuri Herri Eskolako eremuak jasan duen aldaketa suma daiteke. Halaber, Konfiteri atzeko presa eta zubitxo ere nabari dira. Argazkian azaltzen den gizasemea, aurten betiko joan zaigun Ramon Agirre Agirre, Beuntzekoa dugu.

**2 • ARGAZKIA**

1960. urte inguruko argazkia da. Eliza eta Udaletxe aurretik pasatzen den artaldearen atzealdean dauden frontoi zaharra, zirkulu eta Juan Telleriaren omenezko monumentua ikus daitezke, besteak beste. Egun eremu horretan Andraitz auzoko eraikinak kokatzen dira.

**3 • ARGAZKIA**

1984ko argazkia da. Argazki honetan ikus daitezke egun gure paisaian falta diren hainbat elementu edo eraikin. Hala nola, papertegia, alkoholdegia, zerrategia,...Andraitz auzoko etxe atzealdea eraikitzen eta Oria ibaiaren dragatu eta bideratze lanen exekuzioa ere ikusten dugu.

**4 • ARGAZKIA**

1949. urteko argazkia. Zegamako panoramika jasotzen du. Herriko sarreran dauden eraikin bakartiak ikus daitezke. Atentzioa ematen du Aitamarraren aurreko zuhaitzak oraindik landatu gabe egoteak. San Bartolome auzoa eraikitzen hasi gabe egotea ere aipagarria da.

## 5 • ARGAZKIA

1952ko Lehen Jaunartzea. Argazkia Elizaren atzealdeko eskaileretan ateratakoa da.

Goiko ilaran ezkerretik eskubira: Jabier Zabaleta, Antonio Muñoa, Jose M<sup>a</sup> Urbizu, Jose Manuel Mendizabal, Ramon Arrizabalaga eta Fermin Larrea. Beheko ilaran ezkerretik eskubira: Silberio Zabaleta, Claudio Berasategi, Jose Gorospe, Jose Antonio Arakama, Jose M<sup>a</sup> Agirre, Joxe Telleria, Ignacio Larrea eta Paco Irastorza.



4



5

## 6 • ARGAZKIA

1958. urte inguruko argazki honetan txirrindulari proba ikus daiteke, Zegamako papertegia eta Villa San Jose aurretik pasatzen. Argazkian atentzio ematen digu txirrindularien atzealdean datorren ibilgailuak ("Prensa" karteltxoaren aurrean duela). Intxaustiko Gregorio Aramendi zenarena zen argazkian ikusten den "Dodge Carnero" deituriko ibilgailua.



6



## 8 • ARGAZKIA

Banda 1955an

### *1go FILA*

Jose M<sup>o</sup> Mendizabal Mendaraz • Luis Otaegi Larrea • Jose M<sup>a</sup> Alcaraz Goienetxe • Juan Otaegi Larrea • Julian Urkizu Urreta • Andres Laskibar Landa • Juan Kerejeta Mazkieran • Jesus Alzaga Arakama.

### *2go FILA*

Pantxo Alzaga • Santiago Azurmendi • Martin Catalina • Manuel Urbizu • Antonio Azurmendi • Juan Manuel Garcia • Leoncio Otaegi.

### *3go FILA*

Jose Arconada • Pedro Zubizarreta • Santi Irastorza • Jose Kerejeta.



## 9 • ARGAZKIA

1970 urtea, Eskola umeak lehengo frontoian jolasean.

## 10 • ARGAZKIA

Jose Kerejeta 1948an

“Maiteminduen bankuaren ondoan”





## Gabon eta Urte Berri gozo

### KARDU ETA ALKATXOFAK OSTREKIN (4 lagunentzat)

#### OSAGAIK:

- Kardu txiki bat
- 8 alkatxofa
- Oliba olio
- Baratzuri zatikatua
- Goilarakada bat hirin.
- Urdaiazpiko "birutak"
- Limoi ura
- 8 ostra
- Perrexil xeheua

#### PRESTAKETA:

Kardua garbitu, hariak ongi kenduz, eta gatza, oliba olio, limoi ura eta ur hotzetan urtutako irinarekin egosi. Gutxi gora-behera 25 minutu tapa azkarreko lapikoan. Egosten erabilitako salda gorde.

Alkatxofak egosteko, kardua modu berean, baina hauek denbora erdia behar dute egosten (oso garrantzitsua da bi barazki hauei limoi ura eranstea beztu ez daitezen).

Ostrak ireki eta ontzi batean jarriko ditugu, berauek askatutako urarekin, eta berotu bakarrik egingo ditugu.

Bukatzeko baratzuri zatitua jarri zartaginean su geldian. Dantzan hasten direnean urdaiazpiko birutak gehitu eta ondoren irina. Ondo nahastu eta kardua egostean gorde-tako salda erantsiko diogu. Ondoren barazkiak (kardu eta alkatxofak) erantsi eta dena elkarrekin egos dadin utzi bost bat minutuan su geldian. Bukaeran ostren salda eta ostrak erantsi. Hauek 15 segunduz mantendu soilik. Ateratzean perrexil xeheaz hautsezatu.

EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE BEASAINDAR SUKALDARI HONEK

*Jesus Mari Peña Iburguren  
Beasaingo Urkiola Jatetxeko sukaldaria*



### TXAHAL SOLOMOA PIPER BERDE ERARA (4 lagunentzat)

#### OSAGAIK:

- 8 solomo xerra
- Basokada bat esnegain likido
- Piper berdea granoan
- Kipula ertain bat
- Oliba olio
- Gatza

#### PRESTAKETA:

Zartaginean kipula egin, oso ongi xehe-tua eta biguntzen denean basokada esnegain likido bota, ondoren piper berdea alean (3 goilarakada), gatza norbere gustura bota eta su geldian hiru bat minutu egosten utzi.

Bitartean, bai plantxan bai zartaginean, olio tintta batekin solomoa erre behar da asko egin gabe (bakoitzaren gustura). Eman behar den ontzian jarri, bai plateran zuzenean edota fuentean eta saltsa bero-beroa gainetik bota.

Oharra: Plater hau txerri solomoarekin ere egin daiteke.

On egin.

*Maria Luisa Marín  
ARRIETA HAUNDI NEKAZALTURISMOA*



### SAGAR, MAHASPASA ETA INTXAUR-PASTELA (6 lagunentzat)

#### OSAGAIK ETA KOPURUAK:

- 180 gr intxaur
- 160 gr. Azukre
- 60 gr. irin
- 5 arrautza
- Legamia
- 3 sagar (golden motakoak)
- 2 goilarakada mahaspasa
- Margarina (goilarakada pare bat)

#### TRESNAK:

- Lapikoa
- 15 cm-ko altuera duen molde bat
- Metalezko barilak

#### PRESTAKETA:

Labea 180° tan berotzen jarri.

Intxaurrak zuritu, ondo txikitu eta gorde.

Sagarrak zuritu, erdibitu eta fin-fin xerratu.

Irina ehotu (tamizatu), legamia eta azukrearekin lapiko batean nahastu. Ondoren intxaurrak, mahaspasak eta sagar-xerrak gehitu.

Hori egin eta gero, margarina deseginda eta bost arrautzak banan bana erantsi. Osagai guztiak barilaz ondo nahastu.

Moldea gurinaz igurtzi eta dena bertan sartu.

40 minutuz labean eduki.

*Itziar Razkin  
LANDETxea DINTIBARRENA*



## **ERREALA ETA JOSEBA ALBIZU PRIMERAN**

Gure bihotzeko Errealak badaramatza bizpahiru urte larri. Zaleak urduri eta atsekabetuta egonik, horietako batzuk arazoari irtenbidea aurkitu nahian promesa edo konpromiso bitxiak hartzen dituzte. Jakina da Zegamarrok Arantzazuko Amatxorengan dugun sinismena eta begirunea. Honenbestez, Joseba Albizu herriko semeak, hitz eman zuen oinutsik joango

zela Arantzazuraino Errealak denboraldi bukaera lehen mailan igaroz gero. Arantzazuko Amabirjinak gure herritarraren eskaria aintzat hartu zuen, eta nola ez, hitza bete beharra tokatu zitzaion Joseba Albizuri.

Arbeltxo gizajoari zetorkion kalbarioa ikusita hainbat herritar eta Errealaren zale bildu ziren ospatuko zen erromesaldira. Jakina, hitza bete zuen Arantzazuko

Santutegiraino joanda, baina hitza betetzearen zamarik txarre-na Joseba Albizu Arantzazuraino eraman zuen zaldiarena izan zen, ezbairik gabe.

Azkenik, erromesak Arantzazuko Santutegian Zegamako errektore den Aita Pello Urriola-beitiak emandako Meza entzun eta bazkaldu ondoren, Zegamara bueltatu ziren arratsaldean.



*Joseba Albizu eta Zegamako Erreal-zaleak, ekainaren 23an Arantzazura egindako erromesaldian*



**SAIATU  
ETXEGINTZA**

S.A.



AZPEITIA

Informazio gehiagorako dei telefono hauetara: 943 814 961 / 943 815 064

OLARANGO BI TOKITAN GARAJEAK SALGAI DITUGU

**MANIPULADOS**  
CEGAMA S.COOP

Zorionak eta Urte Berri On!



Kartazal eta paperezko boltsak

ZEGAMA • 943 801 291 e-maila: manipzegama@jazzfree.com

**Electricidad**

**INAKI SORALUCE**

**Elektrizitate instalakuntzak**



Posta kutxa 3

• 20210 LAZKAO

Tel / fax:

943 888 196

606821186

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

**ZEGAMA  
OKINDEGIA**

OGI NATURALA ETA ERREPOSTERIA

Olaberri Kalea 6 • 20215 ZEGAMA  
943 801 066 / 939 483 253



Zorionak eta Urte Berri On!

2002 urte zoriontsua opa dizuegu

**Sestra**  
INGENIERIA Y ARQUITECTURA  
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

*¡Gabonak ondo  
eta  
Urte Berri On!*



Zuatzu Kalea, 2 - Igeldo Edifizioa 1go Oina - 10 eta 11. Lokalak • 20018 DONOSTIA  
Tfnoa.: 943 316 655 Faxes: 943 316 273 e-maila: ingenieria@sestra.es




ZEGAMAKO UDALA



GOIERRI BEHEKO  
INDUSTRIALDEA

LAGUNTZAILEAK:



KULTURA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirolak Departamentua



kutxa  
Zuri esker



Construcciones  
MENDIOLA

Labeaga, 9 - 1º - URRETXU  
943 720 511



Pablo VI Auzunea, 18 - AZPEITIA  
943 814 964



Nafarroa Kalea, 50  
943 132 334  
e-mail: ubiri@ubiri.com



INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA  
Zuatu Kalea, 2 - Igeko Edificia  
943 316 655 DONOSTIA  
e-mail: ingnieria@sestra.es



ZEGAMA - 943 80 12 91  
e-mail: manipzegama@jazzfree.com

ZEGAMA  
OKINDEGIA

Olaberrri Kalea 6 - 943 801 066

Electricidad  
**INAKI SORALUCE**  
Elektrizitatea



LAZKAO - 943 888 198



IL. GOSATEGI, 31 - ZEGAMA  
943 801 999

EZKERRA  
ETXEGINTZA, S.L.

Garmendi Kalea, 8 - Behea  
AZPEITIA - 943 150 926



GARRAIOAK-TRANSPORTES  
Arana Kalea, 12 - 3º C - ORDIZA  
943 881 782 / 608 770 612



THTIK  
GERRJETA

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA  
Guardain poligonoa - IDIAZABAL  
943 187 483



GOIERRI - OIARTZUN



Mikel Urbiztondo Larrea  
IGELTSERITZA LANAK  
ZEGAMA - 943 800 424



CANTERIAS CALDAS  
ZEGAMA - C/Portal, 7-3  
943 800 106



OIARBIDE

EKKABADORA TXIKIAK  
8º Txaripa, 8 3º Erk. - ZEGAMA  
943 801 187



Fernando  
Urbizu  
Arrieta

IGELTSEROAK  
ZEGAMA - 943 801 450

MIKEL  
MATXINANDIARENA

AROSATEGIA ETA  
ERABERRITZE LANAK  
ZEGAMA - 943 801 168

IRAUKI  
ERAIKUNTZAK  
ERAIKUNTZAK

Igarondo Kalea 1, beheka - TOLOSA  
943 697 416

FOTOIETNIE

JOSEMIKUTELLERIN  
ARGAZKILARIA  
Nafarroa, 23 - BEASAIN  
943 884 605

GARRA

GAS INSTALAZIO ETA ERAIKUNTZAK  
Ondare, 11-2 - ANTZUOLA  
943 787 174

OTZARTEKO BENTA

943 801 293  
ZEGAMA

